



Gabriel Jauregi
Batxilergorako materialak

Filosofia: 5 filosofo

Begoña Olaziregi Salaberria



Euskara Zerbitzua
Ikasmaterialak

Gabirel Jauregi Bilduma
Batxilergorako materialak

13

Filosofia: 5 filosofo

Platon, Tomas Akinokoa, Kant, Nietzsche, Wittgenstein

Begoña Olaziregi Salaberria



Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

1. Arte klasikoa. Grezia eta Erroma
2. Mikroekonomiaren oinarriak
3. Energia baliabideak
4. Arte marrazketa I
5. Oinarrizko mekanika: mugimenduen transmisioa, makina arruntak eta ariketa praktikokoak
6. Sexismoa maitagarrien ipuinetan
7. Filosofiaren historia
8. XIX. eta XX. mendeetako gizarte filosofia: liberalismoa, marxismoa eta komunismoa
9. Motorrak
10. Logika sinbolikoa
11. Ekonomia eta enpresen antolaketa: Ekonomia-politika; merkataritza saila eta marketina
12. Bolumena
13. Filosofia: 5 filosofo: Platon, Tomas Akinokoa, Kant, Nietzsche, Wittgenstein

Argitaraldia: 1. a, 2009ko urria

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Begoña Olaziregi Salaberria

Euskara-berrikusketa: Dolo Azpiroz

Fotokonposizioa: mccgraphics

Inprimaketa: mccgraphics

ISBN: 978-84-457-3011-9

L.G. BI-2494-09

AURKIBIDEA

1. PLATON	5
1.1. Mitoa, arrazoimena, tragedia	7
1.2. Presokratikoak.....	11
1.3. Sokrates eta sofistak	14
1.4. Platon	18
2. TOMAS AKINOKOA	33
2.1. Filosofia Erdi Aroan	35
2.2. Tomas Akinokoa	42
3. KANT.....	59
3.1. Kanten garaia: Ilustrazioa	61
3.2. Arrazionalismoa eta enpirismoa	65
3.3. Kant.....	70
4. NIETZSCHE.....	83
4.1. Nietzscheren garaia.....	85
4.2. Nietzsche.....	86
5. WITTGENSTEIN	97
5.1. Wittgensteinen garaia.....	99
5.2. Wittgenstein.	103
6. BIBLIOGRAFIA	115

Platon

1

1.1. MITOA, ARRAZOIMENA, TRAGEDIA

Ezagutzaren eboluzioaren historia errepasatzerakoan, garbi ikusten da Antzinaroan gai transzendenteei buruzko azalpenak tradizioan eta erlijioan oinarritzen zirela. Gai horiek gizakiaz eta gizakien arteko harremanez hitz egiten dute; gizakiaren azken helmugaz eta iraupenaz unibertsoaren barruan; mundu fisikoaz eta beste bizitza baten existentziaz, eta baita patuaz eta naturaz gaindiko indarrez ere. Munduaren, unibertsoaren edota errealitatearen sorreraz hitz egiten duen mitoari kosmogonia deritzo; jainkoen sorrerari eta izaerari buruzkoari, berriz, teogonia esaten zaio.

Orain arte dakigunez, gizakia gizaki denetik, kultura gehienetan mitoa izan da galdera eta kezka horien azalpenerako elementu nagusi.

Antzinako Grezian, mitoak kantatu egiten zituzten orduko poetek (*aedo* izenekoak), eta, horien bidez, alegiazko heroien gorabeherak azaltzen zizkioten jendeari. Beraz, ahoz hedatu ziren belaunaldiz belaunaldi. Baina ezin da zehaztu noiz sortu ziren. Hesiodok eta Homerok K.a. IX./VIII. mendeen inguruan jaso zituzten mito horietako batzuk, eta kontserbatzen diren lehen obra idatziak sortu zituzten: *Teogonia* (Hesiodo); *Iliada*, *Odisea* (Homerok).

Dena den, *aedo* bakoitzak bere erara interpretatzen eta egokitzen zuen mitoa, eta, horren ondorioz, mito bera era askotan agertzen da errepikaturik: batzuetan, elementu batzuk bakarrik aldatuko dira; beste batzuetan, berriz, erabat eraldaturik aurkituko ditugu; eta askotan, barne-egitura bateraezinak dituzte, edota kontraesanak elkarren artean.

Mitoez garai hari buruzko oso informazio baliotsua ematen digute; izan ere, bizimodua, ohiturak eta tradizioak, artea eta, bereziki, orduko pentsamoldea aztertzeko bidea dira. Azterketa horretan argi gelditzen dira mitoen berezitasun nagusiak eta bete zuten funtzioa (nahita edo nahi gabe).

1.1.1. MITOEN EZAUGARRIAK

Mitoez **azalpenak** dira. Horien bidez, gizakiarekin zerikusia duen guztiari esplikazioak ematen saiatzen dira (teogonian, adibidez, unibertsoaren sorrera azaltzen da). Naturaren eta bizitzaren aurrean sentitutako harridurak sortzen du azalpenak emateko beharra; ezezagun zai-gunak sorrarazitako izuak eta segurtasun-ezak.

Azalpen horiek, hala ere, ez dira gaur egun espero daitezkeen bezalakoak. **Dogmatikoak** dira guztiz; hau da, azalpenak ez dira zalantzan jartzen; ziurak dira, berezko oinarri arrazionalik edo naturalik gabeak. Ez da haien egiazkotasuna planteatzen —izan ere, egiaren kontzepzio filosofikoa edo zientifikoa oraindik ez dagoen garaikoak dira—. Elementu osagarriak naturaz gaindikoak dira, sinesmenaren eremukoak. Horrela jaso dira tradizioz, eta bere horretan mantentzen dira.

Mitoez alegoriaz beterik daude; hau da, azalpenak ez dira zuzenki ematen, zeharka baizik. Mitoez ez du inoiz esango, esaterako, itsasoa nolakoa den edota nola sortu zen; beste nolabaiteko irudiren bat erabiliz azalduko da. Irudi horiek **sinbolikoak** izaten dira: asmatutako sinboloen bidez adierazten dituzte gauzak eta gertaerak. Horrela, bada, *Gea* jainkosak Lurra adieraziko du; *Zeusek*, ekaitza; *Apolok*, edertasuna eta oreka; eta abar.

Jainkoak dira mitoetako sinbolo nagusiak, bakarrak ez izan arren; gainera, gizakien gisakoak dira, **antropomorfitikoak**. Gizakien pasio eta arazo berberak dituzte: elkarren arteko mai-

tasuna eta gorrotoa, mendekuak eta paktuak, zaletasunak, apetak eta maniak... Baina jainkoak hilezkorrak eta ikusezinak dira, eta horrek bereizten ditu gizakiengandik.

Jainkoen borondatea, edo haien arbitrariotasuna da gertaera eta fenomeno guztien oinarri. Naturan iraunkortasunik ez dago. Esate baterako, harri bat askatzen dugunean, behin eta berriz lurrera erortzea jainkoen nahiaren ondorioa baino ez da, eta kontrakoa ere gerta liteke haiek hala nahiko balute. Beraz, pentsamendu mitikoan ez dago gauzak gertatzeko **berezko** erarik —era naturalik—. Ondorioz, mitoetan oinarritutako azalpen-sistemak ez du iraunkortasuna suposatzen naturaren bilakaeran. Horregatik, azalpenak **naturaz gaindikoak** dira. Agian, horregatik da hain zaila gaur egun mitoak ulertzea: azalpen *arrazionalak* bilatzen direlako.

Dena den, bada mitoetan ondorengo pentsamenduaren sorreran erabakitzailea izango den kontzeptu bat: **patua**. Patua edo zoria ekidinezinezko etorkizuna da, edozer eginda ere. Idatzirik balego bezala, gertatu beharrekoa gertatu egingo da. Patuaren indarra erabatekoa da, jainkoak berak ere bere mende daudela (Ediporen mitoa adierazgarria da oso). Patua da indar iraunkor bakarra. Badirudi patua ekiditeko ezintasun horretatik eratorri zela pentsamendu arrazionalaren ezaugarria: naturak lege edo printzipio iraunkorrak dituela, eta gertakizun guztiak haien ondorio direla.

Mitoak belaunaldiz belaunaldi igortzen zirenez, **balioen hedapen-funtzioa** ere betetzen zuten. Bai eguneroko bizitzan, eta baita egoera konkretu berezietan ere, jokabide egokiena zein zen esaten zuten: pertsona batek nolakoa izan behar zuen (heroien antzekoa: ausarta, errugabea, ederra, aberatsa, trebea borrokan, irabazlea, indartsua...); jainkoak pozik edukitzeko, hau da, gizakien alde egoteko, zer egin behar zen; zein zen emakumearen tokia eta zergatik; gazteak adinekoari obeditu beharra; esklaboak nagusiari zerbitzatzeko betebeharra; eta abar. Horiek denak eta antzekoak argitzen zituzten mitoek. Ezarritako ordenaren bermatzaileak ziren, beraz. Gainera, hezkuntzaren kontzeptzioak indartu egiten zuen funtzio hori, hezkuntza horretan baitzetzan: mitoak ikastea. Mitoak ezagutzen zituena zen jakintsua, berak baitzekizkien azalpenak.

1.1.2. MITOTIK LOGOSERAKO ALDAKETA

Hala ere, K.a. IV. mendearen eta K.o. II.aren artean, Mediterraneo itsasoaren ingurune txiki batean, *Logosa* (arrazionaltasuna oinarri duen pentsamendu mota) sortu eta garatu zen.

Eta zer gertatu zen Grezian garai horretan deskribatu berria dugun pentsamendu mota hori beste pentsamendu mota batek ordezkatu zezan? Zer-nolako aldaketa gertatu zen ordura arteko azalpenak balioa galduz joan eta beste nolabaitekoak bilatzen hasteko? Tentazioa honako hau erantzutea izango litzateke: «ordura arteko esplikazioak egia ez zirela konturatzen hasi ziren». Baina lehen tentazio hori saihestu egin behar dugu, guztiaren gaineratik, ulertzen saiatu nahi bada.

Hori erantzuten bada, hauxe egiten ari gara: haien azalean gaur egungo pentsaerarekin jarri. *Egiaren* kontzeptuak geroago hartuko zuen garrantzia, garai hartan ezagutu ere ez baitzuten egiten, oraindik **asmatu gabea** zelako. **Egiatasuna** pentsamendu arrazionalak sortutako kontzeptua da, eta ez du inolako esanahirik pentsamendu mitikoan. Pentsamendu arrazionalaren arabera, jakintsua *egia* (zientifiko) asko dakiena da. Greziarren pentsamendu mitikoan, hori pentsaezina zen: mito gehien eta hobekien ezagutzen zituena zen jakintsua. Pentsamendu mota hura baliagarria zen gizarte hartan. Baina, **aldatzen hasi zen**.

Oraindik erantzun gabe dugu lehen egindako galdera: **zergatik** gertatu zen halako aldaketa?

Une historiko hartako berezitasun guztiek elkartuta sortu zuten aldaketa. Ez zen eragile bakarra izan, une berean eta toki berean batera gertatutako eragile multzoa baizik. Faktore-pilaketa horren ondorioz hasi zen pentsamendu mitikotik pentsamendu arrazionalerako aldaketa: mitotik *logosera*.

Hau da kontuan hartu behar den beste zerbait: pentsamendu mota aldaketa hori ez zela bat-batekoa izan; aitzitik, mende askoko prozesua izan zen. Mitoaren eta arrazoimenaren arteko borrokan, bi arerioek izan dituzte aldekoak eta kontrakoak. Aro Modernoaren sorrerak eta, bereziki, Ilustrazioak emango diote pentsamendu arrazionalari bultzada erabakitzailea. Gaur egun, Mendebaldeko kulturaren behintzat, nagusi dela esan dezakegu. Antzinako greziarren garaian, hau da, K.a. VIII. mendean eta hurrengoetan, izan ziren lehen pausoak; lehenengoak, baina oinarritzakoak.

Jarraian ikusiko ditugu pentsamendu-aldaketa ahalbideratu zuten eragileak eta aldaketaren aparteko lekukoa: tragedia.

1.1.2.1. Eragileak

Polisaren garapena. K.a. VII. mende arte, Grezia jauntxo eta nobleen eskuetan zegoen. Joniako polisetan lehendabizi eta Atenasen geroxeago, oso garai aberatsa eta loretsua hasi zen: merkatuaren gorakada, artisautzaren garapena, ekialdeko herriekin harremanak, gerra-teknika berriak... Horren guztiaren ondorioz, aristokrazia indarra galduz joan zen, nagusitasuna galdu arte, ordura arte mendeko zituztenak aberastuz baitzihoazen. Horrela, bada, polisaren edo hiriaren zati handi batek izan zuen erabaki orokorretan parte hartzeko eskubidea, eta gobernu-sistema berri bat sortu zen: **demokrazia**. Herritarrak *agoran* (plazan, merkatuan) elkartzen ziren polisaren arazoez hitz egin eta irtenbideak emateko. Interes eta iritzi askotarikoak agertzen ziren; eta horrekin batera, baita ondo eztabaidatzeko beharra ere, norberak berea behar bezala defendatzeko eta besteak konbentzitzeko. Taldeak hartutako erabakien arabera funtzionatu behar zuen polisak. Legedi baten hastapenak izan ziren, denek onartutakoa eta herritar guztiak behartzen zituena.

Egoera horri **esklabotzaren** existentzia eta **emakumearen egoera** erantsi behar zaizkio. Lanaren arduradunak esklaboak eta emakumeak zirenez, gizonak **aisiarako** denbora zuen. Eskulana duintasunaren kontraketatzat zuten, eta ez zioten horri denborarik eskaintzen; ezta lanaren errendimenduak hobetzeko teknika berriak asmatzeari ere, hori esklaboei egiten baitzuten. Hortaz, pentsatzeari eta eztabaidari ekin zioten, eta horren bidez, hainbat gai jorratu eta sakondu zituzten (adibidez, naturaz kezkatzen hasi ziren).

Greziarren **erlijioak**, zituen berezitasunak kontuan harturik, ezin izan zion kontrako oztopo handirik jarri *logoserako* aldaketari. Izan ere, mitoen bertsioak askotarikoak ziren; eta ez zuten ortodoxia mantentzeko liburu sakraturik, ezta erlijio-sistema bere horretan gordetzeaz arduratuko zen eliza modukorik edo apaizgorik ere. Horregatik, erraz onartu zituzten inguruko kulturetako erlijioen eraginak. Ondorioz, ezerk ez zion aurre egin ikuspegi eta planteamendu filosofiko berriari.

Merkataritza-harremanak zabaltzeak immigrazio handia sorrarazi zuen zenbait polisetan. Atenas bihurtu zen inguruko gune ekonomiko eta kulturala, eta kanpotarren portzentajea herena izatera iritsi zen. Hainbeste kulturatako giroak lagundu egin zuen erlatibizatzeke eta kritikatzeko bidea irekitzen. Txanpona ere inportatu berria zuten, eta, trukea utzi eta dirua erabiltzen hasteak abstrakzioarako ahalegin handia eskatzen zuenez, pentsamolde-aldaketaren eragilea ere izan zen.

Idazkera K.a. IX. mendearen inguruan jaso zuten feniziarrengandik. Ahozko azalpenek ematen ez zuten errebisiorako aukera eskaintzen zuen idazketak: une horretatik aurrera, idatzirik utzitakoa behin eta berriz irakurri ahal izango zen, eta horrek errebisatu, kritikatu, finkatu, aldatu eta zuzentzeko aukera ekarri zuen. Aukera hori ez zen inguruko kulturetan garatu —egiptoarren artean edo feniziarren artean, adibidez— idazkeraren trebetasuna erlijio-elite oso txiki baten edo eskriben eskuetan zegoelako.

Arrazoi nagusi horiek, eta aipatu gabeko beste batzuek, egoera aproposa utzi zioten filoso-fiaren sorrerari. Jainkoen arbitrariotasunaren kontrako ahots eszeptikoak entzuten hasi ziren, eta mitoen irakaskuntzaren aurrean, arrazoitzeko beharraren aldekoak ugarituz joan ziren. Eta arrazoitzeak hitza edo hizkuntza (*logos* grekoz) erabiltzea eskatzen zuen; horregatik deitzen zaio **logos** edo pentsamendu logikoa pentsamendu arrazionalari.

Lehen aipatu bezala, mitoetan ageri zen **patuaren** kontzepzioa aldatuz joan zen, Logosaren garapenarekin batera. Naturan dagoen iraunkortasuna edo beharrezkotasuna izan zen kontzeptu horren forma berria; hau da, gertakizunak edo fenomenoak horrela gertatzen dira, naturak berezkoak dituen lege edo printzipio (*arje*) batzuen arabera. Iraunkortasun horri **esentzia** (*eidōs*) deitu zioten greziarrek.

Natura ordenatu edo ordenatzaile horri *physis* deitu zioten, eta horren printzipioa, *arje* (hasiera, oinarria), izan zen lehen filosofoek bilatu zutena. Filosofo horiek, *physis*ari buruzko lehen pentsalariak izan zirenez, lehen filosofoak direla esan liteke, baina ez gaur egungo esanahiarekin. Teoriko hutsak ziren, metodo esperimentalak askoz geroago sortu baitziren, Errenazimentuan.

Sokratesen garaira arte (K.a. 450 inguruan), *physis*a izan zen filosofoen interesgunea. Horregatik, aipatutako filosofo horiei *presokratiko* deritze.

1.1.2.2. Tragedia: Mitoaren eta Logosaren artean

Tragediak antzinako grekoen antzerkiak dira, gehienetan mitoetan oinarrituak. K.a. VI. mendearen bukaeratik K.a. IV. mendearen hasiera arte izan zen tragedien urrezko garaia. Ordukoak dira idazle tragiko ospetsuenak: Sofokles, Euripides, Eskilo...

Tragedietan agertzen diren gizakia eta gizartea oso konplexuak dira: bi pentsamoldeen arteko borroka (zaharra bata, mitikoa; berria bestea, arrazionala) barneratuta duen gizakia eta gizartea. Askotan kontrajarriak diren bi motatako balioak eskaintzen zaizkie: alde batetik, tradizionalak, mitoetan agertzen direnak (lehentasuna, arrakasta, ospea, harrotasuna, indarra...); bestetik, balio politikoak, mitoetatik urruntzen direnak (berdintasuna, justizia, borondatea...). Honela dio tragediaren ikerle nagusietakoak, J.P. Vernantek: «Tragedian polisa antzezlanaren gai bihurtzen da, eta bere burua antzezten du publikoaren aurrean» (...) «polisa antzerki bilakatzeko da».

Baina ez da nolana hiko aurkezpena, tragediak «ez du errealtate hori islatu soilik egiten, zalantzan ere jartzen du»; «errealtatea erdibituta aurkezten duenean, bere barnean zatikatuta, erabat problematikoa bihurtzen du».

Tragedietan antzezten dena, beraz, garai hartako polisak eta gizakiak bizi zuten egoera bera da; egoera hori aurkeztu egiten zen, nolabaiteko erantzunaren zain edo; tradizioaren eta berrikuntzaren artean aukera egiteko zain edo. Baina aukeraketa hori zailegi gertatzen zitzaion gizakiari.

Tragediak eragin handia izan zuen herritarrengan. Horren adibide, garaiko politikariek eta pentsalariek tragediari buruz pentsatzen zutena: bai kontserbadoreek, bai berritzaileek etsaitzat zuten tragedia; lehenengok, aurrekoaren aldaketa ikusarazten zuelako, gaia planteatzen zuenean; azkenekok, pentsamendu mitikoa gainditurik nahiko zuketelako, eta tragediak pentsamendu hori berraurkeztu egiten zuen behin eta berriz.

Gaurkotasuna galdu ez duten artelan horien bidez, garai hartako pentsaeraren berri dugu, orduko gizakiaren eta gizartearen zenbait arazoz jabetzen gara. Tragediak mitotik logoserako aldaketa hori aurkezten du, poliki-poliki gertatzen ari zen aldaketaren isla eta lekuko baita.

1.2. PRESOKRATIKOAK

Filosofo presokratikok, edo lehen filosofoek (K.a. VI. eta V. mendearen hasiera), *physis*a aztertu zuten: kosmosa (unibertsoa, natura) zertan datzan, gauzen *arjea* (naturak berezkoak dituen legeak edo printzipioa). Asia Txikian, Jonia aldean (Efeso eta Mileto, bereziki) eta Italiako hegoaldean (Elea, Krotona...) sortu ziren lehen mugimendu nagusiak VII. mendearen bukaeran. V. mendean —Periklesen mendean— Atenasera aldatu ziren.

Filosofo haien guztien pentsamendua *kontrako bikotetan* oinarrituta dago: mugimendua/gelditasuna; eguna/gaua; hotza/beroa; gerra/bakea; bizitza/heriotza... Horrela, bada, presokratiko gehienentzat naturaren izaera banatua da.

1.2.1. TALES MILETOKOA (K.a. 624-546)

Greziako Zazpi Jakintsuetako bat. Filosofo eta matematikari honi buruz dagoen informazioa (betiere, beste filosofoen bitartez iritsitakoa) gutxi da, eta ez da oso argia. Bi baieztapen nagusi ditu:

- Naturaren *arjea* **ura** da.
- Gauza guztiak jainkoz beterik daude.

Interpretazio asko eman dakizkioke horri. Batetik, guztiaren *arjea* ura dela esatean, dena urez osatuta dagoela uler daiteke; baina baita guztiaren jatorria ura dela ere. Bestalde, dena jainkoz beterik dagoela esaten duenean, gauza guztiak etengabe aldatzen ari direla esan nahi duela dirudi; *physis* osoa bizirik eta mugimenduan dagoela (hilozoismoa).

Gaur egungo ikuspegitik begiratuta, garrantzia duena ez da esan zuen hura egia zen ala ez, eman zuen pausoa baizik: lehenengo aldiz, guztiaren oinarria era logikoz edo arrazionalerik aurkitu nahi izan zuen; hau da, mitoetatik urruntzen den azalpen bat bilatu zuen.

1.2.2. ANAXIMANDRO MILETOKOA (K.a. 611-546)

Filosofo honen ekarpenik handiena honetan datza: ez du *arjea* gai material batean bilatzen, maila kontzeptualean baizik; abstrakzio bat da, eta *apeiron* deitu zion.

Apeirona da gauza guztien *arjea*: zehaztugabea, mugagabea; banaketa guztien gainetik dagoena; gaua eta eguna, mugimendua eta gelditasuna, bizitza eta heriotza, eta abar biltzen dituen. *Apeiron* horretatik dator dena, *kontrakoetan* bereizi egiten da, eta kontrako horien arteko tentsioa eta gataska sortzen da. Baina dena *apeiron* horretara itzultzen da behin eta

berriz, eta behin eta berri sakabanatzen da *apeirona* kontrakoetan, eta horrela ziklo bat sortzen da (betiereko itzulera).

1.2.3. HERAKLITO EFESOKOA (K.a. 544-484)

Joniako tradizioari jarraitu zion, eta *arjea* elementu konkretu batean ikusten zuen: **su**an. Dena sutik dator, eta dena sura itzultzen da, behin eta berri. Betiereko itzuleraren ideia, beraz. Sua da betidanik izan dena. Baina Heraklitoren suak ez zuen ezaugarri fisikorik. Irudi poetikoa dela esan liteke, suaren ezaugarriak aurrerago azalduko dugun *logos*arenak baitira.

Hala ere, Heraklitoren filosofiaren aspektu nagusia beste bat da. Esperientzian eta kontrakoan borrokan oinarrituta, naturan dena etengabeko aldaketa-prozesuan dagoela esan zuen: «dena aldatzen da, ezerk ez du irauten»; «ezin da ibai berbera birritan jaitsi». Izan ere, eguna gau bihurtuz doa; negua, uda; beroa, hotz; eta abar. Binakako borroka hori (dialektika) guztiaren oinarria da: «gerra gauza guztien aita eta erregea da». Dena den, egindako planteamendua ez da dirudien bezain sinplea, kontraesanek harmonia sorrarazten dutela esaten baitzuen. Kontrakoan arteko borrokan datza, hain zuzen, natura eta naturaren harmonia hori: «arkuaren edota liraren kasuen antzera».

Heraklitoren ustez, hori horrela da dena zuzentzen duen *lege* bati esker, arrazoi-printzipio bati esker; natura guztia ezkutuko arau unibertsal baten arabera, *logos*aren arabera ordenatzen da. Baina Heraklito askoz harago joan zen, eta sekulako garrantzia izan zuen zerbait aurreratu zuen: *Logos* hori gizakiarengan ere bazegoela. *Logosa* ezagutzea izan beharko litzateke gizakiaren eginkizuna, gehienak bide horretatik erabat urrun ikusten bazituen ere.

Heraklitoren kontzepzio horiek Platonen filosofiaren iturri nagusietakoak dira.

1.2.4. PITAGORAS (K.a. 570-496) ETA PITAGORIKOAK

Oso gutxi da presokratiko honi buruz dakiguna: Joniako kostako Samos uhartean jaio, eta Italiar penintsulara, *Magna Graeciara* (Krotona) emigratu behar izan zuen; han, sekta moduko bat sortu zuen. Sekta horrek oso arrakasta handia lortu zuen arren, zaila da jakiten zer datarren Pitagorasengandik eta zer haren jarraitzaileengandik, komunitateko kideek egindakoa denena baitzen eta haien doktrinari, pentsamenduari eta errituei buruzko erabateko sekretua gorde behar baitzuten.

Pitagorikoen doktrina erlijiosoa aztertzean, alderdi erlijiosoa eta filosofikoa bereiz daitezke, nahiz eta haientzat bi aspektuak bat ziren. Eduki erlijiosoari dagokionez, arimen haragitzean sinesten dute; hau da, arimak gorputza uzten duela hiltzean, baina beste gorputz batean haragituko dela. Eta hori bizidun guztietan gertatzen da erlijio horren arabera. Horrek kontzepzio *dualista* batera garamatza: gorputza/arima. Ikerle batzuen ustez, zenbakien bikoitia/bakoitia dikotomia aurrekoan oinarritzen zuten pitagorikoek.

Baina filosofiari egindako ekarpen handiena matematikaren aldetik dator. *Arjea zenbakietan* datza: zenbakiak eta irudi geometrikoak gauzen esentzia osatzen dute. Unitatea puntu espazialarekin erlazionatzen zuten; gorputzak puntu espazialen bilketa bat baino ez dira; puntuek lerroak, planoak eta bolumenak eratzen dituzte. Matematika intuizio horren garapena izango litzateke eta, aldi berean, baita errealitate osoa ere. Bide horretatik abiatuta asmatu zituzten biderkatzeko taula, Pi (π) zenbakia, Pitagorasen teorema, eta abar.

Dena den, ez ziren horretan gelditu, eta zenbakiz osatua dagoen azpiko mundu hori sinesmen erlijiosoekin bateratzean, unibertsoan erabateko egokitasun perfektua, *harmonia* sumatzen zute-

la zioten; eta unibertsoan, planeta eta astro guztien mugimenduak nolabaiteko musika sorrarazten duela. Gizakiok, beti hori entzuten bizi garenez, ez dugu sumatzen —isiltasuna entzuten ez dugun bezala—, baina sentsibilitate edota jakinduria egokia garatzera iritsiz gero, lor daiteke musika hori entzutea. Jarraitzaileek ziotenez, Pitagoras musika hori entzuteko gai omen zen.

Pitagorikoen eragina oso handia izan zen Platonen pentsamenduan, matematikari emandako garrantzian, besteak beste.

1.2.5. PARMENIDES ELEAKOA (K.a. 540-470)

Greziar filosofiaren garapenean erabakitzailea izan zen filosofo hau. Tesi nagusia errealitatearen aldagaiztasunean datza: mugimendua (aldaketak) eta aniztasuna ezinezkoak dira.

Nondik atera zuen halako kontzepzio harrigarria? Dena adierazpen honetatik dator: **errealitate bakarretik ez daiteke aniztasuna erator** (hasieran dena airea bazen, adibidez, ezinezkoa da gero airea ez den beste zerbait izatea). Pentsamendu horren ondorioz, beste honetara iritsi zen Parmenides: ezer ez daiteke ez den zerbait bihurtu; **izatea** bada, eta **ez-izatea** ez da; eta **ez-izate** ezin da **izatea** sortu, eta **izatea** ez daiteke desagertu, **ez-izatea** ez bailitzateke orduan. Horrela, bada, **izatea** gauza guztietan adimenak aurkitzen duen oinarria da, betierekoa, aldaezina, bat (izate desberdinak izango balira, **ez-izateak** bereizi beharko lituzke, eta **ez-izaterik** ez da). **Izatea** betiereko esfera perfektu eta aldaezin moduan ulertuko du.

Horren ondorioz, eta errealitatea bakarra eta iraunkorra bada, denboraren bilakaera, aldaketak, izakien aniztasuna, ilusioak baino ez dira.

Zer da hain interesgarria Parmenidesen pentsamenduan? Adierazpen horiek guztiak adimeanean (*nous*) oinarrituz egiten zituela. Errealitatearen aldagaiztasuna —zer den egia eta zer itxura hutsa...— ukazina iruditzen zitzaion Parmenidesi, adimenak *esaten* ziolako horrelakoak direla; adimenak, eta ez beste ezerk.

Horrela, bada, ondorengo filosofiaren garapenean erabateko garrantzia izango zuen bereizketa ezarri zuen: *egiaren* eta *itxuraren* artekoa. Adimenak esaten duena (iraunkortasuna, batasuna...), hori da **egia**. Eta zentzumenean ikusarazten dutena (aldakortasuna, aniztasuna...) **itxura** da.

Bereizketa hori Platonen pentsamenduaren erdigunean dago, ideien teoriaren oinarri izanik.

Orain arte ikusitako presokratiko guztiak —pitagorikoak izan ezik— *monistak* ziren; hau da, errealitatearen oinarria elementu bakar bati atxikitzen zioten. Pitagorikoak, berriz, *dualistak* ziren, bi elementu bereizten baitzituzten: gorputza/arima (materia/espiritua).

Azken presokratiko askok, berriz, *arjea* elementuen aniztasunean bilatzen zuten. Horietatik garrantzitsuenak **atomistak** dira; eta horien artean, Demokrito. Sokratesen garaikidea izan arren, aztertzen duen gaia —*physis*— kontuan izanik, presokratikotzat hartzen da.

1.2.6. DEMOKRITO (K.a. 460-370)

Parmenidesen planteamendutik abiatu zen, eta mugimenduaren eta aniztasunaren arazoari irtenbidea aurkitzen saiatu zen. Parmenidesez **ez-izatea** ukatzen zuen; Demokritok horren nolabaiteko existentzia baieztatu egin zuen, ordea. Errealitatea, beraz, **izatez** eta **ez-izatez** («materia» eta «hutsa» esango genuke gaur) osatuta dagoela zioen. Mugagabeak eta oso tamaina txikiko partikulek osatzen dute **izatea**. Partikula horiek solidoak eta aldaezinak izateaz gain, zatiezina dira: *atomoak*. Atomoen artean hutsa (**ez-izatea**) dago. Atomo horiek zurrumbilotan mugitzen dira, elkarren artean lotzen dira, eta gorputzak, mugimenduak eta egoera desberdi-

nak sortzen dituzte. Etengabeko talkak ez dute inolako ordenarik, kasualitatezkoak dira, ez diote zehazturiko helburu bati jarraitzen. Gorputzen aldaketak —sorrera eta suntsipena— zurrumbiloen aldaketen araberakoak dira, baina atomo bakoitza beti berdin mantentzen da. Hitz gutxitan, atomoak eta hutsa besterik ez dago, Demokritoren ustez. Dena materia da; eta tartekoa, hutsa. Arima (biziarazten/izanarazten gaituena) ere materiala da, eta hilkorra. Beste horrenbeste gertatzen da adimenarekin edo pentsamenduarekin.

Platonen filosofian eragin handirik izan ez bazuen ere, ondorengo pentsalari garrantzitsu batzuek indar handiz mantenduko dute Demokritoren pentsamendua (Epikuro, Lukrezio...). Bestalde, nekez ikus daiteke fisika modernoaren aurreratze moduan, ez baitago azken horren ezaugarri nagusia den esperimenezko oinarrituta.

1.3. SOKRATES ETA SOFISTAK

Egoera historikoak, demokraziaren kontsolidazioak eta oparotasun ekonomikoak (Espartarekin bakarrik zituzten arazoak), arazo berriak sorrarazi zituen Atenasen. Gizabanakoen arteko harremanak zuzentzen dituen legea lehen mailako gaia bilakatu zen, eta legediaren naturari buruzko eztabaida, pentsalarien aztergai nagusia. *Physisaren* gaia, beraz, bazterturik gelditu zen, filosofia herrira eta herritarrengana gerturatu zen.

Legearen naturari buruzko eztabaidan, bi jarrera nagusi agertu ziren: alde batetik, legeen balio *unibertsala* eta *naturala* defendatuko zuena, *physisaren* aldekoa; bestetik, legeak konbentzio (*nomoi*) edo akordio bat baino ez dela esaten zuena, *nomosaren* aldekoa. **Sofista** gehienak azken horietakoak izango dira. Sokrates, sofisten artean hasi bazen ere, horien oinarriko tesietatik urrunduz joan zen.

1.3.1. SOFISTAK

K.a. V. mendean Atenasen elkartu ziren pentsalariak adituak eta esperimenezkoak ziren. Ez zuten inolako eskolarik eratu, ez filosofia edo doktrina bateraturik mantendu, askotan aurkako iritziak ere izaten baitzituzten. Hala ere, garaiko oso fenomeno sozial garrantzitsua izan zen, eta elementu komun batzuk aurki daitezke haiengan:

- Gehienak kanpotik etorritakoak ziren, eta ideia askotarikoak eta berritzaileak ekarri zituzten. Haien eragina oso handia izan zen, gazteengan bereziki, baina tradizionalisten kontrakotasuna jasan behar izan zuten. Berebizikoa izan zen haien garrantzia Atenaseko bizitzan eta etorkizuneko filosofian.
- Atzerritarrak izanik, ezin zuten erabaketan parte hartu, baina haiek ziren Atenaseko herritar gehienak prestatzen eta hezten zituztenak; irakasle profesionalak ziren.
- Polisaren arazo praktikoez kezkatzen ziren, eta helburu nagusia ikasleak ahalik eta hobekien prestatzea zuten, bai *agoran* (plazan) besteak konbentzitzeko, eta baita tribunaletan irabazle irteteko ere. Eredua ez zen, dagoeneko, gizon trebea, ausarta eta ederra, arrakasta lortuko zuena baizik. Hortaz, oratoria eta erretorika —hitzen bidez besteak konbentzitzeko trebetasunak— izan ziren sofistek irakasten zituzten gai nagusiak.
- **Erlatibistak** ziren; ez zuten absolututan sinesten. Haien ustez, dena erlatiboa eta konbentzionala da; *nomos*, akordioa da dena. Denboraren poderioz, hainbat era edo bide erabiliz (hezkuntza, tradizioak, ohiturak...), adostasunak lortu dira. Beraz, gauzak ez dira

berez onak edo txarrak, politikak edo itsusiak, egia edo gezurra; dena bere balio praktikoaren arabera da. Hori argi ikus daiteke Protagoras sofistak esandako hitz hauetan: «gizakia da gauza guztien neurria». Horren bidez haxe esan nahi duela dirudi: kultura bakoitzak —eta sofista gehienak bezala, kultura asko ezagutzen zituen— legedi desberdina du, eta gehienek ez dute beste inorena nahi izaten. Orduan, ez dago esaterik bat bestea baino hobea dela —denentzat egokiena—. Ondorioz, aldaketak egiten direnean egokiagoa den zerbait ezartzeko, ez da **berez hobea** dena lortuko, *guretzat* hobea dena baizik.

Sofista batzuk **eszeptikoak** ziren; hau da, errealitatearen objektibotasunean sinetsi arren, gizakiak errealitate hori ezagutu ahal izateko ahalmena duenik ukatzen zuten. Adibidez, Gorgias-ek esandakoa: «ezer ez da existitzen; existituko balitz, ezagutzea ezinezkoa litzateke; eta ezagutzerik balego, ezin izango litzateke igorri».

- Jakintza praktiko guztiak bildu nahi izan zituzten, ezagutza orokorra sortu¹, eta, horregatik, ezaguna zuten munduko leku guztietako datuak jaso zituzten (kulturalak, geografikoak, politikoak...).
- Garai hartako erakundeekin kritikoak eta zorrotzak izan ziren; horretarako, polisaren arazoan eguneroko martxari oso gertutik jarraitzen zioten, eta horren arabera prestatzen zituzten ikasleak. Baina sofistek ematen zuten prestakuntzak oso kritika gogorrak izan zituen. Izan ere, irakasten ziren trebetasunak kontuan izanik —oratoria eta erretorika— ez da harrigarria ikasle askok ikasitakoa herritarrak manipulatzeko eta demagogia egiteko erabili izana. Gainera, sofista askori egokia iruditzen zitzaion jokabide hori. Kritias-en ustez, adibidez, legedia —erlijioa bezala— gizon beldurtien eta maltzurren asmakizuna baino ez da, indartsuena (onena) zapaltzeko. Injustizia horren kontrako armarik hoberena, beraz, besteen gaintetik jartzen laguntzen duen hezkuntza litzateke.

Aipatutako pentsaera hori sofista guztiek onartua ez bazen ere, nahiko orokorra zela dirudi, haien kontrako salaketa ugariren eta bortitzen arabera². Hala eta guztiz ere, haien artean, herritar guztientzat eskubide berak aldarrikatu zituenik ere izan zen, edota emakumea gizonezkoaren maila berean jartzea eskatu zutenik ere.

Platonek idatzi zituen obra gehienak sofistek eta haren maisua izan zen Sokratesen arteko dialogoak dira. Sokratesen eta sofistek arteko eztabaidak agertzen dira, eta polisaren, herritarren eta kulturaren inguruko gaiak sakonki aztertzen dituzte.

1.3.2. SOKRATES (K.a. 470-399)

Atenaseko familia xume bateko semea zen (aita eskultorea eta ama emagina zituen), eta inoiz ez omen zuen ezer egin pobreziatik ihes egiteko, ondasun materialak garrantzi gabeak iruditzen baitzitzaizkion. Agorako eztabaidetan parte hartzen zuen, eta, hasieran sofistek artekoa bazen ere, haiekin zituen desadostasunak gero eta handiagoak eginez joan ziren; eta haien erlatibismoa eta eszeptizismoa gaitzetsi zituen. Ez zen irakasle profesionala, ez baitzuen ezer kobratzen. Dena den, agoran pasatzen omen zuen egun osoa, sofistekin eztabaidan. Bere ideiez oso konbentzitua omen zegoen, eta, argumentatzeko zuen trebetasun apar-

¹ Azpimarratzekoa da sofistek helburu horrek XVIII. mendeko entziklopedistek lortu nahi izango zutenarekin duen antza. Sofisten jakinduria, hala ere, buruz gorde beharrekoa zen, idazketaren kontrakoak baitziren. Haien pentsaerari buruz dakigun gehiena Platonek idatzitako dialogoei zor zaie.

² Sofista terminoa, gaur egun, hizkuntzaren bidez besteak manipulatzeko dituenari aplikatzen zaio.

tari esker, gazte asko hurbildu zitzaion. Familia aberats eta eraginkorretako seme ugari jarraitzaile izan zuen, besteak beste, Platon, Alzibiades eta Kritias.

Esan bezala, ez zituen onartzen sofisten erlatibismoa —ez dago egia bakar eta absoluturik, dena erlatiboa da— eta eszeptizismoa —egia absolutua balitz ere, ezin da ezagutu—. Sokrates *egia*ren bilatzailea izan zen, eta, egia horretan sinesteaz gain, ezagutzera irits zitekeela ziur zegoen.

Baina zer da *egia*? Eta zein metodoz edo bidez ezagut daiteke?

Sokratesek bilatzen zuen egia ez zen aurreko filosofoek (presokratikoek) bilatzen zutena. Haren ustez —eta honetan bat egiten du sofistekin—, gizakiak *physisari* buruz jakin dezakeenak ez du inolako garrantzirik. Norberaren ezjakintasuna onartzea da egokiena, eta horregatik zioen: «ezer ez dakidala baino ez dakit».

Sokratesek bilatzen zuen egia askoz gertuago dago gizakiarengandik. Gogoeten bidez, definizioak bilatzen zituen: zer den zintzo izatea, eta zer, lotsagarri; zer den bidezkoa, eta zer, bidegabea; zer zentzuduna, zer zentzugabea; zer adorea, zer koldarkeria; zer ederra eta zer itsusia... Ezinbestekoa baita bertuteak ezagutzea bertutetsu izan ahal izateko.

Nola jakin daiteke, baina, zer den edertasuna, edo justizia, edota zentzutasuna, edo adorea, edo zintzotasuna?


Horretara iristeko erabili zuen metodoa taldeko eztabaidan oinarrituta dago, eta bi fase ditu: ironia eta maieutika.

Ironia solaskideari bere ezjakintasunaz oharraraztean datza, horretarako galdera egokiak eginez. Sokrates benetan trebea zen ironiaren aplikazioan: bere burua jakintsutzat zuena konturatzen zen ezer ere ez zekiela, Sokratesen galderen eraso zorrotza jasan ondoren. Galdera horien bidez, kontraesanetan erorrazten zuen aurkaria; edota ezin erantzun uzten zuen; edo galdera berari nahi hainbat erantzun emanarazten zion, azkenean ezer zehatzik esaten ez zuela; eta abar.

Maieutika, etimologikoki, emaginaren lana da, hau da, erditzen, mundura umeak ekartzen laguntzea. Sokratesen ama emagina zen, eta Sokratesek berak maiz esaten zuen bere lana ere erditzen laguntzea zela; baina umez erditzen lagundu ordez, egiaz erditzen laguntzen zuen. Solaskidea ustezko jakinduriatz hustu ondoren ironiaren bidez, bere barnean zituen erantzun egokiak bilatzen eta ateratzen laguntzen zion maieutika erabiliz; horretarako, galderak egiten eta erantzunak jasotzen jarraitzen zuen. Horrela, bada, egia norberaren barruan dagoela uste zuen; aurkitu baino ez dela egin behar eta, aurkitzeko, bilatu egin behar dela. Hori lortzeko bide egokiena eztabaida da. Metodo hori, bestalde, ezin da aurrera eraman idatziz, galdera berriak azken erantzunean oinarrituak baitira. Horretarako egokiena ahozko eztabaida da, eta horixe da Sokratesek egin zuena, eta horregatik ez zuen ezer idatzi³.

Sokratesen eztabaidak «zer da...?» galderarekin hasten ziren beti. Definizioak bilatzen zituen, beraz. Definizio horrek du, haren ustez, definitu nahi duen kontzeptuaren *esentzia*. Esentzia kontzeptu horren barruan sartzen diren objektu guztiek komunean duten oinarria da, bigarren mailako gainerako ezaugarri guztiak alde batera utzita.

³ Platonek idatzitako obra gehienak Sokratesek izandako dialogo horietako batzuk baino ez dira, gehienetan solaskide sofistaren bat duela. Egia esan, zalantzan jar daiteke Platonek ematen duen Sokratesen irudia erreala den ala maisua-
ren irudia idealizatu egin zuen.



Esate baterako, «zer da justizia?» galderaren erantzuna bilatzean, *justiziaren* definizioa bilatzen du, eta horretan dago, hain zuzen ere, *justiziaren* esentzia; hau da, *justuak* diren ekintza guztiek komunean dutena.

Definizioak bilatzeko erabiltzen zuen metodoa induktiboa da: kasu partikularretatik abiatuta, definizio orokorrera iritsi nahi du. Aipatutako adibidean, esaterako, Sokratesi eta solaskideari justuak iruditzen zitzaizkien zenbait ekintza erreparasatu zituzten, komunean dutena —*justizia*, hain zuzen ere— aurkitzen saiatuz. Galdera-erantzunezko labirinto baten antzeko bidea agertzen da.

Bestalde, bilatzen zuen bertutea oso gutxitan definitzen zuen argi Sokratesek. Dialogoen bukaera gehienetan, onartu egiten omen zuen elkarrizketa hura gaiari buruzko inguratze bat baino ez zela izan, eta askoz gehiago landu eta eztabaidatu beharko zela oraindik. Baina jakinduria lortzeko bide bakarra eztabaida edo dialogoa zela zioen. Eta bilatzen zuen jakinduria hori ez zen teorikoa, praktikoa baizik; *bertutea* zer den ezagutzearen helburua ez zen jakinduria hutsa, haren aplikazioa baizik; bertutea zer den ezagutzuz bakarrik irits daiteke bertutetsu izatera, bai norbere buruarekin, eta baita hiria osatzen zuten besteekin ere. Horrez gain, *justiziaz* edota *ongiaz* bakoitzak gauza desberdina ulertzen bazuen, nola erabaki asanbladan lege bat justua den ala ez? Horregatik, elkar ulertzeak alde aurretik hitzen esanahia zehaztea eskatzen duela zioen Sokratesek.

Bestalde, Sokratesek uste zuen gizakiaren joera zoriontasuna lortzea dela, baina zoriona non eta nola bilatu da arazoa. Haren ustez, gizaki guztiek beti onena bilatzen dute ekintza guztietan; eta inork ez du gaizki jokatzeko gaizki ari dela jakinik. Jokaera txarrak ezjakintasunaren ondorioa baino ez direla zioen; hau da, *jakinduria bat dator bertutearekin*. Moral horri **intelektualista** deitzen zaio.

Orain arte aipatutako ezaugarri horietako batzuk ikusteko, hona hemen Platonek idatzitako *Menon*⁴ obraren pasarte txiki bat:

- *Eta zer? Ez al zenioen gizonaren bertutea hiria ondo kudeatzea dela, eta emakumearena, berriz, etxea?*
- *Bai.*

⁴ *Obra honetan bertutetsu izaten erakuts daitekeen ala ez aztertzen da. Horretarako, «zer da bertutea?» galderari erantzun behar diote. Horretan dihardute aukeraturiko zati honetan.*

- *Eta kudea al daiteke hiria, etxea edo beste edozer gauza, modu zentzuzko eta bidezkoan kudeatuz ez bada?*
- *Ez, noski.*
- *Eta modu bidezko eta zentzuzkoan kudeatzen baldin badute, ez al dute zentzutasunez eta justiziaz kudeatuko?*
- *Nahitaez.*
- *Orduan, bai emakumeak eta baita gizonak ere, onak izango badira, biek gauza berberak beharko dituzte, justizia eta zentzutasuna.*
- *Hala dirudi.*
- *Eta umea eta zaharra zer? Akaso indiziplinatu eta bidegabeak izanda ere, bihurtuko al lirateke inoiz onak?*
- *Ez horixe.*
- *Baina zentzuzko eta bidezkoak izanda?*
- *Bai.*
- *Orduan, gizaki guztiak era berean dira onak; gauza berberak edukiz bihurtzen baitira onak.*
- *Badirudi.*
- *Eta, noski, ez lirateke era berean onak izango, bertute bera ez balute.*

Sokrates K.a. 399. urtean hil zen, astaperrexila izeneko landare baten zuku pozoitsua edan ondoren. Horixe izan zen Atenaseko tribunal batek ezarri zion kondena, pozoituta hiltzea, eta ez zuen lagunek prestatu zioten ihesaldia onartu nahi izan. Sokratesek legea errespetatu egin behar zela pentsatzen zuen, eta, bizitza osoan hori defendatu zuenez, legea errespetatu zuen. Bestalde, heriotzarekin mundu materialetik libratuko zela uste zuen, arimaren hilezkortasunean sinesten baitzuen.

Bi izan ziren tribunalaren akusazioak: erlijio gabetasuna eta gazteen perbertsioa. Askotan aipatu da aitzakiak baino ez zirela izan, eta benetako arrazoiak beste batzuk izan zirela; besteak beste, demokraziarekin oso kritikoa izatea eta erori berria zen *Hogeita hamar Tiranoen* gobernu odoltsuaren zenbait partaideren irakasle izatea.

1.4. PLATON (K.A. 427- 347)

1.4.1. BIOGRAFIA ETA GARAIA

Atenaseko familia aberats eta aristokratiko batean jaio zen, Perikles⁵ hil baino bi urte geroago. Une horretan, Atenas Espartaren kontrako gerran murgilduta zegoen, eta, Periklesekin urrezko garaia bizi izan bazuen ere, beherakada sakonean erortzen ari zen. Platonen familia, familia aristokratiko gehienak bezala, demokraziaren kontra eta Espartaren alde agertu zen.

K.a. 407an, hogeita urte zituela, **Sokrates** ezagutu zuen. Filosofo hark Platonengan sortutako lilura egundokoa izan zen, eta estu lotu zitzaion.

Garai horretan, K.a. 404. urtearen inguruan, Espartak demokrazia kendu eta *Hogeita hamar Tiranoen* gobernuaren ezarri zuen polisean. Gobernu horren partaideen artean Platonen gertuko familiartekorik ere bazen. Platon, familiakoak eta Sokrates bezala, ez zen demokrazia zalea, eta egoera berriaren aurrean baikor agertu zen.

⁵ Perikles (K.a. 495-429): demokrazia garaiko agintaria.

Dena den, pozak ez zion asko iraun. *Hogeita hamar Tiranoen* gobernuaren metodoak eta ekintza beldurgarriek laster aldendu zuten Platon haiengandik.

Gobernu horrek hiru urte baino ez zuen iraun agintean, atenastarrek egotzi baitzuten, hainbeste bidegabekeriaz eta ustelkeriaz nazkatuta, demokraziara itzultzeko asmoz. Ez zen demokrazia sendoa izan, hala ere; mendekatzeko gogoia eta ahulezia erakutsi zuen; aipatzekoa da orduan ezarri zitzaizola Sokratesi heriotza-zigorra, K.a. 399. urtean. Platonek ez zuen inoiz ontzat eman tribunalaren sententzia, eta Atenaseko pertsonarik baliotsuenaren kontrako krimena zela adierazi izan zuen beti. Platon zortzi urtez izan zen Sokratesen ikasle, eta maisua miretsi egiten zuen. Horregatik, izugarritzko atsekabea sentitu zuen, hura hil zenean.

Aurreko esperientzia txarren ondorioz, politika aktiboa alde batera utzi, eta filosofiara dedikatzeke erabakia hartu zuen Platonek. Baina politikaz kezkatzeari ez zion utzi. Alderantziz, politika haren lanaren erdigunean kokatzen da, filosofiaren bidez lortu beharreko jakinduria polisa era egokienean gobernatu ahal izateko tresna zela pentsatzen baitzuen. Jakinduria, beraz, politikaren zerbitzura jarri zuen.

Sirakusan (Sizilia) bere ideia politikoak martxan jartzeko ahaleginak egin zituen, Dionisio Zaharraren gortean, kontseilari-lanetan. Ez zuen arrakastarik lortu, eta Atenasera itzuli zen. Han, goi-mailako ikasketak egiteko eskola sortu zuen: *Akademia* (Akademo heroiari sagaratuak lurretan). Era guztietako gaiak ikasten ziren, betiere filosofiari garrantzia berezia emanaz, etorkizuneko gobernariak prestatzeko asmoz. Aristoteles izan zen Akademiako ikasle aipagarriena. Bederatzi mende iraun zuen Akademiaren jarduerak, Justiniano enperadore erromatarrek 529. urtean itxiarazi zuen arte.

Oraindik beste bi bidaia egin zituen Siziliara. Agintean zegoen tiranoa —Dionisio Zaharraren semea, Dionisio Gaztea— filosofo bihurtzea eta haren ideia politikoak praktikan jartzea izan zen bidaia horien helburua. Aurrenekoak bezala, saio haiek ere ez zuten arrakastarik izan, herritarrek ez baitzuten agintzen zitzaizen bizimodu-aldaketa onartu; eta agintariaren kontra altxatu ziren. Atenasera itzuli zen, eta han bizi izan zen K.a. 347an hil zen arte.

1.4.2. PLATONEN LANAK

Platonen obraren garrantzia Aristotelesenarekin bakarrik pareka daiteke, garai klasikoari dagokionez. Horren arrazoia, pentsamenduaz eta uneko eraginaz gain, gaurdaino iritsi den lan kopuruan datza. Platonen kasuan, haren lan osoa gorde zen Akademiaren, eta oso-osorik kontserbatu da. Ikerketa sakonei esker, obren ordena kronologikoa —ia denek erabat onartua— aurkitu ahal izan da.

Platonen obraren garrantzia ez da filosofikoa soilik, oso balio literario handia baitu. Ia lan guztiak (bi izan ezik) dialogo moduan idatzi zituen. Guztietako protagonista nagusia Sokrates da, beste solaskide batekin edo batzuekin hizketan. Sokratesen protagonismoa, dena den, ez da maila berean mantentzen dialogo guztietan. Izan ere, lehen obretako protagonismoa guztiz berea bada ere, denborarekin gutxituz joan zen, azken obretan ia desagertu arte (*Legeak* obran ez da agertzen). Eta beste hainbeste gertatzen da haren pentsamendurekin. Hasierako dialogoetan azaltzen den filosofia Sokratesena da; ezer gutxi jartzen du Platonek bere aldetik, forma literarioa izan ezik. Aurrerago, Platonen ekarpena gero eta handiagoa da, eta txikiagoa, Sokratesena. Platonen pentsamenduak jasandako eboluzioa ikusten da dialogoetan. Sortzen zitzaizkion kezkei eta zalantzei aurre egiten zien, ezkutatu beharrean. Horregatik, maiz gelditzen zen inolako irtenbiderik gabe, baina jarrera hori zintzoago iruditzen zitzaion itxura zehatz eta sendoko ondoriotara iristea baino.

Platonen lanak		
GARAIA	LANAK	EZAUGARRIAK
1. Gaztetako dialogoak (396-388)	<ul style="list-style-type: none"> — <i>Laques</i> (Baloreaz) — <i>Eutrifon</i> (Pietateaz) — <i>Kriton</i> (Zibismoaz) — <i>Sokratesen apologia</i> (Sokratesen defentsa) — <i>Protagoras</i> (Bertuteaz) 	<ul style="list-style-type: none"> — Sokratesen filosofia oraindik aldaketarik gabe — Bertuteen definizioen bilaketa eztabaidaren bidez (metodo sokratikoa)
2. Aldaketa-garaiko dialogoak (388-378)	<ul style="list-style-type: none"> — <i>Hipias Handia</i> (Edertasunaz) — <i>Eutidemo</i> (Sofistez) — <i>Gorgias</i> (Justiziaz) — <i>Kratilo</i> (Hizkuntzaz) — <i>Oturuntza</i> (Maitasunaz) 	<ul style="list-style-type: none"> — Platonen pentsamendu propioaren garapenaren hasiera (Oraindik Sokrates da protagonista nagusia, baina garrantzia galduz doa) — Arazo politikoak nagusi — Pitagorismoaren eragina nabarmena (arimaren hilezkortasuna) — Ideien teoriaren lehen lerroak
3. Heldutasuneko dialogoak (378-360)	<ul style="list-style-type: none"> — <i>Fedon</i> (Arimaz) — <i>Errepublika</i> (Polisaren antolakuntzaz) — <i>Fedro</i> (Maitasunaz eta edertasunaz) — <i>Parmenides</i> (Ideien teoriaren autokritika) — <i>Teeteto</i> (Ezagutzaz) 	<ul style="list-style-type: none"> — Dialogo nagusiak — Ideien teoria zehaztuta — Aurreko gaien azterketa sakonagoa — Dialogorik luzeena: <i>Errepublika</i> (Politeia). Polis perfektuaren diseinua. Horrez gain, garrantzitsutzat dituen gai guztiak tratatzen ditu.
4. Zahartzaroko dialogoak (360-347)	<ul style="list-style-type: none"> — <i>Sofista</i> (Izateaz) — <i>Filebo</i> (Plazeraz) — <i>Timeo</i> (Kosmologiaz) — <i>Kritias</i> (Atenasen historiaz) — <i>Legeak</i> (Polis idealaz) 	<ul style="list-style-type: none"> — Arazo metafisikoak baztertzea — Kosmologiarekiko interesa; pitagorikoen eraginez — Historiarekiko interesa — Politikoki kontserbadoreagoa bihurtuz doa. — Nekea eta pesimismoa nabaritzen zaizkio.

1.4.3. PLATONEN PENTSAMENDUA

1.4.3.1. Ideien teoria

Platonek, filosofatzen hasi bezain laster, Parmenidesengandik datorren gai batekin topo egin zuen: *izatearen* eta *ez-izatearen* arazoarekin. Nola uztar daitezke adimenak eta zentzumenek sumatzen dituzten aurkako bi errealitate horiek?

- Batetik, adimenak aurkitzen duena, *izatea*: bat, aldaezina, betierekoa, perfektua.
- Bestetik, zentzumenek jasotzen dutena: askotarikoa, aldakorra, hilkorra, akastuna.

Arazo horri irtenbidea emateko, Platon baino lehen, zenbait saiakera izan zen. Atomisten doktrinak, esaterako, helburu horri zuzentzen zitzaizkion, baina ez zuten lortu. Platonek jauzi kualitatiboa eman zuen izatearen arazoa aztertzean.

Baina adibide bat erabil daiteke arazo hori zenbatekoa den ikusteko: orri zuri baten *izatea* aztertzean, honako hau nabari da:

	Ez dela erabat
	Ez dela guztiz
	Ez dela betidanik; ezta beti
Beraz:	Zuria da, eta ez da zuria.
	Laukia da, eta ez da laukia.
	Bada, eta ez da.

Gauzen izatearen eza (perfekzio-eza) begi-bistakoa da. Baina horretaz ohartu ahal izateko, *izatea* ezagutu behar da nolabait; perfektua den zerbaitekin alderatu behar da orri zuria, beraren perfekzio-ezaz ohartzeko. Horrela, bada, aurreko adibideko orriaren zurtasuna, laukitasuna, betierekotasuna, eta abar uka baditzaiket, arrazoi bakar bati esker da: *zurtasuna*, *laukitasuna* eta *betierekotasuna* zer diren ezagutzen delako.

Baina, nondik ateratzen da errealitate perfektu horien ezagutza? Garbi dago ez dela zentzumenen bidez lortutako zerbaite. Zentzumenen bidez ikusi, usaindu, ukitu, dastatu eta entzuten direnak gauzak dira, eta ez dago, gauzen artean, zurtasuna edota betierekotasuna izenekorik. Horrelako errealitateak ez dira *gauza sentikorrak*. Platonek **ideia** deitu zien. Izen hori grekoko *eidos* hitzetik dator; euskaraz, forma edo egitura esan nahi du.

Idea edo formen ezagutza ezinbestekoa da, gauzen perfekzio-ezaz ohartzeko ez ezik, edozer gauza identifikatzeko. Inoiz ikusi ez den zakur bat zakurra dela eta mahai bat zakurra ez dela jakin daiteke, aldezturatik *zakurra izatea* zer den —zakurraren ideia— ezagutzen delako. **Ideiak** dira gauzak identifikatzeko erabiltzen diren ereduak, biak alderatuz. Gauza bat ideiekin alderatu eta, adibidez, zakurraren ideiarekin bat datorrela ikusten denean, zakur bat dela jakiten da. Zakurren **esentzia** (zakur bakoitza zakur izanarazten duena) zakurraren ideia da.

Baina, horrez gain, objektuak taldekatu ere egin daitezke ideiei esker. Adibide berarekin jarraitzeko, zakur guztiak *zakur* kontzeptuaren barruan jar daitezke, *zakur* ideiarekin existentziari esker. Horrela ez balitz, ezinezkoa litzateke objektu desberdinen artean inolako bereizketa egitea.

Beraz, filosofiaren sorreraz geroztik, filosofoek bilatzen zuten *izatea* —*ez-izate*tik bereizi beharrekoa— ideietan aurkitu zuen Platonek. Eta **ideia** horiek, gauzak ez diren arren, nolabaiteko errealitateak direla nabaria eta ukaezina iruditzen zitzaion Platoni: berez eta egiaz dira izatedunak.

Pitagorikoen antzera, Platon errealitatearen azalpen dualistan oinarritu zen: *ideiak/gauzak*. Hori da Platonen bi maila *ontologikoak* (existentzia- edo errealitate-maila) bereiztearen oinarria: ideiak eta gauzak bereizita daude; ez daude maila berean, bakoitza mundu diferente batean baizik: **ideien mundua** eta **gauzen mundua**.

— **Ideia** bakoitzaren berezitasunak Parmenidesek *izateari* emandakoak dira:

bat
betierekoa
aldaezina
perfektua

— **Gauzek**, berriz, Heraklitok egozten zizkien berezitasunak dituzte:

askotarikoa
hilkorrak
aldakorrak
mugatuak

horren bidez, filosofiaren arazo handienetako bati —mugimendua eta gelditasuna; aldaketa eta iraunkortasuna— irtenbidea aurkitu zion. Parmenidesen eta Heraklitoren pentsamenduak bateragarri bihurtu zituen: irauten duena ideia da; aldatzen dena, gauza.

Horrez gain, mundu horietako bakoitzeko objektuak ezagutzeko behar diren gaitasunak gizakiak badituela esan zuen; baina gaitasunak desberdinak dira mundu bakoitzarentzat. Horrela, bada, gauzak zentzumenen bidez ezagutzen dira, baina ez da berdina gertatzen ideiekin. Azken horiek ez dira gorpuzdunak, eta zentzumenek ezin digute inola ere haien berririk eman. Adimena da gizakiak ideiak ezagutzeko erabili behar duen tresna. Horregatik, egiten duen bereizketan, gauzen munduari **mundu sentigarri** (zentzumenen bidez ezagut daitekeena) eta ideien munduari **mundu adigarri** (adimenaren bidez ezagut daitekeena) ere deitu zien Platonek.

Bi mundu horien errealitate-maila ez da berdina, Platonen ustez. Bietatik benetan errealak mundu adigarria da; besteak, errealak ez dela esan ez badaiteke ere, askoz maila apalagoa du, han dauden *gauzak ideien* kopia inperfektuak baino ez baitira. Ideiak ezagutzen direnean, *egia* ezagutzen da; gauzak ezagutzea, berriz, itxura hutsean gelditzea izango litzateke.

1.4.3.2. Ideien teoriaren eboluzioa

Ideien teoriak, hala ere, ez zuen aldaketarik gabe iraun Platonen pentsamendu osoan zehar; izan ere, lehenengo dialogoetan eta azkenekoetan oso era desberdinetan azaltzen du teoria hori.

Hasierako dialogoen oinarria bertuteen definizioak bilatzea da, Sokratesen metodoari eta pentsaerari jarraituz. Adorea zer den galdetzean, adibidez, sofista batek *adore* hitzak

esanahi zehatzik ez duela esango luke, eta, beraz, ez duela definizio unibertsalik. Sokrates bezala, Platon ere ez dago horrekin ados: adoretu diren ekintza guztiek zer edo zer eduki behar dute komunean, denak adoretu direla esaten badugu. Komunean duten hori da, hain zuzen ere, *adorea*. Sokratesek mantentzen zuen iritzia —bertuteen izaera objektiboa, alegia— areagotu zuen Platon gazteak, objektibotasun horri *ideia* deituz.

Erdiko dialogoetan, ideien teoria garatuago agertzen da. Lan horietan, ideiak *substantziatzat* hartuko ditu; hau da, gauzetatik aparteko existentzia duten izateak dira, eta ideien mundua osatzen dute.

Beraz, erdiko dialogoetan zehaztu zituen Platonek bi munduak edo bi maila ontologikoak: ideien mundua eta gauzen mundua.

Dialogo horietan, bestalde, pitagorismoaren eragina ere nabari da. Arimari dagokio ideien eta gauzen arteko bitartekotasuna, hilezkorra baita. Arimak jaiotzaz ezagutzen ditu ideiak, neurri batean edo bestean, eta gauzak ikusten dituenen, lehendik ezagutzen zituen ideiak gogora etortzen zaizkio gizakiari. Horrela azaltzen du Platonek gizakiaren ezagutza-gaitasuna. Eta pitagorismoaren eragina beste zerbaitetan ere nabari da: ideia matematikoak ideien munduan jartzen ditu, baina gauzetatik gertuago ideietatik baino.

Esan bezala, erdiko dialogoetan sakon eta zabal garatzen du ideien teoria. *Errepublika* garai honetako lana da —nagusia, zalantzarik gabe—, eta, VII. atalean azaltzen den haitzuloaren alegorian, ideien teoriaren azalpenik argiena eta ederrena ematen da.

Azken dialogoetan, dialogo kritiko deitutakoetan bereziki (*Parmenides*, *Sofista*...), ideien teorian aurkitzen dituen zenbait hutsune edo akats argitzen eta moldatzen saiatuko da Platon. Arazo horietako bat hau da: zein eratako harremana dago gauzen eta ideien artean? Hau da, ideiak gauzetan ez badaude, zer dago gauzetan ideia zehatz batekin alderatu ahal izateko? Beste arazo bat: ideia guztiak maila berean daude ala ez? Zer harreman dago, adibidez, *haritza* eta *zuhaitza* ideien artean? Ala ez dago halako gauza arrunten ideiarik, eta ideia moralak, estetikokoak eta matematikoak bakarrik daude?

Ideien teorian agertzen diren ideia matematikoen gaia oso eztabaidatua da. Nola interpreta-tu behar da zenbakiak ideiak direla? Zergatik jarraitzaile gehienek pitagorismo aldera jo zuten, eta ideia matematikoen azterketari bakarrik ekin zioten, eta beste ideiak baztertu? Platonek berak ideien teoria arbuiatu al zuen azken dialogoetan? Argi dago azken dialogoetan ideien teoria ez dela aipatu ere egiten. Eta, bestalde, inon ez du erabat argi eta sistematikoki tratatzen. Erdiko dialogoetan ere, ez dio gaiari zuzenean inoiz heltzen, maiz azaltzen badu ere. Horrez gain, mito asko erabiltzen du, eta baita azalpen eta terminologia ugari kontzeptu berak azaltzeko ere. Alde ilun asko, lotu gabeko hariak eta interpretazio askotariko aukerak gelditzen dira, ondorioz, teoria horren oinarrian.

1.4.3.3. Mundu sentikorraren sorrera: Demiurgoa

Nola azaldu zuen Platonek bere ideien teorian agertzen den bi munduen existentzia? Noiz eta nola sortu dira bi mundu horiek? Batera sortu al dira? Edo bata bestea baino lehenago, eta, orduan, zein lehenago?

Gogoratu behar da ideien ezaugarri bat *betierekotasuna* dela. Ideiak, beraz, ez ditu *inoiz inork* sortu. Betidanik eta betiko daude hor, beren mundu perfektu eta aldaezin horretan.

Mundu sentikorreko gauzak, berriz, ez dira betierekoak: sorrera dute, eta baita amaiera edo suntsipena ere. Gauzen sorrera azaltzeko mito bat erabili zuen. Platonek zioenez, ideien munduan bizi den erdi jainko batek, **Demiurgoak** (artisaia, grekoz), ideiak eredutzat hartuz sortu zituen gauzak: zuhaitzaren ideian oinarrituz, zuhaitzak sortu zituen; mendiaren ideian, mendiak; zakurraren ideian, zakurrak... Lan horretan, betidanik existitzen zen materia, zeharo desordenatuta erabili zuen, egin zitekeen mundurik ederren eta hobereana egiteko. Dena den, mundu horrek ez du ideien munduak duen perfektzioa. Demiurgoak ez zuen mundu perfektua sortu; kopia bakoitza, gauza bakoitza, inperfektua da. Horregatik, **egiazko bakarra ideia bera da**; gauzak, berriz, ideia horien antza duten kopia kaskarrak besterik ez dira.

Baina, zer dute komunean espezie bereko gauza guztiek, espezie horretakoak direla esateko?

Platonek **partaidetzaren** (*methexis*) edo **imitazioaren** (*mimesia*) kontzeptuak erabili zituen. Horrela, zakur konkretu guztiak zakurraren ideiarekin partaide direla esango zuen; edota zakurraren ideia imitatzen dutela. Beste batzuetan, berriz, gauzek ideien **presentzia** dutela adierazten zuen.

Baina azalpen horrekin ez zuen gauza handirik konpontzen: ideiak gauzetatik bereizita badaude, zer esan nahi du **presentzia** edo **partaidetza** esaten duenean? Arazo hori ez zuen inoiz egoki konpondu.

1.4.3.4. Platonen epistemologia⁶. Ideien ezagutza, benetako jakinduria

Platonek zioen benetako jakinduria ideiak ezagutzea dela, ez gauzak ezagutzea. Baieztapen horrek beste arazo bat sortzen du. Ideiak gauzetan ez badaude, zer bide edota gaitasun erabili behar du gizakiak ideiak ezagutzeko? Zentzumenak ez, garbi dago, horien bidez gauzak bakarrik ezagutzea baitaitezke. Platonek erantzun desberdinak eman zizkion galdera horri bere eboluzioan zehar.

1.4.3.5. Amnesia (ahaztea)/Anamnesia (erreminiszentzia/oroitzea)

Fedro dialogoan, mito baten bidez azaltzen du Platonek *ezagutzaren teoria*. Sokratesek Fedrori kontatzen dion mitoaren arabera, arima gorputzetik aske dagoenean, bi zaldi hegodunek tiratutako gurdi hegodun batez irudika daiteke. Zaldi horietako bat ona eta apala da; eta zaila eta bihurria, bestea. Gurdia gidari batek zuzentzen du (arrazoimena), eta zeruaren gaineko lurraldeetan dabil, ahal duen hobekien gidatzeko ahaleginak egiten; hau da, ideien munduan dabil. Horrela bada, arrazoimenak (gidariak) ideiak ikus ditzake.

Baina ideiak ikuste hori ez zaio batere erraza gertatzen. Zaldi bihurriak beherantz indar egiten du, eta gidariari kosta egiten zaio gurdia menderatzea eta zuzentzea. Ondorioz, ideiak nekez ikus ditzake.

Azkenean, zaldi bihurriaren ahaleginek behera, lurrera erorarazten dute gurdia (arima). Erortze horretan, gurdiak (arimak) hegoak galtzen ditu, eta gorputz batekin bat egiten du. Zeru gaineko bidaian ideiarik ikusten ez badu, abere baten gorputzean haragitu da arima. Baina arimak ideiak ezagutu baldin baditu, neurri batean ala bestean, orduan gizaki baten gorputzean haragitu da. Gizaki mota desberdina izango da bizitza berrian, ezagutu dituen ideien arabera. Bederatzi giza mota bereiziko ditu Platonek mito horretan: gorena, filosofoa; baxuena, tiranoa.

⁶ *Epistemologia: ezagutzaren teoria. Gizakiak nola ezagutzen duen azaltzen saiatzen den teoria.*

Haragitzeko prozesu horretan, *amnesia* datorkio arimari, eta gorputzetik bereizita zegoela ezagututako guztia erabat ahaztu egiten du. Baina, haragitu ondoren, gauzak ikusteak, entzuteak, usaintzeak eta abarrek ideia haien oroimena ekartzen diote arimari: *anamnesia*. Horrela, adibidez, zakur bat ikustean, zakurraren ideia datorkio gogora, eta zakur gisa identifikatzen du. Hortaz, **ezagutzea oroitzea baino ez da**. Eta, horrez gain, **ezagutza geure barruan daramagu, jatorriz**.

Horiek —jatorrizko ideiak— ditugula izango da *arrazionalismoaren* oinarria eta zutabe nagusia. Kontzepzio horren ondorioa garrantzi handikoa da: ezagutza lortu ahal izateko, giza-kiak nahikoa du bere barruan bilatzea, mundu materialari buruzko eta norberari buruzko informazioa ematen diguten zentzumenei jaramonik egin gabe.

Baina horrek ez du esan nahi, inola ere, ezagutzaren zain, era pasiboan, egon behar denik. Ez Platonek, ezta inongo arrazionalistak ere, ez luke hori onartuko. Jakinduria norberaren barruan edukitzeak ez du esan nahi bilatu behar ez denik. Alderantziz, metodo egokia aurkitu behar da, norberaren barruan antolatu beharreko bilatze hori era eta ordena egokiz antolatze-ko. Behin metodo hori lortu ondoren, aplikatzen hasi beharko da, eta norbere barruan aurkikuntzak egin. Gero, aurkikuntza berrietan oinarrituz, beste batzuk bilatuz eta aurkituz joango da, eta horrela, behin eta berriz, kate bat sortuko da.

1.4.3.6. Dialektika: ezagutzarako bidea

Platonek, Sokratesen eraginez, dialektikan aurkitu zuen metodoa. Dialektikaren bidez, norberaren barruko ezagutzak aurrera egingo du, ideiaz ideia, sinpleenetatik gorenetera, *ongiaren* ideia, denetan handiena, ezagutu arte.

Baina, zer esan nahi du Platonek *dialektika* esatean?

Hasiera batean, Sokratesentzat bezala, gizabanako desberdinen arteko dialogoa edo eztabaida baino ez bazen ere, gero, nork bere buruarekin izan dezakeen dialogoari ere deitu zion dialektika; alegia, nork bere buruari egin diezazkiokeen galderak, eta galdera horiei norberak erantzunak bilatu, eta, horrela, ideien arteko ordena eta era guztietako erlazioak aurkitzea. Lan neketsua eta luzea da, baina jakinduria ziur lortzeko era bakarra. Haitzuloaren alegorian atxilotuen tokitik kanporaino daraman bideak adierazten du dialektika (gora, kanpora iritsi ondoren, oraindik bukatzen ez dena): aldapa gorako bidea da, neketsua, astuna eta arazoz betea, baina ibili beharrekoa. Saria jakinduria da.

Baina aldapa gorako zentzua emateak, bidearen gogortasunaz gain, badu bigarren esanahia ere. Platonek matematikaren bidea beherantz doan bidea dela dio; dialektikarena, berriz, gorantz doa. Matematikaren metodoak horrela funtzionatzen du: lehendabizi, hipotesi bat ezartzen du —hau da, alde zurretik lan egin ahal izateko, behar duen oinarri bat zehazten du—, baina frogatu gabea da; gero, hipotesi horretatik ezinbestez eratortzen diren beste ideia batzuk bilatuz joango da. Beraz, *goitik* hasi eta *beherantz* doan bidea dela esan liteke.

Dialektikaren noranzkoa alderantzizkoa da. Aldez aurretik ezagututako ideiaz baliatzen da soilik, haiek hurrengoetara pasatzeko oinarri gisa erabiliz. Igotzen doan bidea da. Beraz, ideiak eskailera baten maila progresibotzat hartuz, gorantz egin; ideietatik hasi eta goreneraino iritsi arte: *ongiraino*.

Baina dialektikak badu beherantz doan beste fase bat ere. Behin *ongiaren* ideia ezagutu ondoren, beherantz joango da, ideia guztien arteko lotura guztiak ondo zehaztuz; eta, era horretan, ideien munduari buruzko erabateko jakinduria lortzen da.

Platonen jarraitzaileek bi bide hartu zituzten: Akademiak pitagorismo aldera jo zuen, eta matematika garatu zuen; Aristotelesek, aldiz, dialektikaren ildoari heldu zion, akademiaren joerarekin ados ez baitzegoen, eta *logika* garatu zuen. Platonen dialektikaren kontzepzioak, azken finean, metodo logikoa gogorarazten du: egia batetik edo batzuetatik abiatuta, beste egia batzuk ezagutzera iritsi.

Baina kontzeptu bera al dira **egia** eta **ideia**? Platonek, *egia* baino, **ideia** esaten du. Erantzuna baiezkoa da: **egia ideia da**, hartaz bakarrik predika baitaiteke bere buruarekiko berdintasuna. Beste era batera esanda: ideiak bakarrik dira beren buruaren berdinak, ez baitira etengabe aldatzen; aitzitik, bere horretan irauten dute. Gauzez ez daiteke horrelakorik esan; etengabe aldatzen ari dira. Dialektikaren planteamendu horren arabera, ideien mundua hierarkizatuta dago, eta piramidearen erpinean *ongiaren* ideia dago.


1.4.3.7. Maitasuna: jakinduriara iristeko bide berezia

Dialektikaz gain, bada jakintsu bilakatzera bultzatzen duen beste bide bat: maitasuna. Erosek, *maitasunak*, filosofiarantz bultzatzen du, hau da, jakitera; izan ere, ezjakintasunaz ohartzean, falta dena lortzeko desioa sortzen da. Eta *maitasunaren* helburua *edertasuna* da: gauza ederretatik abiatuta, *edertasuna* ezagutuko du; eta, horrela, *ongia* da jakintsuaren helburua, *edertasuna* eta *ongia* elkar lotuak baitaude. Eta bilatutako jakinduria zein den argi agertzen da *Oturuntza* dialogoan «(Eros)... beti ederrari eta onari begira dago» esaten baitu Platonek, beti bezala Sokratesen bidez. *Edertasuna* eta *ongia* dira, beraz, *maitasunak* bilatzen dituenak.

Baina maitasuna ez da filosofiara bultzatzen duen indar soila. Ideia nagusietara zuzenean daraman bidea ere bada, dialektikak ez bezala. Dialektikaren bidez, ideiaz ideia aurreratzen da; maitasunaren bidez, berriz, gauzetatik zuzenean pasa daiteke ideia nagusietara, gainerakoetatik pasa behar izan gabe; nolabaiteko *dialektika emozionala* litzateke.

1.4.3.8. Errealitatearen konplexutasuna (ontologia)

Errepublikaren VI. atalean, Platonek lerro baten bidez azaltzen du errealitatearen konplexutasuna⁷. Lerroa bi zatitan banatuta dago: lehen zatiak **mundu sentigarria** adierazten du; bigarrenak, **ideien** edo **formen mundua**. Zati horietariko bakoitza beste bi zatitan banatzen du, proportzio berdina gordez. Gauzen munduari dagokion segmentuaren ezkerreko zatiak gauzen **irudiak** adierazten ditu (eskulturak, erretratuak, itzalak, islak...); eta beste zatiak, berriz, **gauzak** berak. Ideien munduari dagokionez, segmentuaren ezkerreko zatiak **objektu matematikoak** adierazten ditu; eta lehenengoak, **ideiak** berak.




Errealitatearen atal horietako bakoitzari, maila *ontologiko* bakoitzari maila *epistemologiko* bat dagokio, Platonen ustez. Horrela, bada, ideien munduari buruzko ezagutzari *ulermen* deitzen dio

⁷ *Errepublikaren* VII. atalean berriz ere azalduko da errealitatearen mailak segmentuen bidez azaltzeko eredu hau.

Platonek; eta desberdina izango da ideiei buruzkoa bada, *nous* edo *zientzia* (hori da benetako jakinduria), ala objektu matematikoei buruzkoa bada, *adimen-ezagutza*. Era berean, gauzen munduaren ezagutza *doxa* edo *iritzia* da. Gauzei buruzko ezagutzari *sinesmen* deitzen dio; irudiei buruzkoari, *aieru*.

Ulermena, beraz, gizakiak *esentzietara* iristeko tresna edo organoa dugu; edo beste modu batera esanda, ulermenaren objektua esentzia da (ideiak, *sortzen ez dena*). **Iritziak**, ordea, *sor-tutakoa* (gauzen mundua) du objektutzat.



1.4.3.9. Arimaren (Psike) kontzepzio platonikoa

Fedro dialogoan, Platonek —gurdiaren mitoaz gain (oroimenaren teoria)— arimaren kontzepzioa azaltzen du. Pitagorikoen eraginez, arimaren hilezkortasunean sinesten du: gorputza besterik ez da hiltzen. Hori gertatzen denean, gorputza hiltzen denean, arima gorputzetik askatzen da, eta gorputzak berak dakartzan lotura guztietatik: beharrak eta pasioak (gosea, egarria, desio sexuala, oinazea...). Gorputza da arima ideietatik urrun mantentzen duen espetxea. Arimaren helburu nagusia gorputzetik askatzea da. Baina haragitzetik kontuan izanik, arazo bat sor liteke: heriotza bakoitzaren ondoren, arima behin eta berriz, betiko, haragituko balitz, sekula ez litzateke erabat libre izango. Platonek irtenbide bat aurkitu zion: arima gizakiarengan haragitzen denean, lehen aipatutako bederatzi graduak pasako ditu, eta, azkenean, filosofo izatera iritsiko da; orduan, hil ondoren, arima ez da berriz haragituko, eta zoriontsu biziko da betiko ideien munduan.

Hirugarren aspektu bat ere ikus dezakegu *Fedro*ren mitoan: arimak dituen joerak. Gurditik tiratzen duten bi zaldiek eta gidariak arimaren alderdi edo joera desberdinak adierazten dituzte. Izan ere, arimak hiru joera ditu:

- **Irritsezko alderdia.** Gorputzaren behar eta instintuen iturria. Hilkorra da, eta Platonek sabelaldean kokatu zuen. Ideien kontenplazioa galarazten saiatzen den zaldi bihurriak irudikatzen du.
- **Alderdi suminkorra.** Afektuekin eta borondatearekin lotua. Hori ere hilkorra da, eta bularrean dago. Ideien kontenplaziorako bidea mantendu nahi duen zaldi apalak irudikatzen du.

— **Alderdi arrazionala.** Demiurgoak (badenaren sortzailea) sortu zuen, eta mundu idealaren nagusitasunaz jabetzen da. Hilezkorra den joera bakarra da, eta garunean kokatu zuen Platonek. Materialtasun guztietatik urrun egon nahi duen joera da. Ideiei begira egon nahi duen gurdiaren gidariak irudikatzen du.

Arimaren izaera horri egokitzen zaion etika berezia planteatu zuen Platonek. Atal bakoitzari **bertute** edo helburu etiko bat dagokio:

<u>Arimaren joera</u>	<u>Bertute</u>
Arrazionala	Jakinduria
Suminkorra	Adorea
Irritsezkoa	Apaltasuna

Alderdi arrazionalari dagokio nagusitasuna. Horrek irritsezko alderdiaren joerak bere mende hartu behar ditu, alderdi suminkorraren adorea baliatuz. Oreka hori lortzen duen arima benetan harmoniatsua eta **justua** izango da.

Horrela, bada, Platonek jakinduriarekin eta justiziarekin lotzen du jarrera zuzena. Jakinduriak gainerako bertute guztiak ekartzen ditu, eta *ongia* ezagutzeak jokabide zuzena du. Sokratesen moral intelektualistaren isla ikus liteke ikuspegi horretan; inork ez du jakinaren gainean gaizki jokatzeko. Gizakiak *ongia* bilatzen du; beraz, jakiten duenean zer den, ongi jokatuko du.

1.4.3.10. Polisaren egitura: herritarren sailkapena

Arimaren ataletan eta horietako bakoitzaren bertuteetan oinarritu zuen Platonek estatua.

Eredu horri jarraituz, beraz, herritarrak hiru taldetan banatu zituen: **herri xehea, zaindarrak** eta **gubernari-filosofoak**. Pertsona justua izateko baldintza arimaren atalen arteko oreka bada, estatua justua izateko ere ezinbestekoa da giza taldeen arteko oreka. Hortaz, polis perfektua lortzeko, herritar bakoitzak dagokion taldean egon behar du, esparru horretan eskainiko baitio polisari eman diezaiokeen onena. Estatuaren interesa, beraz, gizabanakoen interesen gainetik dago. Platonek *Errepublikan* dio ez dela herritar baten zoriona bilatu behar, guztiona baizik. Horrela lortuko da polisean harmonia eta justizia.

Baina helburu hori lortzeko, era askotako neurriak hartu beharko liriateke. Batetik, giza taldeen artean lana banatzeari ekin beharko litzaioke, eta bakoitzari dagozkion funtzioak eta bizi-baldintzak zehaztu. Bestetik, hezkuntza-sistema osoa antolatu beharko litzateke, gizabanako bakoitza zein taldetara bideratu behar den jakiteko, eta, ondoren, ahalik eta prestakuntza egokiena emateko.

Hauek dira Platonek proposatu zuen ereduko giza talde bakoitzaren ezaugarriak:

— **Herri xehea.** Ikasketetan trebetasun gutxien agertzen dutenek osatuko lukete talde edo klase hori; alegia, mundu sentikorretik harantz joateko gaitasunik ez dutenek. Gimnastika, musika eta lan-teknikak irakatsiko litzaizkieke; eta, ikasketa horiek jaso ondoren, herritar horiek ekoizpen-prozesuetan integratu beharko lukete.

Polisaren agintaritzan ez lukete parte hartzeko eskubiderik izango, baina gobernariarik eta zaintzailerik onenak izango lituzkete; eta horien mantenu ekonomikoa legokieke. Abantaila batzuk ere izango lituzkete: nagusiki, doako hezkuntza eta, familia eta jabego pribatua edukitzeko eskubidea.

- **Zaindariak.** Lehen ikasketetan nabarmendu ondoren, gai predialektikoak —aritmetika, geometria, astronomia eta harmonia— ikasi, eta aurrera jarraitzeko gaitasunik ez dutenen artean aukeratuko lirатеke.

Estatuaren zaintzaren eta egonkortasunaren arduradunak izango lirатеke (gaur egungo armada eta herri-zaintza). Bai gorputza, bai espiritua sasoian eta adoretzu eduki beharko luketenez, gimnastika eta musika lantzen jarraitu beharko lukete. Goi-mailako klase bat izango litzatekeenez, ez lukete jabego pribaturako eskubiderik izan beharko, ezta familia partikularra edukitzekorik ere. Platonek zioenez, elkarrekin bizi beharko lukete, dena denekin partekatuz; izan ere, hori da interes partikularren alde jokatzeko tentazioari uko egiteko era bakarra da.

- **Gobernari-filosofoak.** Ikasketetan azken mailaraino iristeko gaitasuna eta gogoia agertzen dutenak izango lirатеke: «poliseko espiriturik onenak». Dialektikaren bidez, *ongia* eta justizia, eta beste ideia guztiak ere ezagutuko lituzketenez, polisean **justiziaz** eta **edertasunez** gobernatzeko gai izango lirатеke. Horien hautaketa bereziki zaindu beharko litzateke; eta oso prestakuntza sakona, zehatza eta, seguruenik, zaila eta luzea izango lukete. Ondorioz, agintzera iritsiko lirатеkeen pertsonak adinez ere nahiko helduak izango lirатеke.

Horrela aukeratutako eta prestatutako agintarientzat, polisaren agintea betebeharra izango litzateke. Kargu politikoak lortzeko interes pertsonalik ez lukete izango, ideien mundua ezagutu ondoren gauza materialen balio-ezaren jabe izango direlako. Dena den, polisak emandako prestakuntzaz ohartuko lirатеke; eta, ondorioz, justua irudituko litzaieke berak izatea hiriarri gobernu hoberena eskaini behar diotenak.

Zaindarien bezala, filosofoek ere ez lukete familia eta jabego pribatua izateko eskubiderik izango. Horrela, liskarrak eta inbidiak ekiditeaz gain, emakumeei ere gobernari izateko bidea irekiko litzaieke, familiaz eta etxeko lanaz libratuz gero. Platonen ustez ez baitago gizonen eta emakumeen arteko diferentziarik, ahalmenei dagokienez.

Platonek proposatutako giza talde horien ezaugarri nagusietako bat haien irekitasuna da: ez dira talde itxiak, gizarte grekoaren ohitura horrelakoa ez bazen ere. Horrek esan nahi du nekazari baten semea, adibidez, zaindari edota gobernari izan litekeela; zein gaitasun eta ahalmen agertzen dituen ikusi beharko litzateke.

Hala ere, eredu horren arabera, balio handiena duten gizonen eta emakumeen arteko harremanak bultzatzen saiatu behar dute gobernariak, hoberenen arteko gurutzapenetatik seme-alaba egokienak irtengo direlakoan (ezkutuan egiteko gomendioa luzatzen du, polisak elitea eratzen ari dela ez jakiteko, kezkarik ez sortzeko).

Polisaren eta arima perfektuen arteko antzekotasuna zabaltzen jarraitu zuen Platonek. Arimaren atal bakoitzarekin egiten duen moduan, giza talde bakoitzari ere bertute bat egotzi zion. **Gobernari-filosofoei**, arimaren alderdi arrazionalari bezala, **jakinduria** dagokio; **zaindariari**, arimaren alderdi suminkorrari bezala, **adorea**; **herri xeheari**, arimaren alderdi irritsezkoari bezala, **apaltasuna**.

Eta, arima justua atal bakoitza dagokion bertutearen jabe egiten denean lortzen bada —hiru joeren arteko oreka lortzean—, polisean ere gobernariak jakintsuak, zaindariak adoretuak eta herritarrak apalak direnean lortuko da justizia. Harmonia lortzen denean lortuko da justizia.

1.4.3.11. Agintera motak

Ikusi berria dugunez, Platonek duen justiziaren kontzepzioa ez dago gizabanakoaren berdintasunean oinarrituta, bakoitzak polisari eskaini diezaiokeen onena ematean baizik. Sistema hori —governari-lanetan poliseko onenak dituenak, alegia— **aristokrazia** da (*aristos*: onena, aberatsa; *krazia*: gobernu). Dena den, *Errepublikan* dioenez, ez dirutan aberats, jakindurian baizik.

Baina Platon ez da oso baikor agertzen, gai honi dagokionez. Haren ustez, inon horrelako aristokrazia ezarriko balitz ere, mundu sentigarriaren beste edozein errealitatek bezala, degradazioa jasango luke seguruenik. Eta hori zaintzaileen aldetik etorriko litzateke: haien handinahikeriagatik. Balio pertsonala azaldu nahian, agintea hartuko lukete, eta **timokrazia** ezarri. Gobernu mota hori gerrazalea izango da, prestigio eta ohore handiagoa lortzearren; goi-mailakoentzat jabego pribatuaren eskubidea ere onartuko dute. Horrek guztiak ustelkeria bultzatuko du.

Jabego pribatua agintarien artean zabaltzean eta normalizatzean, **oligarkia** (gutxi batzuen agintea) ezarriko da. Aberastea bilakatuko da agintarien helburu nagusia, eta horretara bideratutako lege berriak sortuko dituzte; eta baita aurrekoak aldatu ere. Aldi berean, herri xehea gero eta pobregoa bihurtuz joango da.

Baina egoera horrek ez luke betiko iraungo. Oligarkia degradatuz joango da, eta diferentzia sozialak areagotu, herri xeheak gehiago jasan ez dezakeen unea iritsi arte. Orduan, oligarken kontra irauliko da, eta agintea bereganatuko du. Orduan, **demokrazia** ezarriko da, eta aurreko agintarien aurka mendeku hartuko du. Demokraziarekin denen askatasuna eta berdintasuna zabalduko dira. Desberdinak diren gizabanakoak berdina balira bezala tratatuko dira, eta legeen betekizuna alde batera geldituz joango da. Balio ez duenak balio duenaren eskubide berdina exijituko ditu, eta gobernarien eta gobernatuen arteko bereizketa ezabatu egingo da.

Aurreko joera ere areagotuz joango da. Herritarren artean besteak manipulatzeko trebetasun handiena dutenak agertzen hasiko dira, eta goraiatu egingo dituzte; horrela, gero eta aginte-maila handiagoa lortuz joango dira. Orduan, lider horien arteko lehia hasiko da, besteak kanporatzeko. Azkenik, konpetentzia basati horretatik, garaile bat irtengo litzateke, eta horrek **tirania** ezarriko luke. Bide maltzurretatik iritsitakoa izanik, bide maltzurak erabiltzen jarraituko luke bere helburu nagusia lortzearren: agintean iraun. Eta tiranoak agintean itzal egin diezaiokeen edonor erditik kentzeko eragozpenik ez du izango.

1.4.3.12. Irakurraia: Errepublika

Platonek liburu honetan Estatuaren teoria osoa egin zuen. Haren filosofia politikoaren sintesia dela esan daiteke. Argi izan behar da Platonen proiektua utopikoa dela, ez dela hiri hoberenari buruz ari, **estatu perfektuari** buruz baino. Polis perfektua lortzeko behar denari buruz ari da: justiziaren baloreaz. Nola gobernatu behar da? Agintariak beren interesak defendatu behar dituzte ala polisaren interesen alde gobernatu behar dute? Beraz, gaurkotasun handiko gaiak aurkituko ditugu. Bi dira nagusiak: politika (*politeia*) eta hezkuntza (*paideia*). Herritar guztien elkarlana azpimarratzen du justiziazko gizarte zoriontsu hori lortzeko. Eta, horretarako, nork bere interesak alde batera utzi egin behar ditu. Hiriaren zoriontasuna eta herritar

bakoitzarena justiziarekin lotuko da, eta horretarako herritarrak hezi egin behar dira. Gizarte harmoniatsua eta zuzena lortzeko, herritarrek hezkuntza egokia izan behar dute; horregatik, estatuaren ardura izango da. Filosofoaren, agintariaren betebeharra da hezkuntza.

Azkenik, azpimarratu behar da Platon ez zela garaiko edo aurreko inolako herritan oinarritu, eta haren eredia ez zela sekulan praktikan jarri; proiektu teoriko hutsa da.

Tomas Akinokoa

2

2.1. FILOSOFIA ERDI AROAN

2.1.1. EGOERA HISTORIKOA

Antzinaroa V. mendearen bukaeran amaitu zen, 476. urtean, Romulo Augusto azken enperadore erromatarra kargutik kendu zutenean; eta horrekin, Mendebaldeko Erromatar Inperioa amildutzat jo zen. Urte horretatik aurrera, Erdi Aroa hasi zen, 1453. urtean turkoek Konstantinopla konkistatu zuten arte. Aldaketa nabarmenak gertatu ziren alor guztietan, baita pentsamendu-mailan ere.

Mendebaldeko Erromatar Inperioa erortzearekin, herri barbaroak hedatzen ziren heinean, Europan ordura arte ezarrita zegoen batasun politikoa zatitu egin zen. Zatiketa hori esparru guztietara zabaldu zen: politika, kultura, hizkuntza, erakundeak, eta abar, eta herrien arteko isolamendua izan zuen ondorio; haien arteko harremanak, kulturalak zein ekonomikoak, eten egin ziren. Herri germaniarrak ezartzearekin, inperioaren erlijio-batasuna ere hautsi egin zen. Horrek bultzada handia eman zion Eliza Kristauari: herri barbaroen ebanjelizazioa askoz errazagoa izaten zen, erregea kristautuz gero.

Ekialdeko Erromatar Inperioko lurretan, berriz, egoera bestelakoa zen. Han ez zen inbasiorik gertatu; beraz, ez zen halako zatiketarik izan. Ezaugarri propioak gorde bazituen ere, Europako ekialdea izan zen mundu klasikoaren gordelekua. Horrela, bada, greziar filosofiak jarraipena Bizantzion izan zuen; aldiz, mendebaldeko lurretan, filosofiaren jarduera eta garapena oso ahula izan zen, beste zientzietan eta arteetan bezala, bestetik. Europa mendebaldean, berriz ere nolabaiteko batasun politikoa sortu zen arte (Karlomagnoarekin, VIII. mendean), ez ziren indartu filosofia eta gainerako zientziak.

Haatik, horrek ez du esan nahi Europako mendebaldean kultura klasikoa erabat desagertu zenik. Aurreko kultura zaharraren elementu asko, desagertu ez baziren ere, sakabanatuta gelditu ziren han-hemenka, herri isolatuetan. Eta elementu kultural horiek gordetzen ahalegindu ziren Erdi Aroko lehen mendeetako jakintsuak, V. mendetik IX. mendera artekoak, batik bat. Lehengo kulturaren arrastoak biltzen eta gordetzen saiatu ziren, bakoitzak bere ingurukoak. Hona horren adibide batzuk:

— Hispanian: Sevillako San Isidorok (VII. mendea) *Etimologiak* lanean (20 liburu), garai-ko jakintza guztia bildu zuen.

— Italian:

- Boeziok (VI. mendea) Euklidesen *Elementuak* eta Aristotelesen *Logika* itzuli, eta *De consolacione philosophiae* idatzi zuen.
- Marciano Capellak (VI. mendea) *Merkurioren eta Filosofiaren arteko ezkontza* liburuan Erdi Aroan hedatuko ziren ikasketak sistematizatu zituen: *trivium* (Gramatika, Erretorika eta Dialektika) eta *quadrivium* (Aritmetika, Geometria, Musika eta Astronomia).

— Britainiar uharteetan: aurreko kulturaren nukleo garrantzitsuak mantendu ziren, barbaroen eraso oso txikia izan baitzen, batez ere Irlandan.

- Bedak (VIII. mendea) *Ingalaterrako Elizaren Historia* idatzi zuen.
- Alkuino (VIII. mendea) Karlomagno bultzatutako pizkunde intelektualaren eragile nagusia izan zen.

Ikusten denez, Erdi Aroko lehenengo mendeetan egin zen lanik garrantzitsuenaren lehenagoko kultura gordetzea eta transmititzea izan zen, eta lan horren erantzukizuna monasterioek hartu zuten. Monasterio haietako monjeek, liburuak jaso eta ilustratzeaz gain, arkitektura-, pintura- eta eskultura-lanak egiten zituzten. Aldi berean, monasterio batzuk garaiko gune ekonomiko garrantzitsuak bilakatu ziren.

2.1.2. ESKOLASTIKAREN HASIERA ETA GARAPENA

VIII. mendearen amaieran, Karlomagno frankoen enperadoreak Europako batasun politiko lortu zuen berriz, Germaniako Erromatar Inperio Santua sortu zuenean. Inperio horren mugak Hispaniatik Danubioraino eta Danimarkatik Italiaraino iristen ziren. Inperio horri batasuna eman nahian, hurrengo mendeetako Europako historia erabat baldintzatuko zuten oso irizpide zehatzak inposatu zituen Karlomagnok, erlijio- eta kultura-alorrean. Politikoki lortutako batasuna laburra izan bazen ere, haren eragin intelektualak eta espiritualak hurrengo mendeetan zehar iraun zuen. Horretan, besteak beste, ezarritako irizpide eta erabaki hauek eragin zuten:

- Monasterioetan San Benitoren (480-547) erregelak inposatu zituen (liturgia, lana eta otoitza). Monasterioek jadanik zuten indarra areagotu egin zen.
- Kultuaren erritu latindarra ezinbestekoa bihurtu zen eliza guztietan, eta beste guztiak baztertu egin ziren.
- Latina ezarri zen nobleziaren eta kleroaren heziketarako hizkuntza.

Baina Karlomagnoaren garaiko pizkunde intelektualean neurri horiek guztiak garrantzia izan bazuten ere, Europa guztian zehar, katedralen, monasterioen eta palazioen inguruan sortu zituen eskolak bereziki garrantzitsuak izan ziren. Eskola haien sorrera eta Karlomagnoaren garaiko batasun kulturalaren ardura nagusia Alkuino filosofoaren lana izan zen (enperadoreak Ingalaterratik Akisgraneko jauregira ekarri zuen, bereziki). Garai hartako mugimendu kulturalari *Eskolastika* deitu zaio, eskoletan sortu zelako.

Eskola haien hasierako garaietan, *trivium* eta *quadrivium* irakasten zen soilik, baina **XI.** eta **XII. mendeetan** eskema hori zabaldu, eta, ikasgai horiez gain, *lectio* (testu sakratuen irakurketak eta iruzkinak) eta *quaestio* (gai bati buruzko eztabaidak) erantsi ziren. Irakaskuntzan, filosofiarekin eta teologiarekin zerikusia zuten gaiak garrantzia hartuz joan ziren, teologiak leku garrantzitsuagoa zuela, betiere.

XII. mendean, Europako bizimoduak gora egin zuen, eta baldintza ekonomikoak, politikoak eta sozialak erabat aldatu ziren. Egonkortasun politikoarekin eta garapen ekonomikoarekin batera, hiriak indar berriz agertzen hasi ziren. Mende hartan, monarkia zentralizatu berriak sortzen hasi ziren Europan, merkatariek luzatutako diruan oinarrituta.

Egoera berri horretan, hiribilduen eragina gero eta nabariagoa bihurtuz joan zen. Jakintza bera ere monasterioetatik hirietara igaro zen, batez ere katedralen inguruko eskoletara, eta benetako filosofia agertzen hasi zen. Eskola horietako jakintza nagusiki kolektiboa zen, eta oso zaila da bakoitzaren lana zein zen jakitea. Hala eta guztiz ere, pertsona garrantzitsuak agertzen hasi ziren orduan: Abelardo (1079-1142), San Antselmo Canterburykoa (1033-1109)...

Toledoko itzultzaileen lanaren bitartez, Aristotelesen lanak zabaldu ziren, ordura arte ez baitziren ezagunak islamiarren artean baino. Lan horiek X. eta XII. mendeen artean islamiar kulturaren garatu zen filosofiaren oinarri garrantzitsua izan ziren. Filosofo arabiarren eta juduen

lanekin batera —Avicena (980-1037), Averroes (1126-1198), Maimonides (1135-1204)—, beraz, filosofo grekoaren lanak zabaldu ziren.

Aurreko mendean gertatutako monasterioetako zister-erreformak (1098) garrantzi handia izan zuen XII. mendean. Erreforma horrek erlijiotasuna bizitzeko modu pobrea defendatzen zuen, garaiko Elizaren gehiegikerien aurka. Gehiegikeria horiek kleroaren aberastasunen aurkako protesta-giroa eta heresiak sorrarazi zituzten.

Bestetik, Zisterren erreformak estilo gotikoa sortu zuen arkitekturan, erromanikoaren gehiegizko sinbolismoaren aurka. Gotikoa estilo errealistagoa zen, eta gurutze-gangaren teknikarekin eraikuntza garaiagoak, zabalagoak eta argiagoak lortzeko aukera ematen zue-
nez, hobeto egokitzen zitzaion hirietako populazio handiagoari.

XIII. mendean, filosofia Eskolastikoaren garairik garrantzitsuena gertatu zen, mende hartako filosofo handien aipamen hutsak adierazten duenez: San Alberto Handia (1193-1280), San Buenaventura (1221-1274) eta San Tomas Akinokoa (1225-1274). Garapen handi horren arrazoiak asko dira, baina batzuk aipatzekotan, hauek aipatuko genituzke nagusiki:

- Egonkortasun politikoa. Egonkortasuna gero eta handiagoa bihurtzen ari zen, eta monarkia berrien agintea bermatuta zegoen. Era berean, hirien kopurua eta garrantzia handituz zihoan Europa osoan; horrekin batera, komertzioak egundoko garapena ezagutu zuen, eta, ondorioz, ekonomiak gora egin zuen.
- Lehen unibertsitateen sorrera. Lehengo palazio- eta katedral-eskola haiek abiapuntu zituzten, eta Europa guztian hedatuz joan ziren. Bolonia (zuzenbidea), Oxford (filosofia eta teologia) eta Sorbona (filosofia eta teologia) izan ziren garrantzitsuenak, baina nagusia, Parisekoa, hasieratik Frantziako erregeen eta Elizaren laguntza jaso baitzuen.
- Eskeko ordenak agertzea. Aurreko mendez geroztik, heresiak sortuz joan ziren, Elizaren eta, bereziki, kleroaren aberastasunaren aurka. Horren aurka sortu ziren bi eskeko ordena erlijiosoak (domingotarrak eta frantziskotarrak); aberastasunari uko egin zioten, eta pobretasuna ideal ebanjelikotzat hartu zuten. Ordena horiek arrakasta handia lortu zuten hasieratik, eta jaioberriak ziren unibertsitateetan zeresan handia izan zuten, bereziki domingotarrek.
- Ekialdeko Europako beste herriekin harremana. Mendebaldeko Erromatar Inperioa desagertu eta barbaroen inbasioak hasi zirenetik, Ekialdeko herriekin harreman guztia desegin egin zen. Bizantzion garatutako kultura, beraz, erabat ezezaguna zitzaion Mendebaldeari, ordura arteko Erdi Aro guztian. Mende hartan, berriz, ekialdeko kultura ezagutzeak eta harekin sortu ziren harremanek bultzada handia eman zioten Europako pentsamenduaren garapenari. Aurreko mendean hasia zen Aristotelesen eta Platonen lan guztien ezaguera areagotu egin zen, eta, horiekin batera, islama, judaismoa, eta Ekialdeko kultura eta artea iritsi zen Mendebaldeko Europara. Ekialdeko kulturaren ezaguera hiru bide nagusitatik iritsi zen: gurutzadak, Toledoko itzultzaileen eskola eta Europako erregeen gorteak, han zientzialari arabiar eta judu asko bizi baitziren, bereziki medikuak.

XIV. mendean, filosofia eskolastikoa krisian sartu zen, gizarte guztia bezala (izurriteak, goseteak, suteak, gerrak...). Krisi horren ondorioz, aurreko mendeko filosofo eskolastikoek lortutako filosofiaren eta teologiaren arteko oreka hautsi zen; hortik aurrera, diziplina bakoitzak bere bidea eramanean zuen, bai metodologiari dagokionez, eta baita aztertzen zituzten gaien aldetik ere. Mende horretako pentsalari garrantzitsuenek arrazoimenaren eta sinesmenaren arteko

adostasuna, bien arteko oreka, ukatu zuten. Pentsamendu berri haren adierazlerik bikainenak Duns Eskoto eta Gilen Ockhamgoa dira.

Baina krisialdi hori ez zen pentsamendu-mailan bakarrik gertatu. Mende hartan, Erdi Aroko erakunde garrantzitsuenak ere krisi larrian sartu ziren, eta Aro Berrian nagusi izango ziren ideiak eta erakundeak indarra hartzen hasi ziren:

- Gurutzadek —azkena 1270. urtean hasi zen— aurreko mendeetako indarra eta erakargarritasuna galdu zuten, eta Frantziako erregeak Tenplarioak (ordena erlijiosoaren eta militarren arteko loturaren adierazpen nagusia) disolbatu zituen.
- Aita santuaren eta erregeen arteko aurkakotasuna agerian geratzen hasi zen. Erregeak beren agintaritzaren autonomia eta lehentasuna aldarrikatzen hasi ziren, Elizaren agintaren gainetik. Aita santuaren indar-galtzea XIV. mende amaierako Mendebaldeko Zismak areagotu zuen.
- Pariseko Unibertsitatearen eta teologia-gaien ikerketaren garrantzia gutxitzen hasi zen. Aldi berean, *indibidualaren* azterketa eta esperimentazioa baloratzen zuen Oxfordeko Unibertsitatea lehentasuna hartuz joan zen, eta Errenazimentuko filosofiak hartuko zuen ildo aurreratu egin zuen. Nominalismoaren eragina nabaria izan zen.

2.1.3. ESKOLASTIKAK AZTERTUTAKO ARAZO NAGUSIAK

Mende haietan guztietan, eskolastikoez hainbat gai aztertu zituzten, baina horien artean bik garapen handia izan zuten, besteak beste, arrazoimenaren eta sinesmenaren arteko erlazioak, eta unibertsalen arazoak.

2.1.3.1. Arrazoimenaren eta sinesmenaren arteko erlazioa

Lehenik eta behin, argi utzi behar da kristautasuna ez dela filosofia, erlijio bat baizik. Errebelazioaren bidez, gizakiaren salbatzailea izango den Jainkoa aurkezten duen doktrina bat da, eta Jainko horrenganako atxikimendua eskatzen du.

Baina filosofia ez izan arren, benetako aldaketa ekarri zuen pentsamendu-mailan: batetik, filosofian inoiz planteatu gabeko gaiak ezarri zituen; eta, bestetik, filosofian betidanik eztabaidatutako gaien aurrean baieztapen zehatzak egin zituen. Errealitateari buruzko ikuspegi berri bat ezarri zuen, eta baita etika berri bat sortu ere.

Dena den, kristautasunak gehienetan erabili izan duen metodoa ez da filosofikoa izan; erlijio bat izanik, sinetsi egiten ditu edukiak, ez arrazoitu, Jainkoak esandako hitzean oinarritzen baita. Hala ere, fedezko baieztapenak maiz alderatu eta eztabaidatu izan ziren filosofiatik eta beste iturrietatik zetozen ikuspegi eta iritziekin. Era honetan planteatu zen arrazoimenaren eta sinesmenaren arteko erlazioa, eta galdera ugari sortu zen horren inguruan:

- Filosofia eta sinesmena berez kontrajarriak al dira?
- Sinestunak alferrikakoa al du filosofiaren jarduera?
- Sinesmenak ezabatzen al du egindako ahalegin arrazionala?
- Lagun al diezaioke filosofiak teologiari? Eta alderantziz?

Galdera horien guztien aurrean, kontuan hartu behar da kristautasunak hasieratik esan zuela Jainkoa *Logosa* dela. Horrela, bada, *Logosarekin* identifikatu zuen San Joanen ebanjelioak:

«... Hasieran bazen Hitza⁸ eta Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen (...) Hitzarengan zegoen bizia, eta bizia gizakien argia zen». Logosa den Jainko horren aurrean, berezia eta bikoitza da gizakiaren izaera: alde batetik, materiala da, beste edozein izaki natural bezala; bestetik, Jainkoaren antzera, arrazoiduna da; eta mundua zer den eta gizakia bera zer den eza-gutzeko aukera du.

Baina —eta hau da eskolastikak planteatzen duen galdera nagusia— **gizakiaren arrazoimen mugatuak ezagut eta uler al dezake guztiz arrazoimena den Jainkoa?** Galdera horri emandako erantzuna askotarikoa eta aldakorra izan zen kristautasunaren eraginez sortutako filosofian.

2.1.3.1.1. Pentsamendu kristauaren lehen mendeak

II. mendean, kristautasunaren eraginez sortu zen lehen filosofian (Patristika⁹), aurreko galderari emandako erantzuna baiezkua izan zen, orokorrean: gehiengoaren ustez, gizakiak badu Jainkoa ezagutzeko eta ulertzeko ahalmena. Dena den, adostasuna ez zen guztizkoa izan, eta mende berean Tertulianok, esaterako, aurkakoa esan zuen, arrazoimena eta sinesmena kontrakoak zirela, alegia: «Credo quia absurdum» (absurdoa delako sinesten dut); hortaz, Tertulianoren ustez, arrazoimena alboratu egin behar zen; eta jakinduria Jainkoa eta errebelazioa oinarri dituen teologiara mugatu.

V. mendean, San Agustinek esan zuen filosofiak eta teologiak helburu bera zutela; biek egia bilatzen zutela. Baina, haren ustez, arrazoimena ezer ez da sinesmenik gabe, eta sinesmenak bakarrik ematen du benetako ezagutza. Dena den, sinesten dena ulertu behar dela zioen, ulertzen ahalegindu behar dela; hau da, sinesmena arrazionala bilakatu behar dela. Beraz, filosofiak eta teologiak elkarri laguntzen diote egia lortzen, pauso hauei jarraituz:

- Arrazoimenak sinesmena lortzen laguntzen dio gizakiari, egon daitezkeen trabak ezabatuz. Sinestea arrazoizkoa dela zioen.
- Sinesmenak arrazoimenari ere laguntzen dio, benetako jakinduria emanez. Benetako jakinduria ez dugu filosofiaren bidez lortzen, sinesmenaren azterketa arrazionalaren bitartez baizik.
- Arrazoimenak sinesmenari laguntzen dio, bere edukien azterketaren bidez.
- Arrazoimena eta sinesmena elkar lotuak daude. Biek elkarrekin aurkitzen dute Egia (Jainkoa); gizakia bat baita, kristaua eta arrazionala batera. «Intellige ut credas. Crede ut intelligas¹⁰».

2.1.3.1.2. Goi-eskolastika (IX. eta XII. mendeak)

IX. mendeko ideiak eta hasierako eskolastikak defendatu zituenak oso gertu daude San Agustinen pentsamendutik:

- Arrazoimena sinesmena aurkitzeko tresna da.
- Sinestea beharrezkoa da, ulertu ahal izateko.

⁸ Joanen ebanjelioaren originala grekoz idatzita dagoenez, euskarazko Hitza terminoari Logos (arrazoimena, hitza...) dagokio.

⁹ Patristikak Elizako Gurasoen idatziak aztertzen zituen.

¹⁰ Ulertu sinesteko. Sinetsi ulertzeko.

XII. mendean San Antselmok¹¹ ikuspegi hori areagotu egin zuen. Ezagutza-mailan, sinesmenari lehenetasuna eman zion, eta arrazoimenaren garrantzia sinesmena argitzea dela defendatu zuen.

2.1.3.1.3 Eskolastika Handia (XIII. mendea)

XIII. mendean, San Tomasek filosofia eta teologia bi diziplina direla defendatu zuen, bai metodoz, bai abiapuntuz. Akinokoaren arabera, bakoitzak bere esparru propioa du, eta bakoitzak ezagutza desberdinak eskaintzen ditu. Dena den, esparru komun garrantzitsuak ere badaude; eta horien ezagutza bi bideetatik lor daiteke, bietako edozeini jarraituta ere, egia berera iristen baita, Egia bakarra baita.

Arrazoimena eta filosofia autonomoak dira, eta baita metodologikoki desberdinak ere. Berez, batak ez du bestearen beharrik. Filosofiak arrazoimenak dioena bakarrik onar dezake, eta teologiak Liburu Sakratuak (Biblia) ditu abiapuntu. Desberdinak dira, baina toki berera daramate, eta elkarri lagun diezaioke:

Arrazoimenak sinesmenari:

- Sinestea arrazionala dela frogatuz.
- Ulergarriak diren sinesmen-egiak arrazoimenaren bidez argituz.
- Misterio deritzaten ezagutzak arrazoimenaren aurkakoak ez direla frogatuz.

Sinesmenak arrazoimenari:

- Arazoen soluzioak aldeztetik ezagutarazten arrazoimenari.
- Gizakiak aurkitutako egiak Jainkoaren autoritatez bermatuz.
- Arrazoimenaz kanpoko egia egia-irizpide bilakatzuz.

2.1.3.1.4. Eskolastikaren krisialdia (XIV. mendea)

XIV. mendean, Nominalismoarekin (Duns Eskoto, Gilen Ockhamgoa) ikuspegia erabat aldatu zen. Haientzat, filosofia eta teologia bi ezagutza desberdin dira, eta ezin dira harmonizatu. Ez dira —Tertulianok zioen bezala— oposatuak, desberdinak baizik. Filosofia arrazoimenaren mailan garatzen da, eta teologia sinesmen-arazoa da.

Jainkoa gizakiaren arrazoimenaren gainetik dago; eta horregatik, gizonaren arrazoimenak ezin dezake Jainkoa eta naturaz gaindikoa ulertu eta aztertu. Beraz, filosofiak beretzat egoiak eta ulergarriak diren objektuetara itzuli behar du —munduko objektu naturaletara, alegia—, eta Jainkoari buruzko azterketa teologiari utzi. Filosofiak ezagutza sentigarrira jo behar du, esperientzia aztertzerara.

Tesi horien ondorioz, filosofia eta teologia banandutako bi mundu bilakatu ziren. Hortik aurrera, gure munduko arazoen azterketa filosofiaren ardura izan zen, eta horretara mugatu behar izan zuen bere jardura. Era berean, teologiaren eremua sinesmenarena izan zen; arrazionaltasunari uko egin, eta esparru horretara mugatu behar izan zuen.

11 *San Antselmo lehen pentsalari eskolastikotzat hartzen da.*

Filosofiaren eta teologiaren arteko hausturak, arrazoimenaren bidearen eta fedearen bidearen artekoak, bi jarrera sorrarazi zituen. Batzuek (Eckhart-ek, adibidez) filosofia arbuiatu, eta sinesmenaren eta teologiaren guztizko nagusitasuna baieztatu zuten; erlijioa benetako mistika bilakatu zuten. Beste batzuek, berriz, nominalistek (Duns Eskoto, Gilen Ockhamgoa), jakinduria filosofikoaren garrantzian jarri zuten indarra. Filosofiaren arduraren mundu honetako arazoetara zuzendu zuten. Hortaz, filosofiak esperientzia sentigarrian oinarritu behar duela zioten.

2.1.3.2. Unibertsalen arazoa

Eskolastikan planteatu zen bigarren aztergai nagusia *unibertsalen* izaerari buruzkoa izan zen. Errealitatearen oinarria banakako elementuak edo partikularrak dira. Horiek jasotzen ditugu zentzumenen bidez. Partikular horiei buruz hitz egiten denean, izen bereziak erabiltzen dira. Baina, horiez gain, izen arruntak ere erabiltzen dira generoak eta espezieak aipatu edota adierazteko; hau da, unibertsalak. Unibertsal horiek dira filosofiak eta zientziak aztertzen dituztenak. Baina planteatzen den arazoa unibertsal horien izaera zertan datzan jakitea da. Galdera ugari sortzen da horren inguruan: Zer dira unibertsalak? Nolako izaera dute? Berezko existentzia dute, ala gure adimenak sortu eta beste inon ez daude? Zein da partikularrekin duten lotur?

Galdera horiei guztiei hainbat erantzun eman izan zaizkie filosofiaren historian zehar. Eta Eskolastika-garaian gehien aztertu eta eztabaidatu zen gaietako bat izan zen. Oro har, hiru ikuspegi edo jarrera izan ziren garai hartan:

— Ikuspegi idealista. Platonengan du oinarria eta abiapuntua. Ikuspegi horren arabera, unibertsalek berezko existentzia dute, baina horien izaera ez da fisikoa edo materiala, metafisikoa baizik (Platonek *ideia* deitu zituen). Haien existentzia, gainera, sendoagoa da objektu partikularrena baino, betierekoak eta iraunkorrek baitira.

Ikuspegi idealista horrek blaitu egin zuen pentsamendu kristaua sorreraz geroztik, eta indarrez areagotu zen V. mendean, San Agustinek kristau-doktrinari aplikatu zion platonismoaren egokitzapenaren ondoren. Goi-eskolastikan (XI., XII. mendea) San Agustinen planteamenduak nagusi izaten jarraitu zuen. Adu horiek ziotenez, unibertsalak existitzen dira, errealak dira guztiz. Gauzetatik kanpoko existentzia dute, eta Jainkoaren adimenaren baitan daude betidanik. Partikularrak, errealitate konkretuak edo indibidualak, aldiz, unibertsal horien kopia hutsak besterik ez dira, eta soilik akzidenteen bidez bereizten dira beste partikularretatik. Indibidualen benetako errealitatea unibertsalen partaidetza edo imitazioa da.

— Errealismo moderatua. Aristotelesen planteamenduetan oinarrituta dago. Ikuspegi platonikoaren aurka, errealismo moderatuak unibertsalek berezko existentziarik ez dutela mantentzen zuen (ez dira *substanzialak*). Horien existentzia gure adimenean baino ez dago, abstrakzio-prozesuz ekoiztuta. Beraz, ez dira gauzak, baina gauza partikularretatik ateratakoak direnez, gauzetan daude. Zientzia egitean, unibertsalak aztertzean, gauzen propietateak aztertzen dira, eta, ondorioz, jakinduriaren bilaketak gauzen azterketan oinarritu behar du.

Errealismo moderatuaren ikuspegia Abelardok XI. mendean aurreratu bazuen ere, Eskolastika Handian nagusitu zen, XIII. mendean. Hasiera zaila izan zuen arren, Tomas Akinokoaren lanen planteamendu aristotelikoek izugarritzko bultzada eman zioten, eta oso denbora laburrean erabat nagusitu zen. Ikuspegi horren arabera, objektu guztiak materiaz eta formaz osaturik daude; unibertsalak ezagutzeko, objektuen forma da adi-

menez atera eta ezagutzen duguna, abstrakzio-prozeduraren bidez. Forma da unibertsaltasunaren printzipioa; eta materia, indibidualtasunarena.

- Ikuspegi nominalista. Nominalismoak XI. mendeko R. Compiègne izan zuen aitzindari, baina benetako garapena XIV. mendean gertatu zen, Duns Eskotoren eta Gilen Ockhamgoaren eskutik nagusiki, Eskolastikaren krisi-garaian. Haien ustez, partikularrak bakarrik dute benetako existentzia. Horretan bat zetozen errealista moderatuekin: unibertsalak ez dira substantziak. Baina ukatu egiten zuten adimen-abstrakzioak badirenik ere. Beraz, errealista moderatuen tesi nagusia ukatu egiten zuten. Nominalisten iritziz, unibertsalak hitzak baino ez dira, beste inolako existentziarik izan gabe.

Ockhamentzat bi ezagutza mota ditugu, eta bi eratan lortzen dugu:

- Ezagutza abstraktua: ideiei buruzkoa da, eta ideien arteko erlazioak egiten ditu, abstrakzio-prozedura aplikatuz. Baina ezagutza horrek errealitatearekin duen erlazioaz ez dago inolako garantiarik.
- Ezagutza intuitiboa: errealitatearen ezagutza zuzena da. Ezagutza horrek bakarrik eman dezake ziurtasuna errealitateari buruz, eta zentzumenen bidez egiten da. Ezagutza guztiek uneko zuzeneko esperientzia sentikorra dute oinarri, sentipena estimuluaren aurrean gaudenean bakarrik gertatzen baita. Horregatik, ezagutza bera da objektuen existentziaren bermea.

Hitz egiten dugunean, askotan terminoak erabiltzen ditugu (jakintza arrazionalek —filosofiak eta zientziak— horien ezagutza dute aztergai). Baina, Ockhamentzat, balio unibertsaleko terminoen atzean ez dago inolako edukirik duen kontzepturik. Haren adierazpen-teoriak esaten duenez, unibertsalak hitz hutsak dira; eta adieraztea beste zerbaiten ordezkotza egitea baino ez da. Existentzia duten bakarrak indibidualak izan arren, kontzeptuek askotariko unibertsoa adierazteko aukera emateko balio dute; zehaztasun gutxiko adierazpenak egiteko, edo ezagutu gabeko hainbat errealitate izendatu ahal izateko.

Nominalisten arabera, beraz, zientzia da unibertsalen ezagutza, baina zientzia *formala* materiagabea bilakatzen da, unibertsalek edukirik ez baitute. Aldiz, edukiz betetako ezagutza intuitiboa da, konkretua dena, zentzumenen bidez egindakoa. Ikuspegi horrek hurrengo mendeetan berebiziko garrantzia izango zuen ondorioa ekarri zuen: zientziak esperimentatzeari ekin zion, gizadiaren historian lehenengo aldiz. Eta Errenazimentuko zientzia berriaren bidea sortu zen.

2.2. TOMAS AKINOKOA (1225-1274)

2.2.1. BIZITZA

Napolitik gertu jaio zen 1225ean, Rocasecca jauregian, familia noble feudal batean. Ikasketak Montecassinoko abadian egin zituen lehenengoz, eta gero, Napoliko unibertsitatean jarraitu zituen. Han, bere pentsamenduan hainbesteko eragina izan zuen Aristotelesen filosofia ikasteko aukera izan zuen. Aukera hori berezia zen, garai hartan Aristotelesen filosofia ezagutzen hasiberria besterik ez baitzen erresuma kristauean, eta haren irakaspena oraindik unibertsitate askotan debekatuta baitzegoen.

Domingotarren ordenan sartu zen familiaren oniritzirik gabe; horregatik, anaiek bahitu egin zuten, eta jaioterriko gazteluan preso izan zuten urtebetez. Askatu ondoren, Parisera joan zen,

eta filosofia eta teologia ikasten hasi zen San Alberto Handiarekin, ikerketa enpirikorako zale-tasun nabaria zuen maisuarekin. San Alberto Koloniako unibertsitateko irakasle izendatu zute-nean, Tomasek jarraitu egin zion, eta han lau urte eman zituen teologia ikasten. 1256. urtean, Parisera itzuli zen, eta doktoretza lortu ondoren, Sorbonan irakasle-lanean aritu zen. Italian urte batzuk igaro ondoren, Parisera itzuli zen, Aita Santuak deituta. Garai horretan garatu zuen jarduera intelektual nagusia, bereziki San Agustinen filosofiaren aldeko frantziskotarren eta Averroesen jarraitzaileen aurkako eztabaida teorikoa. Ondoren, Napoliko unibertsitatetik deitu zuten, eta han urte batzuk eman zituen.

Gregorio X.a aita santuak Lyoneko Kontzilia teologiako teknikari joateko agindu zion 1274. urtean. Bidaia horretan hil zen Zisterreko Fossanova abadian, 49 urte zituela.

2.2.2. IDAZLANAK

Gazte hil zen arren, genero askotako idazlan ugari utzi zituen: testu sakratuen exegesiak (interpretazioak) eta apologiak (defentsak), teologia-azalpen sistematizatuak, filosofia-azalpen sistematizatuak, eztabaidak (disputationes), komentarioak (Aristotelesen eta Boezioren lanei buruzkoak, adibidez)...

Dena den, obra nagusiak hauek dira: *Summa Theologiae* (Teologiaren bilduma) eta *Summa contra gentes* (Jentilen kontrako bilduma).

Haren idatziak eta pentsamendua iraultzaileak izan ziren garairako, ordura arteko pentsamendurik zabalduena San Agustinen eta haren jarraitzaileena baitzen, bai Eskolastikan, baita Elizan ere. San Tomasen pentsamendua aldaketa izugarria zekarren, Aristotelesen pentsamenduan oinarritua baitzegoen. Horregatik, haren pentsamendua ez zen berehala onartua izan; aitzitik, kondenatua ere izan zen, garaiko Pariseko gotzainak egin zuen bezala. Berrogei urte pasa behar izan zuten, haren pentsamendua erabat onartua izateko eta Elizaren pentsamendua ia ofiziala bilakatzeko.

Kondena horren arrazoi nagusia aristotelismoari buruzko garaiko ikuspegia da, materialismo gordintzat hartua baitzen batez ere platonismoarekin alderaturik. Ikuspegi horretan, averroismoaren Aristotelesen interpretazioak zerikusi handia izan zuten.

2.2.3. TOMAS AKINOKOAREN PENTSAMENDUA

Tomas Akinokoaren pentsamenduaren ezaugarri nagusietako bat planteamendu filosofikoen eta teologikoen artean egiten duen bereizketa da. San Tomasek, teologo gisa, errebelazioari eta kristau-doktrinari atxikimendua zor zion. Filosofo gisa, berriz, libre sentitzen zen; eta, garaiko beste pentsalariak ez bezala, filosofiaren alorrean erabili zuen metodologia eta tresna bakarra arrazoimena izan zen. Kristautasunaren gaiak etengabe agertzen dira haren lan filosofikoetan, baina beti arrazoimenaren bidez aztertu beharreko gai gisa, eta ez egia filosofiko gisa.

2.2.3.1. Aristotelesen filosofiarekin erlazioa

Aristotelesen filosofia kristautasunera egokitu zuen, haren filosofia eta kristau-fedea guztiz bateragarriak zirelakoan; San Agustinek Platonenarekin egin zuen moduan. Gai eta esparru askotan (Logikan, Metafisikan, Fisikan...) Aristotelesen filosofiaren ardatz nagusiari jarraitu zion arren, beste arlo batzuetan (Etikan, Psikologian...) eskema eta terminologia mantendu bai,

baina distantzia hartu zuen greziarrarengandik. Aristotelesen pentsamendua Averroesen idazlanen bidez ezagutu zuen, nahiz eta filosofo arabiarrek onartutako aspektu batzuk ez zituen ontzat eman (bi egien teoria, adibidez).

Baina San Tomasek Aristotelesengandik zer hartu zuen aztertu baino lehen, Aristotelesen pentsamendua ezagutu behar da, oinarritzkoena behinik behin.

2.2.3.1.1. Aristotelesen filosofia

Aristoteles (K.a. 384-322) Mazedonian jaio zen. Gaztetan, Atenasera joan zen, eta han, Platonen ikasle izan zen Akademiaren. Hasieran, haren jarraitzaile sutsua izan bazen ere, maisuaren pentsaeratik urrunduz joan zen, batez ere Platonen heriotzaren ondoren. Filipino Mazedoniakoak semearen heziketaz arduratzeko eskatu zion Aristotelesi, Alexandro Handiak 13 urte zituenean. Atenasen *Lizeo* izeneko eskola sortu zuen (Apolo Lizio-ri sagarututako basoan). Eskolak paseatzen aritzen zirela ematen omen zituzten; horregatik, peripatetiko («*peripatos*»: paseoa, ibilaldia) deitzen zaie. Lizeoan, naturaren zientziekin eta giza zientziekin erlazionatutako lan eta bilduma oso zabalak eta garrantzitsuak egin zituzten.

Platonen ideien teoriari egin zion kritikarekin hasi zen garatzen Aristotelesen pentsaera. Teoria horri hutsune garrantzitsuak aurkitzen zizkion Aristotelesek, arazo gehiago sortzen baitzituen konpondu baino:

- Lehen munduaren existentzia esplikatu behar bazen, Platonekin bi mundurena egin behar.
- Ez du azaltzen zer eratako erlazioa duten ideiek gauzekin.
- Ideiak gauzetatik aparte badaude, ezinezkoa da gauzen esentzia izatea.
- Gauzen jatorria eta aldakortasuna azalpenik gabe uzten du ideien teoriak.
- Azkenik, ideien teoriaren hutsuneak konpontzeko objektu matematikoen aldera jotzen du; eta, esan nahi duena argitu ordez, mugatu egiten du.

Horregatik, Aristotelesek alde batera utziko du ideien teoria platonikoa. Haren ustez, ideiek ez dute gauzetatik aparteko existentziarik, ez dira substantziak, unibertsalak baizik; hau da, espezie bereko gauzetan behaketaz aurkitzen ditugun komunitasunak.

Hala ere, alderdi nagusian eta orokorrean, ados zegoen Platonekin. *Zientzia da unibertsalari eta orokorrari buruzkoa*; hau da, jakinduria datza esentzia komunaren ezagutzan; hau da, hari buruz honakoa ezagutzea da:

- Badela, horrelakoa dela eta zergatik izan behar duen horrelakoa. Demonstratu egin behar da; horretarako, logika erabiltzen da, ebidenteak diren lehen printzipio batzuetatik hasita.
- Zer den (bere esentzia iraunkorra) ezagutzea. Definizioz lortzen da; lehendabizi, gertuko generoa azalduz (adib. *Homo*); eta, jarraian, desberdintasun espezifikoa (adib. *Sapiens*).

Platonen kasuan ez bezala, Aristotelesen ustez, ezagutzak oinarri enpirikoa du (esperientzian oinarritua dago): zentzumenetan hasten da; gero, pentsamenduak garatzen du.

Zientziak (filosofiak), jakinduria unibertsalari buruzkoa izanik, gauzek duten unibertsalena aztertu behar du: **izatea** (izatea grekoz «to on» esaten da, eta, horregatik, Lehen Zientzia horri, *ontologia* «*ontos+logia*» deituko zaio, izatearen zientzia). Izate bakoitza bat da; ez da askota-

12 *Hilemorfismoa*: grekoz, hyle: *materia*, eta morphe: *forma*

rikoa bere batasunean. Aristotelesek **substantzia** deitu zion. Horrez gain, izatearen izateko erak daude: akzidentek. Adibidez, *substantzia*: «Sokrates»; *akzidentea*: «grekoa izatea». Substantzia bi elementuz osatua dago: **materiaz** (pasiboa) eta **formaz** (aktiboa). Formak zehazten du materia, substantzia zehatz hori izan dadin. Horri hilemorfismo¹² deitzen zaio.

Aristotelesen filosofiaren atal nagusietako bat mugimenduari eta aldakortasunari buruzko azalpena da. Haren ustez, gauza bat den hori izatera irits daiteke, lehendik, nolabait, barnean aukera hori zuelako; hau da, *potentzian* zegoen, eta *ekintza* eratorri da (adibidez, ezkur batean haritz bat dago *potentzian*; haritza garatzen denean, orduan, *ekintzaz* da haritza). Mugimendua, beraz, potentziaz izatetik ekintza bilakatzeko pausoa da. Hori da Aristotelesek filosofiari egingo dion ekarpen nagusia.

Horrela, bada, izateak berak darama bere barnean etorkizunean izan daitekeenaren garapena. Natura (Aristotelesek eredutzat bizidunak hartzen ditu) etengabeko aldatze-prozesuan dago, potentzialtasun batzuk ekintza bihurtuz (gehienak ez dira inoiz garatuko; arotz batek egur batekin apal bat egiten badu, esaterako, egur zati horretan potentzian zegoen apala, baina baita mahai bat ere, edo koadro baten markoa, baina ez da horrela garatu). Naturako elementuek beren barne dute aldaketan eta mugimenduaren sorrera. Eta izaki bakoitzaren naturak aldaketak egiteko, eguneratzeko joera du; hau da, berezkoa duen perfektzioa lortzeko joera (teleologia). Eta izaki guztiek beren perfektzioa lortzera bultzatzen dituen joera *ongia* da.

Horrela, errealitatea sortu eta aldaketa horiek guztiak gerta daitezten, eta pauso bakoitza den bezalakoa izan dadin, **lau kausa** eman behar dira beti:

- Kausa materiala**: gauza hori zein materialez dagoen osatuta.
- Kausa formala**: materia horrek zein eratako objektua osatzen duen.
(Hilemorfismoa: ez dago materiari gabeko forma; ezta formarik gabeko materia ere)
- **Kausa eragilea**: materia horretan forma hori ezartzen duena; aldaketaren eragilea.
- **Kausa finala**: helburua; zertarako egin edo aldatu den.

Adibidez, tenplu bat apaintzeko eskultore batek egindako Zeus jainkoaren harrizko estatuaren kasuan:

- Kausa materiala: harria.
- Kausa formala: Zeus jainkoa.
- Kausa eragilea: eskultorea.
- Kausa finala: hiria babestu, tenplua apaindu.


Horregatik, zerbait (zientifikoki) ezagutzea haren kausak ezagutzea dela esaten zuen Aristotelesek.

Baina kausa eragile bat (motorra, higitzailea) badago, alde zurretik kausa horrek eragile bat ere izan behar zuen (adibidez, mugitzen ari den billar-bola bat, agian, beste bola batek mugitu du; baina hori makilak mugiarazi du; eta makila, eskuak; eta eskua...). «Ezer ez da mugitzen beste zerbaitek mugitzen ez badu». Baina, noiz arte atzera jo behar da kausetan? Aristotelesen ustez, ezinbestekoa da **lehen eragile** baten existentzia (lehen motorra), eta Jainko deitu zion; eta eragiten duen guztia kausa final batez eragiten duenez, dena gertatzen da helburu bati begira. Jainko hori ekintza hutsa, materiagabea dela zioen Aristotelesek.

Kausen teoria horrek berebiziko garrantzia izango du Erdi Aroan Aristotelesen obra (ordura arte Europan ezezaguna) berreskuratzen denean, bereziki Tomas Akinokoaren pentsamenduan.

Kosmologiari dagokionez, Aristotelesek Lurra unibertsoaren sistemaren erdian kokatzen zuten, eta uste zuten ilargia, eguzkia, planetak eta izarrak lurraren inguruan esfera zentrokide-tan biraka ari direla. Mugimendu edota aldaketa guztiek bezala, jarduera kosmologikoak ere kausa finala izango du, Jainkoak bakarrik dakiena. Bestetik, unibertsoan bi mundu bereizten ditu: ilargiaren haraindikoa eta ilargiaren honanzkoa. Lehenengoa guztiz perfektua eta betierekoa da, jainkozkoa eta aldaketarik gabea; ilargiaren honanzkoa (Lurra nagusiki), berriz, imperfektua eta aldakorra.

Kosmologia aristotelikoa Erdi Aroko zientziaren eredu izan zen, Aro Modernoko iraultza arte. Gorputzek berezkoak dituzten ezaugarriengatik gertatzen da dena. Ez dago datu enpirikotan oinarritua, eredu deduktiboari jarraitzen dio: zerua esfera bat da, esfera figura perfektua delako.



Aristotelesek oso lan garrantzitsuak egin zituen etika-, politika- eta arte-mailan. Aurreko doktrina etikoak jaso eta aztertu ondoren, baztertu egin zituen. Gizakiak zorientasuna bilatzen duela onartzen du; baina ez jakinduriak, ez uneko plazerak, ez eta ondare materialek, ohoreak edota ospeak ere ez dute zorientasuna bermatzen. Haren iritziz, gizaki bakoitzak berez dago-kion tokia aurkitzean lortzen da zoriona, eta toki hori bizitzako ekintzetan eta jardueretan **erdi-ko terminoan** dago (moderazioa eta zuhurtzia), muturretatik alde eginez.

Politika-mailan, gizakia «animalia politikoa» zela zioen; pertsona gisa estatuaren, hiriaren barruan bakarrik gara daitekeela. Harentzat, hezkuntzak oso garrantzi handia zuen polisaren sisteman. Dena den, ez zuen eredu politiko perfekturik defendatzen; eta egokitasuna tokiko baldintzen arabera zela pentsatzen zuen.

2.2.3.1.2 Aristotelesen eragina San Tomasen pentsamenduan

Honako aspektu hauetan eragin zuen aristotelismoak San Tomasen pentsamenduan:

- Ikuspegi enpirikoa. Aristotelesek bezala, ezagutza zentzumenetan hasten dela defendatu zuen.
- Substantzia naturalen kontzeptzio hilemorfikoa. Formaren eta materiaren arteko bereizketa aristotelikoaz baliatu zen. Substantziaren eta akzidentearen arteko bereizketa ere ontzat eman zuen, Aristotelesek ematen zizkien ezaugarriak baliozkotzat hartuz.
- Mugimenduaren teoria. San Tomasek azalpen egokitzat jo zuen zertan datzan mugimendua eta aldaketa: potentzian dauden gaitasunak ekintza bihurtzean. Jainkoarengan ezer ez dago potentzian; ekintza hutsa da.

- Kausen teoria ere onartu zuen. Ezer ez da gertatzen, gertarazten duen kausarik ez bada. Kausa lehenak izan ezik, edozein substantziak lau kausa ditu: materiala, formala, eragilea eta finala (San Tomasek zioen kausa lehena edo Jainkoa badenaren sortzailea dela; aldiz, Aristotelesek zioen kausa lehena betidanik existitzen den lehen gaiaz baliatu zela errealitatea gauzatzeko). Bi pentsalarien ustez, kausa lehenaren beharrezkotasuna mugimenduak frogatzen du (San Tomasen 1. bidea).
- Gizakiaren osaera duala. Gizakia gorputzaz (materiaz) eta arimaz (formaz) osatuta dago, baina substantzia bakarra¹³ da. Hala ere, Aristotelesek arima hilkorra dela bazioen ere, San Tomasek arimaren hilezkortasunaren tesia mantendu zuen.
- Planteamendu etikoaren eskema orokorra. Batetik, gizakiaren jokaera morala berezko izaeran oinarritua dago. Bestetik, gizakiak zoriontasuna bilatzen du, eta zoriona berezkoa zaion jakinduria bilatzean aurkituko du. Jakinduria hori bilatzeko bidea kontemplazioa da.
- Naturaren interpretazio teleologikoa. Izaki guztiek berezkoa dute perfekzioa lortzeko joera. Gizakien kasuan, perfekzioa zoriona da.

Hala ere, Aristotelesen filosofiaren helburua *izatearen moduak* argitzea izan zen; hau da, izatearen analogiaren teoria garatzea, mugimenduaren arazoari irtenbidea emateko; eta errealitatearen egitura ontologikoa nolakoa den argitzea.

San Tomasen helburua, berriz, kristau-teologiaren sustrai intelektuala finkatzea izan zen; bereziki, Jainkoaren existentzia frogatzea, kristau-dogmen azalpen arrazionala finkatzea, eta giza arimaren doktrina argitzea.

2.2.3.2. Filosofiaren eta teologiaren arteko erlazioa

San Tomasek errealitatea benetan nolakoa den (egia) aurkitzeko bi bide bereizi zituen: fedearen bidea eta arrazoimenaren bidea. Lehenengoa teologiaren bidea da; bigarrena, filosofiarena. Bi bide horiek desberdinak izanik, bakoitzak bere aldetik joka dezake, eta abiapuntu propioa du:

- Filosofiak arrazoimena erabiltzen du soilik, eta ezin du onartu arrazoimenak eskain diezaiokeen argudioetatik kanpokorik (ezta erlijio-gaiez ari denean ere). Arrazoimenaren bidez aurkitutako egia *egia naturalak* edo *arrazoimenezko egia* dira.
- Teologiak, berriz, Jainkoaren errebelazioa du abiapuntu, bereziki Liburu Santuen (Bibliaren) bidez emana. Egia horiek, fedez edo sinesmenez ezagutzen ditugunak, *fedezko egia* dira. *Summa contra gentes* idazlanean «Jainkozko egia» deitu zien San Tomasek.

Autonomoak izateaz aparte, autosufizienteak dira biak, eta bakoitzak bere jardunean egia lor dezake:


- Teologiak egia lor dezake liburu sakratuei esker iritsi zaigun errebelazioaren azterketaren bidez, Jainkoak errebelatutakoa ez baitaiteke faltsua izan «... Jainkoak argiro berretsi baitigu» (*Summa contra gentes*, VII-9).
- Filosofiak ere egia lor dezake, arrazoimenak horretarako gaitasuna duelako, ondo erabiliz gero. Tresna arrazoimena du, eta logikaren printzipioen bidez funtzionatzen du. Lehen printzipio horiek ezin dute errealitate faltsu bat ezagutarazi, Jainkoak emanak direlako, eta harengan ere badaudelako. Honela dio *Summa contra gentes* lanean, VII-14an: «Jainkoak ezarri du gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea. Lehen printzipio horiek, beraz, Jainkozko jakinduriaren barnean daude.

Ondorioz, horien aurka dagoen guztia Jainkozko jakinduriaren aurka dago. Hori ez da Jainkoaren bidea».

Beraz, bakoitzak bere aldetik egia lor badezake, ez daiteke konfliktorik izan bien artean, biek egia bera eta bakarra lor dezaketelako, ondo erabiliz gero. San Tomasen ustez, egia bakarra da, Averroesek defendatzen zuenaren aurka; filosofo arabiarrarentzat, gai berari buruzko egia bikoitza eta desberdina zen: arrazoimenarena, bata; eta sinesmenarena, bestea. San Tomasek honela zioen: «... goi-agerkunde bidez ditugun egiak ezin dira ezagutza naturalaren aurkakoak izan» (*Summa contra gentes*, VII-18). Eta pixka bat geroago: «Jainkoak ez du gizonaren baitan ezartzen ezagutza naturalaren aurkako federik» (*Summa contra gentes*, VII-25).

Zientzia horiek metodologikoki desberdinak dira, eta egia-irizpide desberdina erabiltzen dute; baina helburu komuna dute: biek egia lortu nahi dute; egia, bere osotasunean. Termino aristotelikoetan esanda, objektu material bera dute biek, baina objektu formala desberdina da. Desberdintasun horien ondorioz, diziplina bakoitzak esparru propioa du, eta gizakiari biak beharrezkoak zaizkio, egia ezagutzeko:

- Filosofiaren esparrua, lehen esan bezala, *egia naturalen* esparrua da, *arrazoimenaren bidezko* egien eremua. Egia horiek (*fede-atarikoak* izan ezik) ez zaizkigu errebelatzen; beraz, ez daitezke sinesmenez ezagutu. Arrazoimenaren bidea, dena den, ez da erraza izaten. Arrazoimena gizakiak jatorriz duen tresna baliotsua bada ere, ez da ahalguztiduna, eta erraz nahas daiteke edo huts egin dezake (goi-mailako gaiez ari denean, nagusiki).
- Teologiaren esparrua *naturaz gaindiko egien* esparrua da, hau da, *fedearen bidezko egiena*. Egia horiek (*fede-atarikoak* izan ezik) ezin dira arrazoimenaren bidez ezagutu; ulertezinak dira gizakiarentzat, haren arrazoimenaren ahalmena gainditu egiten baitute. Bide hori, ordea, Jainkoarengandik zuzenean etorria izanik, zehatza eta guztiz argia da; beraz, bere baitan ezin da okerrik gertatu.
- Alabaina, filosofia eta teologia, arrazoimenaren bidea eta fedearen bidea, autonomoak eta buruaskiak badira ere, bada bide batetik zein bestetik ezagut daitekeen egien multzoa. Egia horiek, *fede-atariko* deituak, errebelatu egin zaizkio gizakiari; beraz, sinetsi egiten ditugu. Baina, aldi berean, giza arrazoimenak badu horiek ezagutzeko gaitasuna, Jainkoaren existentzia eta arimaren hilezkortasuna ezagutzekoa, besteak beste.



San Tomasen ustez, bideen aniztasun hori ez da alferrikakoa, eta azterketari eta demostrazioari lan garrantzitsuak dedikatu zizkion (*Summa contra gentes* liburuan, adibidez). San Tomasen aburuz, **jarduera filosofikoa ezinbestekoa da**; gainera, sinesmenari eta teologiari lagundu egiten die:

- Hainbat egia arrazoimenez baino ezin da ezagutu, Jainkoak ez baitu bide horren bidez ezagut dezakegun gehiena errebelatu.

- Filosofiak indartu egiten du sinesmena, egokiagoa baita ulermenez hornitua sinesmen soila baino.
- Zenbaitetan, arrazoimenak bere indar hutsez ulertu ezin duena gutxienez arrazoimenaren aurkakoa ez dela froga dezake, eta horretan saiatu behar du.
- Gainera, teologiatik sortutako arazoak argitzen saiatu behar du.

Baina, horrez gain, San Tomasek uste zuen positiboa dela gizakiaren arrazoimenak uler ez ditzakeen gaietan saiitzea, ahalegin horretan lortuko dituen emaitzak eskasak izango direla jakin arren. Zergatia *Summa contra gentes* testuaren VIII. atalean azaldu zuen. Gizakiak Jainkoaren esentzia arrazoimenaren bidez ezagutzeko gaitasunik ez badu ere, honela dio San Tomasek: «... Probetxugarria da, hala ere, giza adimena arrazoimen ahul horietan ahale-gintzea... Oso atsegina da goi-mailako gauzak zertxobait ulertzea, arrazoimen txiki eta ahul baten bidez bada ere».

Sinesmena eta teologia ere ezinbestekotzat zituen Akinoko pentsalariak. Bi dira argumentu nagusiak:

- Hasteko, giza arrazoimenak ez duelako Jainkoak errebelazioz ezagutarazi dizkigun hainbat egia aurkitzeko ahalmenik. Jainkoaren hitza sinesten dugulako ezagutzen ditugu.
- Bestetik, teologia lagungarri gertatzen zaiolako filosofiari. Beraz, ez du onartzen giza adimenak ulertzerik ez duena sinestera ematea alferrikakoa denik, eta horixe dio *Summa contra gentes* V.ean: «... gizonarentzat beharrezkoa dela fedearen bidez arrazoimena gainditzen duten egia eskaintzea». Jarraian argitzen du zergatik: «izan ere, inork ez du zerbaitetarako joera edo nahia izaten aurretik ezaguna ez badu». Hori da teologiak filosofiari laguntzeko era: aldeztu aurretik filosofiaren beraren aztergaia aurkeztu egiten dio; helmuga sinesmenaren bidez ezaguna duenez, filosofiak badaki nora heldu behar duen; eta, horrela, arrazoimenaren abiapuntutik egia horretara iritsi arteko pausoak erraztu egiten ditu. Hori gertatzen zaio, adibidez, Jainkoaren existentzia sinesmenez ezagutzen duen filosofoari: Jainkoaren existentzia aldeztu aurretik ezagututa, arrazoimenaren bidez horren demostrazioari ekin diezaioke gero. Hortaz:
 - Sinesmena egia-irizpidea da arrazoimenarentzat. Inoiz kontrako emaitza edo ondorioetara iritsiz gero, arrazoimenak bere bide zailean eta nahasian okerren bat izan delako izango da. Kasu horretan, akats bat dagoela erakusten dio sinesmenak, berriro ere bide zuzenera jotzeko aukera emanez.
 - Sinesmenak sorrarazten dio gizakiari goi-mailako gaiekiko (Jainkozko gaiekiko) gogo eta nahia. San Tomasen ustez, gainera, «... hori kristau-erlijioak bakarrik duen zerbait da, kristau-erlijioak bereziki agintzen (eskaintzen) baititu espirituaren ondasunak betiko» *Summa contra gentes*, V-18. Sinesmenez ezagutzen ditugu mundu honetatik haraindi dauden ondasunak, senti daitezkeenak baino garrantzitsuagoak direnak gainera. Sinesmenak beste hiru onura dakartza (ikus *Summa contra gentes*, V-26 eta hurrengoak):
 - Jainkoa guk ezagut dezakegun guztia baino handiagoa dela ohartzea.
 - Gizakia umilagoa bilakatzea, uler ez dezakeena ere badela ohartzen baita.
 - Gutxi ulertuta ere, ulertutako gutxi hori guztiz maitagarria bihurtzea gizakiarentzat.

Elkarri laguntzen dioten arren, jarduera filosofikoa teologikoaren mendekoa da. Batetik, teologia zuzena eta argia da; beraz, ez dezake okerrik egin edo hutsunerik izan. Bestetik, egia-irizpidea berarengandik kanpo duen arren, filosofia adimen-indar hutsez egina dago; eta, beste filosofiak bezala, harriduratik abiatzen da, eta harridura sortzen dizkieten gaiak ezagutu nahi

ditu, eta baita osoki jakin nahi ere azken kausak. Baina gauza guztien azken kausa Jainkoa denez, Jainkoaren azterketa —munduko gauza guztien azken kausaren azterketa— bilakatuko da filosofia.

San Tomasek bi bide horien beharra baieztatu zuen *fede-atariko* egiak ezagutzeko. Bide bakoitza bere aldetik nahikoa litzateke, baina horrek ez du esan nahi ez bata eta ez bestea alferrikakoak direnik. *Summa contra gentes* idazlanaren IV. atalean galdera honi erantzun zion: egia horiek arrazoimenaren bidez ezagutzera iristeko gai bada gizakia, zergatik errebelatu dizkio Jainkoak? Ez al da alferrikakoa egia horiek errebelatzea?

San Tomasek erantzun zuen ez dela alferrikakoa, ezinbestekoa baizik. Arrazoimenaren bidearen aukera bakarrik izanez gero, hiru eragozpen topatuko lirateke:

- Pertsona askok egia horiek ezagutzera iristeko aukerarik ez luke izango: batzuek, ezintasun intelektualaren ondorioz; beste batzuek, lanpeturik daudelako; eta beste batzuek, nagikeriaz.
- Gainera, arrazoimenaren bidea luzea eta zaila da; beraz, pertsona gehienak oso berandu iritsiko lirateke egia horiek ezagutzera.
- Azkenik, bidea nahasia denez, hainbat ikuspegi eta iritzi egongo lirateke jakintsuen artean, eta ez genuke egia modu garbian ikusiko.

Jainkoak egia horiek pertsona guztien eskura era argi eta garbian egotea nahi zuenez, errebelazioz ere ezagutzea nahi izan zuen, arrazoimenaren bidearen aukeraz gain.

San Tomasentzat, filosofiaren helburua unibertsoaren ordenaren ulermen osoa jasotzea da. Unibertso osoa islatu nahi du bere adimenean eta ariman, eta ordena horren azken kausak ezagutu. Hori lortzean, gure arimak mundu honetako beste *kreatura* guztiak gaintitzen ditu, horiek ez baitute ordena hori inolaz ere ulertzen. Ezagutza horren bidez, espiritu jainkotiarren partaide egiten da giza arima.

Ezagut daitekeen unibertsoaren ordena hori hirukoitza da:

- Gauzen ordena, naturaren ordena; alegia, errealitatearena. Ordena hori hainbat diziplinatan aztertzen da:
 - Fisika (filosofia naturala).
 - Matematika.
 - Metafisika.
 - Gauzak izatea diren aldetik.
 - Jainkoaren azterketa (Izate Guztizkoa).
- Pentsamenduaren ordena:
 - Logika (pentsamendu zuzenaren azterketa).
- Borondatearen ordena. Giza ekintzen azterketa:
 - Indibidualak (Etika, Morala).
 - Kolektiboak (Politika).

Jakintza filosofikoak alderdi horiek guztiak hartzen ditu, eta haien azken kausa jakin nahi du. Eta azken kausa hori Jainkoa denez, filosofia gai horretatik abiatuko da. Azken kausa horren ezagutza eta haren existentziaren demostrazio filosofikoa **beharrezkoa** da, Jainkoaren

existentzia ebidentea ez delako; gizakiak ez du era naturalean, jatorrizko ezagutza moduan, Jainkoaren edo infinituaren kontzeptua. Eta **posiblea** da, gizakia irits baitaiteke Jainkoaren existentzia frogatzera, gauza sentigarrietan oinarrituta.

2.2.3.3. Metafisika: Jainkoaren existentziaren frogak

Aristotelesen pentsamenduari jarraituz, San Tomasentzat *izatea* da kontzepturik unibertsa-lena. Izatea gauza guztiez predika (esan) daiteke. Badiren errealitate guztietan dago, denetan aurkitzen da, eta horregatik, ez da ezerekin nahasten.

Baina izate guztiak ez dira berdinak. Batzuek ez dute beregan beren existentziaren justifikaziorik, haien existentzia ez da beharrezkoa. Izatedunak diren arren, gerta zitekeen ez izatea. Izatedunak dira, baina beste batengan dute beren existentziaren kausa. Horiek izate **kontingenteak** dira.

Izate beharrezkoak, berriz, beregan du bere existentziaren justifikazioa. Existentzia ez dio ez beste inori, ezta ezeri zor, eta ezinezkoa zaio ez izatea. San Tomasek *izate beharrezkoaren* existentzia arrazionalki frogatu nahi izan zuen, eta baita existentzia hori nahitaezkoa dela ere, *izatearen* azterketa eginez.

Izatearen kontzeptua bi zentzu nagusitan ematen da: **esentzian** eta **existentzian**. Biak dira *izate* kontzeptuaren moduak, desberdinak dira, eta izate kontingenteetan ez dira batera eman behar nahitaez. Izate kontingenteen esentziatik ez da ondorioztatzen nahitaez izate horren existentzia beharrezkoa denik. Jainkoarengan, berriz, esentzia eta existentzia batera doaz, Jainkoaren esentziaren ezinbesteko ezaugarria baita haren existentzia.

Eta izate beharrezkoaren, Jainkoaren existentzia frogatzeko, kausen teoriaran oinarritutako bost argudio erabili zituen: **bost bideak** Hori da Metafisikaren hasieran planteatu zuen gai nagusia, eta **teologia natural** deituko dio. Adimenaren indar hutsez aritu zen demostrazio hori egin nahian, errebelazioa alde batera utzita.

Bost argudio horietariko bakoitzean, hiru elementu ageri dira beti:

- Abiapuntua: zentzumenez jasotzen dugun errealitate sentigarri bat bada; hau da, froga bakoitza behaketa enpirikoz hasten da.
- Errealitate horren azalpena (kausa) ez dago bere baitan, berarengandik kanpoko beste zerbaitetan baizik. Horretatik abiatuta, serie kausal bat dago.
- Serie kausal horri jarraituta, Lehen Kausa (Jainkoa) aurkitzen da nahitaez, beharrezkotasunez. Ez daiteke Lehen Kausarik ez izatea.

BOST BIDEAK

1. Mugimenduaren froga

- Munduan mugimendua dago.
- Mugitzen den guztia beste batek mugitzen du; mugimenduaren eragilea berarengandik kanpo aurkitzen da. Baina ezerk ez du berarengan bere mugimenduaren arrazoia; ezinezkoa baita mugitua izatea eta, aldi berean, mugimenduaren sortzailea izatea. Beraz,

beste batek mugitzen du; eta hori, hirugarren batek; eta hori, laugarren batek; eta horrela, behin eta berriz; azkenean, kausa higitzaile serie bat gertatzen da.

- Kate hori ezin da infinitua izan (ezerk ez baitezake eman berak ez duenik); beraz, (den) lehen kausa higitzaile batek izan behar du abiapuntua, beharrezkotasunez. Ondorioz, bada **lehen kausa mugikorra**, erlijioek Jainko deitzen diotena, higitzailea baina ez higitua.

2. Kausa eragilearen (sortzailearen) froga

- Munduko gauza guztiak existitu egiten dira, une zehatz batean sortu direlako.
- Baina ezer ez da bere existentziaren kausa; ezerk ez du bere burua sortzen. Horrela gertatzeko, bera existitu baino lehenagoko existentzia izan beharko luke; eta hori ezinezkoa da. Beraz, existitzen den edozer objektuk kausa sortzaile bat behar du; eta horrek, beste bat; eta horrek, beste bat; eta horrela, kausa sortzaileen serie bat gertatzen da.
- Kate horrek ezin du infinitua izan. Abiapuntu edo hasiera batek izan behar du, nahitaez, lehendabiziko sortzailea. Ondorioz, bada **lehen kausa sortzailea**, erlijioek Jainko deitzen diotena, sortzailea baina ez sortua.

3. Kontingentiaren froga

- Errealitatearen objektuak eta izateak, existentzia duten arren, ez dira beharrezkoak (badira, baina ez dute nahitaez existitu behar): kontingenteak dira. Bere baitan esentzia (*direna*) eta existentzia (*badirela*) ez datoz bat. Existitzeko aukera dute, baina horrek ez du esan nahi gauzatu behar duenik.
- Baina izate horien guztien jatorria diren kausak ere kontingenteak dira; hau da, kausa horiek badira, baina horiek ere kontingenteak dira; eta azken kausa horien kausak ere kontingenteak dira; eta horrela, behin eta berriz, kausa kontingenteen kate bat gertatzen da.
- Kausa kontingenteen katea ez daiteke infinitua izan. Hau da, kontingentea ez den lehen kausa batek izan behar du, nahitaez; gainerako guztiak izateko beharrezkoa den kausa. Ondorioz, bada **lehen kausa beharrezkoa**, erlijioek Jainko deitzen diotena, kausa kontingente guztien jatorria dena.

4. Perfekzio-mailen froga

- Izakiek perfekzio-maila desberdinak dituzte (edertasunean, egokitasunean, moralitatean...), eta horietako bakoitza neurri handiagoan edo txikiagoan hurbiltzen zaio perfekzioari.
- Perfekzio-maila zehatz bat ez daiteke perfekzio-maila txikiagoa duen kausa batetik etorri, alderantziz baizik: perfekzio-maila zehatz horrek perfekzio-maila altuagoa duen kausa batetik etorri behar du, nahitaez, ezerk ezin baitu ez duena eman. Eta azken kausa horren perfekzio-maila ere, oraindik perfektuagoa den beste kausa batetik; eta azken hori, beste kausa perfektuago batetik. Kausa perfektuagoen serie edo kate bat gertatzen da, beraz.
- Baina gero eta perfekzio-maila altuagoa duten kausen kate hori ez daiteke infinitua izan, eta perfekzio guztien iturria den lehen kausa perfektu batek izan behar du, ezinbestez. Ondorioz, bada **lehen kausa perfektua**, erlijioek Jainko deitzen diotena, perfekzio guztien jatorria eta iturria dena.

5. Munduaren ordenaren froga

- Munduko izaki guztiek helburu bat dute (denek dute kausa final bat, helburu bat). Izaki adimentsuetan nabaria den hori berdin gertatzen da adimenik gabekoetan ere, helburu hori konturatu gabe betetzen bada ere.
- Helburu hori betetzen da horrela —ordena zehatz horren arabera—, gertarazten duen kausa bat badelako. Kausa horrek ezagutzen du bere ondorioa den horren helburua. Eta berdin gertatzen da horrela gertarazi duen kausa ordenatzailearekin: horrek ere badu bere helburua ezagutzen duen kausa ordenatzailea; eta azken horrek ere badu berea; eta horrela, behin eta berriz. Beraz, munduaren ordena kausa ordenatzaileen kate edo serie baten ondorioa da.
- Baina kausa ordenatzaileen serie hori ezin daiteke infinitua izan. Serie horrek munduaren ordenaren lehen kausa ordenatzaile bat izan behar du, derrigorrean. Ondorioz, bada **lehen kausa ordenatzailea**, erlijioek Jainko deitzen diotena, munduaren ordena guztia jatorria eta iturria dena. Kausa horrek, gainera, bere ondorio guztien helburua ezagutzen du, ordena hori berak ezarri baitu. Horregatik, Jainkoa adimentsua dela esan daiteke.

Bost argudio edo bide horietatik, orokorrean, honako ondorio hauek atera zituen San Tomasek:

- Arrazoimenaren erabilera hutsez, lehen kausaren edo Jainkoaren existentzia hainbat aldiz demostratu da, fedearen bidea alde batera utzita.
- Bost bideei esker, lehen kausa horren existentzia ezagutzen dugu, baina ez bere esentzia. Hau da, badakigu Jainkoa badela (existentzia), baina ez nolakoa den (esentzia).
- Dena den, eta apur batzuk baino ez badira ere, bost bideek Jainkoaren izaeraren ezaugarri batzuk ezagutzera ematen dizkigute; esaterako, Jainkoa gauza guztien sortzailea denez, mundua ezerezetik sortu zuela, aurretik *lehen gairik* izan balitz, ez baitzen denen sortzaile izango. Era berean, jakin dezakegu munduaren sorrera ekintza guztiz librea dela eta Jainkoarengan ez duela inongo eraginik ere, higitzaile ez-higikorra delako. Dena den, sortze hori ekintza iraunkorra da San Tomasentzat, egunero gertatzen ari da; eta hasierako sorkuntza bezain handia da. Mundu honetako sortutako (*kreatura*) guztiek beren existentzia uneoro jasotzen dute *partaidetzaz*.
- San Tomasek dio ezin daitekeela arrazionalki jakin mundua noiz sortu zen. Errebelazioak gertatu zela esaten digun arren, filosofiaren (arrazoimenaren) indarrez ez dugu jakiterik betikoa ote den ala memento zehatz batean gertatutakoa den.
- Bestetik, froga horien bidez, Jainkoa munduaren kausa dela jakin dezakegu zentzu bikoitzean:
 - Kausa eragilea da.
 - Kausa imitagarria (perfekzio-iturria baita)

2.2.3.4. GIZAKIA

San Tomasek gizakiaz zuen ikuspegia San Agustinen ikuspuntutik oso urruti dago, Aristotelesarenarengana gehiago gerturatu baitzen, kristautasunaren eraginez ezarritako aldaketak nabariak diren arren.

San Tomasentzat, gizakia materiaz eta formaz osatutako batasun substantziala da, substantzia bat (errealitate bakarra). Substantzia bakun horren barruan, gorputza gizakiaren materia da, eta arima, berriz, forma. Arimak ematen dio gorputzari bizia, materiari gizaki-forma ematen dio. Arima, pentsamenduaren printzipioa, gizakiaren forma substantziala da.

Aristotelesentzat, materia eta forma horiek batera ematen dira: ez dago formarik gabeko materiarik, eta ezta materiarik gabeko formarik; ezinezkoak dira berezita. Horregatik, hain zuzen ere, giza arima hilkorra dela zioen: ezin dezake gorputzik gabe existitzen jarraitu.

San Tomasentzat, ordea, giza arima, animaliena ez bezala, *forma subsistentea* da —bizirik irauten duena—; hau da, materiarekin (gorputzarekin) batera ematen bada ere, eginkizun propioa du, pentsatzea; eta gorputzak ez du horretan parte hartzen. Arimarena besterik ez den eginkizun hori materiatik aparte burutuz joaten da. Horregatik, haren ustez, gure arima materiagabea da, ez dago materiaz eta formaz osaturik, espiritu soila da (*mens*). Materiagabea denez, ustelezina da, eta, ondorioz, hilezkorra. Horregatik, gorputzetik at bizi daiteke; existitzen jarraitzen du, gorputza hiltzen denean. Arima ez daiteke, beraz, deskonposatu, eta Jainkoak bakarrik suntsi dezake. Dena den, gorputza bizi den bitartean, bien arteko lotura eta mendekotasuna handia da, San Tomasen ustez.

Platonek eta San Agustinek ez bezala, San Tomasek giza arima substantzia bakartzat zuen. Haren ustez, gizakiarengan ez dago arima desberdinik edo atalak dituen arimarik. Arima bakar horrek honako funtzio hauek betetzen ditu:

Gorputzarekin konpartitutakoak:

— Funtzio organikoak:

- Sentikortasuna.

— Arimari berezkoak zaizkionak (gorputzak parte hartu gabe):

- Ezagumena: gauzen forma edo esentzia ulerkorak jasotzeko ahalmena.
- Borondatea: arimak, askatasunean, *ongia* desiratzeko duen ahalmena.

Bi funtzio horien artean, San Tomasen ustez, ezagumena borondatearen aurretik doa: arimak zerbait desiratzen du, baldin eta aldeztu aurretik ezagutzen badu eta ontzat hartzen badu. Honela dio *Summa contra gentes*, V-10ean: «... inork ez du zerbaitetarako joera edo nahia izaten, aurretik ezaguna ez badu».

Gizakia, arimaren fakultateak garatzen dituen heinean, berezkoa zaion helburua betetz joango da: maila goreneko ezagutza lortzea, hau da, Jainkoa ezagutzea. Helburu horri zuzenduko zaizkio, beraz, giza jarduera nagusiak: etika, politika eta ezagutza.

2.2.3.4.1. Etika

San Tomasen etika Aristotelesen etikaren markoan ulertu behar da, baina beste abiapuntu bat du: kristautasunetik abiatu zen, San Agustinen ikuspegitik, bereziki.

Aristotelesek bezala, munduko gauza guztiek helburu bat dutela pentsatzen du San Tomasek, eta helburu hori betetzera jotzen dutela etengabe. Hori nabaria da adimenik gabeko landare eta animalietan, baina, hain nabaria ez izanagatik, gizakiengan ere era berean ematen da.

San Tomasentzat, unibertsoan Jainkoak ezarritako lege unibertsala dago, eta lege horrek munduko fenomeno guztiak erregulatzen ditu, lege fisikoen bitartez. Lege unibertsal hori betierekoa eta aldaezina da, eta mekanikoki behartzen ditu mundu honetako objektu guztiak, lege horren zergatia eta noranzkoa ezagutzen eta ulertzen ez badute ere. Jainkoak ezarria denez, lege unibertsalak *ongira* jotzen du.

Gizakia lege unibertsal eta natural horren partaide da, eta haren mende dago. Gainerako izakiak bezala, gizakiak ere parte hartzen du *ongia* den helburu unibertsal horretara jotzean. Mendekotasun hori erabatekoa da gorputzari dagokionean, baina arima ez dago era berean behartuta. Giza arimak erabaki dezake lege horri jaramon egin ala ez (ongi jokatu ala ez), librea baita. Gizakiak beregan du erabakimena.

Aske izateak, beraz, aukera ematen dio gizakiari *ongia* aukeratzeko, hau da, lege unibertsalaren arabera jokatzeko. Baina, horretarako, ezinbestekoa du Jainkoak ezarritako lege unibertsala ezagutzea, arimari dagokion alderdia (*lege moral naturala*). Ezagutza hori berezkoa du gizakiak, *kontzientzia moralaren* bitartez, jatorrizkoa baita. Lege natural hori gure izaeran ezarrita dago, adimenik gabeko izakiek beren helburua *idatzita* duten bezala. Eta gizakiaren berezko izaera arrazionala denez, arrazionalki deduzitu beharko ditu jokabidea bideratzeko arau moralak. Horrela, San Tomasek arau horiek lau mailatan zehaztu zituen:

1. Gizakiok biziraupenerako joera dugu. Horretan oinarrituta, biziraupen senaren aurka doana, gizakiak berezkoa duenaren aurka doanez, lege moral naturalen aurkakoa da. Ondorioz, lege moral naturalen aurkakoak dira, besteak beste, homizidioa, suizidioa eta eutanasia.
2. Gizakiak, bizirik dagoen gorputzaren jabe den heinean, ugaltzeko joera du. Sen horretatik eratorritik dira sexualitateari eta seme-alaben zaintzari buruzko betebeharrak moralak. Beraz, ugalketa oztopatzea edo seme-alabak behar bezala ez zaintzea lege moral naturalen aurkakoak dira.
3. Gizakiak egia ezagutzeko berezko joera du, alderdi moralean eta baita gainerako arlo guztietan ere. Horregatik, gezurra esatea lege moral naturalen aurkakoa da.
4. Gizakia animalia soziala da; hau da, gizartean bizitzeko joera du. Hortik eratorritik dira besteenganako errespetuzko arauak, eta arau horien aurka joatea lege moral naturalen aurka joatea da.

Tomas Akinokoaren ustez, gure kontzientzia moralean *idatziak* ditugun lege moral natural horiek bat datoz Jainkoak Moisesi errebelatutako hamar aginduekin, gutxi gorabehera.

Dena den, lege naturalak ez du xehetasun handirik. Printzipio orokorrak besterik ez dira, eta lege positiboen bidez garatu behar dira. Kontuan hartu beharko da, jakina, lege positiboek ezin dutela lege naturalaren aurkako agindurik eman.

Lege unibertsala *Jainkoarenganako mugimendu arrazionala da*, Jainkoak gizakiari ezarritako helburua betetzera eramaten duelako; baina gizakiaren onarpen arrazionala eskatzen du. Eta lege unibertsalak gizakiaren garapen osoa dakar. Hori da gizakiaren helburu nagusia, zoria, Jainkoa ezagutzea.

2.2.3.4.2. Politika

Aristotelesek esan zuen gizakia animalia politikoa dela, hau da, hirian besteekin elkartu eta bizitzeko joera duen izakia. Tomas Akinokoak ikuspegi bera zuen: «naturala da besteekin batera gizartean bizitzea».

Gizakia naturalki gizartean integratzen da, baina gizarte horrek gizakiarentzat egokia izan behar du, gizakiaren zerbitzuan egina behar du, eta ez alderantziz. Beraz, **estatu**a giza naturan oinarritutako erakundea da; estatuaren eginkizuna gizakiari bizitza zuzena eta egokia eskaintzea da, eta bakea eta ongizate kolektiboa ezartzea.

San Tomasen iritziz, ezinbesteko behar naturala da gizakiaren bizitza eraketa sozial batean egituratua egotea, eta gobernatuko duen aginte bat izatea; lege naturala da. Hortaz, horien sorrera jainkotiaria da, lege naturalaren beste adierazpen guztiekin gertatzen den bezala. Baina lege naturalaren gauzatzea eta antolaketa konkretua gizakien arazoa da, eta gizakiek erabaki behar dute.

San Tomasek, dena den, hainbat gobernu mota aztertu zituen, eta, guztien artean, egokiena monarkia iruditu zitzaion; herriaren parte-hartze zabala eskaintzen duen monarkia moderatua, betiere. Gobernu mota txarrena, ostera, tirania zela uste zuen. Dena den, tiraniaren aurkako indarkeria ez zuen onartzen, onurak baino kalte handiagoak ekarriko zituelakoan.

Haren ustez, gizabanakoak ez ditu bi helburu (bata, bizitzakoa; eta bestea, bizitzaren ondorengoa), bakarria baizik, eta bizitzaren ondoren bakarrik gauza daiteke: Jainkoaren kontentplazioa. Horrek politikan ere ondorio batzuk ditu:

- Batetik, estatuak elizaren mende egon behar du, haren aginduetara; estatuak esparru propioa badu ere, Elizaren morroi izan behar du.
- Bestetik, aginte zibilak erlijio-erantzukizunak ditu. Gizakiaren helburua betearaztea da Elizaren eginkizun nagusia, baina estatuak ere behar diren baldintzak eta bitartekoak jartzen lagundu behar du, eta ezin du helburu hori betetzeko eragozpenik jarri edo onartu. Hortaz, lege positiboa ezin da lege naturalen aurkakoa izan.

2.2.3.4.3. Ezagutza

Pentsamendu tomistaren arabera, ezagutzaren bitartez giza arimak unibertsoaren ordena islatu eta jaso dezake. Jarduera horrekin, munduko beste *kreatura* guztiak gainditzen ditu, eta espiritu jainkotiarraren partaide egiten da.

Aristotelesen planteamenduari jarraituz, Tomas Akinokoak pentsatzen zuen ezagutza guztiak zentzumenetan hasten direla. Ezagutza sentigarri eta konkretu horretatik abiatuta lortuko du gizakiak ezagutza unibertsala eta adigarria, abstrakzio-prozesu zehatz bati jarraituz. Beraz, adimenean ez dugu jatorrizko ideiarik; aldezturik, ezagutzeko potentzia hutsa da —*tabula rasa*—, eta zentzumenetatik datozen datuez baliatu beharra dago ezagutzaren prozesu intelektuala burutu ahal izateko. Datu horiek, ordea, ez dira nahikoak; ez dira ezagutza, eta adimena- ren jarduera behar da objektuen forma substantziala ezagutzeko.

Abstrakzio-prozesua honako pauso hauetan gertatuko litzateke:

1. Zentzumenek objektu konkretuen irudi sentigarria jasotzen dute, eta, jarraian, irudime- nean gordetzen da: *espezie sentigarria*. Irudia ez da objektua bera (ez du materiari- k), baina objektuaren indibidualtasunaren ezaugarriak mantentzen ditu.
2. Adimen eragileak, bere abstrakzio-ahalmenez baliatuz, *espezie sentigarritik* ezaugarri indibidualak ezabatzen ditu, eta *espezie adigarri impresa* sortzen du. *Espezie impresa* ezagutza unibertsalaren potentzia da, baina oraindik ez da ekintza bilakatu.

3. Adimen eragileak adimen pasibora pasatzen du espezie inpresa, eta *espezie adigarri expresa* eratzen du. Hori **kontzeptua** da, espezie bereko indibiduo guztien esentzia erakusten diguna, eta zientziaren eta filosofiaren oinarria.
4. Azkenik, kontzeptuez baliatuz, mundu honetako objektuetara jotzen du adimenak, kontzeptuak partikularrei aplikatzen dizkio, eta horrela modu egokiagoz ezagutzen ditu, formaz baliatuz egiten baitu.

Jainkoaren adimenak ez bezala, giza adimenak ez du objektu bat bere osotasunean ekintza bakar batez ezagutzeko ahalmenik. Aitzitik, ekintzen serie kontsekutibo bati ekin behar dio, eta objektu horren ezaugarriei buruzko judizioak (pentsamenduak) sortu, eta, judizio horiez baliatuz, arrazonamenduak eratuz joan. Arrazonamendu horietan huts egiteko aukera dago. Horregatik, hain zuzen ere, giza adimenak akatsak egin ditzake arrazonamenduak egitean. Baina Jainkoaren adimena hutsezina da, dena bere osotasunean ezagutzen duelako.

2.2.4. IRAKURGAIA: *Summa contra gentes*

San Tomasek 1258. urte inguruan idatzi zuen lan hau. Liburuak egia kristauaren defentsa egiten du, sinesten ez zutenen akatsen aurka; hau da, musulmanen eta juduen artean predikatzeke balioko zuten argudioak eskaini nahi izan zituen. Estilo argia eta ordenatua du: lehendabizi, defendatzen duen tesia aurkezten du; gero, argudioen bidez defendatzen du; ondoriora iritsitakoan, Bibliatik jasotako aipu batez bukatzen du.

Giza arrazoimenak zenbait egia ulertzeko duen ezintasuna azaltzen du. Era berean, beste hainbatez jabetzeko gaitasuna izan arren, nolako zailtasunak eta eragozpenak izaten dituzten gehienek. Horregatik, Bibliaren bidez agertu behar izan zituen Jainkoak. Egia arrazionalen eta fedezkoenen arteko aurkaritzarik ez dagoela defendatu zuen, beste aditu batzuen iritziaren aurka. Kristautasunak eskaintzen dituen onurak eta beste erlijioekin dituen ezberdintasunak ere aurkeztu zituen. Azkenean, garaiko gai nagusiari buruz aritu zen testu honetan: giza arrazoimenaren eta fedearen arteko harremana.

Kant

3

3.1. KANTEN GARAIA: ILUSTRAZIOA

Ingalaterrako Iraultzaren (1688) eta Frantziako Iraultzaren (1789) arteko garaiari deritzo Ilustrazio; XVIII. mendea ia osorik, beraz. Gizakian zentratzen den bizitza-ikuspegi zabala eta berria da. Ilustratuek gizakiaren berezko baliabideetan fede handia izan zuten; horregatik, tradizioaren mendekotasun sozialak, politikoak eta erlijiosoak baztertu nahi izan zituzten, baliabide horien bidez (arrazoimena, zientzia) natura menderatu eta bizitzako arazoak konponduko zituztelakoan.

XVIII. mendeko pentsalarientzat, gizadia oraindik ez zen heldutasunera heldu. Presokratikoak azalpen mitikotik askatzen hasi, eta gauzen esplikazio arrazional bat aurkitu nahi izan zuten. Askatasunaren bila ibili ziren Errenazimentuan eta baita arrazionalismo-garaian ere; baina gizadiak ilunpean jarraitzen zuen, eta argitasuna (iluminazioa, ilustrazioa) behar zuen, hainbeste mendetako iluntasunetik ateratzeko.

Ilustrazioa, orokorrean, oso mugimendu baikorra izan zen, arrazoimenean erabateko konfiantzan errotuta baitzegoen. **Aurrerakuntza** lortzeko eragile nagusiak **zientzia** eta **hezkuntza** ziren; eta horien bidez, gizakia mundu honetan zoriontsu izatera eramango zutela usten zuten.

3.1.1. EGOERA SOZIOPOLITIKOA

Garai osoan, Antzinako Erregimenaren kontrako mugimendu ugari izan zen. Antzinako Erregimena erregetza absolutuaren ondorioz sortutako gizarte-eredua zen, gremio-gizarte klasista; nobleziaren eta goi-kleroaren pribilegioak mantentzen ziren, eta erregea estatua- ren jaun eta jabe bihurtu zen, Erdi Aroan banatuta egon ziren aginteak elkartzearen ondorioz (adierazle argiena, Luis XIV.a Frantziakoa).

Ilustrazioaren ideiak Ingalaterratik zetozen. Enpirista ingelesak izan ziren ideia horien sortzaileak. Ingalaterrako egoera eta kontinentekoa desberdinak ziren. Erregearen agintea ez zen beste estatuetan bezain handia, nobleziak eta burgesiak legebiltzarra indartu baitzuten. Tolerantzia-giro horretan, politika-teorialariak sortu ziren (Locke eta Newton, guztien gaine- tik). Horien ideia aurreratuenek izan zuten eragin handiena Europan.

Kontinentera pentsalari frantziarren bidez iritsi zen Britaniar uharteetako joeren oihartzuna. Ilustratuak oso kritikoak ziren garaiko egoerarekin, besteak beste, Voltaire, Montesquieu, Rousseau... Dogma guztiak zalantzan jartzen zituzten; dena arrazoimenearen ikuspegitik esplika- tu eta antolatu behar zela zioten. Hala ere, elite bat besterik ez ziren, jende gehienak hez- kuntzarik jasotzeko inolako aukerarik ez baitzuen. Nahiz eta haien ideiak oso kritikoak izan, kultura-maila altuko giroetan oso eragin handia izaten hasi ziren (noblezia, burgesia aberatsa, kleroa...). Filosofo ilustratu horiek errege-gorteetara gonbidatzen zituzten, eztabaidetan parte hartu eta hitzaldiak emateko. Eta, denbora laburrean, gorteak haien ideiez bete ziren. Aipatzekoa da eragin handiena, zenbait kasutan, erregearengan izan zutela. Errege horiek agin- te osoa mantendu zuten; baina, aldi berean, ideia ilustratuak onartu eta gauzatu nahi izan zituz- ten. Fenomeno hori **Despotismo Ilustratu** izenarekin ezagutu zen geroago. Eta hona haren goiburua: «dena herriarentzat, baina herririk gabe» (Lockerren eragina nabaria da. Haren ustez, gizartea aldatu ahal izateko, indar guztiak batu behar dira, eta egokiena botere guztia erregea- ren eskuetan jartzea litzateke).

Horixe da Prusiaren kasua, adibidez. Hango noblezia ez zen kultua, eta burgesiak ez zuen ia indarririk. Frederiko II.ak Ilustrazioaren ideiak ezagutzen zituen, eta laguntzaile ilustratuz inguratu zen. Baina nobleziaren eta burgesiaren laguntzarik izan ez zezakeenez, bakarrik

governatu behar zuen. Egoera horretan, Ilustrazioaren ideiak aplikatzen saiatu zen, aginte osoa bere eskuetan zuela.

Herri xumea oraindik ordena feudalean bizi zen estatu gehienetan. Herriaren mugimendua ez zen nabaritzen hasi XVIII. mendearen bukaera arte, Ilustrazioari esker hezkuntza zabaltzen hasi zen arte. Frantzia, Iraultzak Ilustrazioaren ideiak hartu zituen. Bastilla uztailearen 14an hartua izan ondoren, Biltzar Nagusiak 1789ko abuztuaren 26an onartutako *Gizakiaren eta Herriaren Eskubideen Adierazpena* da ideia horien isla.

3.1.2. ILUSTRAZIOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Ilustrazioak erabateko konfiantza du gizakiarengan, Erdi Aroko iluntasunetik eta haren mendekotasunetik askatu ondoren. Ilustratuak ziur zeuden gizakiak lanean jarri ahal izango zuela, inolako trabarik gabe, izatezkoa, berezkoa duen tresna: **arrazoimena**. Ziur zeuden arrazoimena behar bezala erabiliz gero, naturaren kontrola eta erabilera teknikoa, eta gizakiaren eta gizartearen hobekuntza morala eta politikoa eskuratuko zuela.

Arrazoimenaren kontzeptio berria

Ilustratuek ez zuten ontzat ematen arrazionalisten ezagutza-metodoa, metodo matematikoen eredua (arrazoimen deduktiboa, jatorrizko ideietan oinarrituta). Ilustratuen ustez, zentzumenetako esperientzia ere kontuan hartu behar da. Arrazoimena bai, baina **arrazoimen enpirikoa**. Ordutik aurrera, zientziaren norabide berria gero eta izaera deskriptiboagoa izan zen, eta gero eta gutxiago esplikatzailea.

Bestalde, **arrazoimena kritikoa da**; hau da, ez du ezer ontzat emango aldez aurreko azterketa edo *analisi* egokia egin gabe. Hori ez da filosofia edota zientziaren esparrura mugatzen; politikari eta erlijioari ere kritika arrazionala egiteko aukera aldarrikatu zuten (Kantek, esaterako, garbi utzi zuen gai erlijiosoak eta politikoak publikoki kritikatzeko askatasuna aurrerapenerako ezinbesteko baldintza dela). Baina arrazoimenaren kritika horrek bere buruarekin hasi behar zuen (**arrazoimen autokritikoa**). Lehendabizi, arrazoimenak bere ahalmenak aztertu behar ditu: bere mugak bilatu eta zehaztu. Arrazoimena ez da ahalguztiduna, arrazionalistek zioten bezala; mugatua da, eta ez dezake bere mugaz harantzago dagoena jaso.

Horrez gain, arrazoimen ilustratua **autonomoa** da: ez dago inolako erakunderen mende, ez erlijioso, ezta zibila edo zientifikoa ere. Autoritate guztietatik aske, bere buruaz baliatzen da. Horrela, aurreiritzi moralak gaindituko zirelakoan zeuden, eta gizakiaren espiritua menderatzen duten superstizio eta oztopo ideologikoak baztertuko zituzten. Une horretan, pentsalari batzuentzat gizaki guztion berdintasuna arrazoimenean oinarrituta zegoen: denak berdina gara, denek arrazoimena (gauzak aztertu, eztabaidatu, eta ondorioak ateratzeko ahalmena) dugulako, eta hori da gizakiarengan garrantzitsua.

Ilustratuen arrazoimena ez zen, arrazionalistena bezala, teorikoa edo espekulatiboa, **arrazoimen praktikoa** baizik. Eginkizun bakarra ez da esplikatzea: gizakiaren bizitza moldatu, natura menderatu, eta arazoak —pertsonalak, politikoak edo gizartearenak— gainditzeko gai ere izan behar du.

Naturaren kontzeptio berria

Ilustratuentzat, natura erreferentzia nagusia da; baina, aldi berean, oso kontzeptu konplexua da. Gehienetan, arrazoimenaren eskutik doa: azalpen naturalek (arrazionallek) azalpen erlijio-

soak edo naturaz gaindikoak ordezkatu behar dituzte. Eta gizakia arrazoimenak gidatzea da naturala. Horrek ez du esan nahi sentimenduen garrantzia ukatzen zutenik; arrazoimena ez litzateke haiek gabe mugituko. Baina sentimenduak arrazonalki bideratu behar direla zioten. Eta giza-banakoak bizimodua naturaren arabera gidatu behar badu, gizarte osoak ere era berean jokatu behar du. Une horretan hasiko da *eskubide naturalak*, *erlijio naturala*, *hezkuntza naturala* eta antzeko kontzeptuez hitz egiten. Naturala denaren arabera bideratu behar dira bizitzaren aspektu guztiak.

Zentzu fisikoari dagokionez, fenomenoak zuzentzen dituzten legeen multzoa da natura. Gizakia ere lege horien mende dago, ezin die ihes egin; eta lege horiek ikerketa zientifikoaren bidez ezagutzea berari dagokio, gero, bai gizakia eta baita gizartea ere, naturaren arabera antolatzeko.

Dena aipatutako legeen mende badago, natura beharrezkotasunaren (determinatuaren) erreinua bihurtzen da (determinismoa); eta, lege horiek ezagutuz eta haietara moldatuz baka-rik erabil ahal izango du gizakiak natura bere onerako.

Jainkoa ez zen beharrezkoa fenomenoaren azalpenetan. Batzuentzat, munduko arkitekto handia bihurtu zen: sortze-lana bukatu zuenean, mundua bere kasa utzi zuen (deismoa¹⁴). Beste batzuek Jainkoaren existentzia ukatu egin zuten (materialismoa). Baina bai batzuk eta baita besteak ere bat zetozen esaterakoan munduan gertatzen diren eguneroko gauzetan eraginik ez duela.

Erljioa

Sinesmen erlijioso tradizionala nagusia zen oraindik arlo sozial gehienetan. Baina, intelektualen artean, sinesmen hori zalantzan jartzen zuten teoriak eta sinesmenak sortzen hasi ziren. Horien arteko nagusiak aipatutako materialismo ilustratua eta deismoa dira.

Materialismoak Frantzia izan zuen eragin handiena, La Mettrie-k idatzitako *Gizon makina* liburuaren eraginez. Haren ustez, materia baino ez dago; beraz, materialian gertatzen diren mugimenduak eta aldaketak ez dira kanpoko eragileek sortuak, betiereko legeen ondorioz sortuak baizik. Ez dago, beraz, ez jainkorik, ezta arima espiritualik ere.

Deismoak (edo erlijio naturalak) ez du jainko baten existentzia ukatzen, baina bai probidentzia (munduan gertatzen diren gauzetan Jainkoak eragin zuzena izatea). Mundua autonomoa da; eta Jainkoak, mundua sortu ondoren, bere kasa utzi zuen. Voltaireren ustez, Jainkoaren existentzia munduaren ordenak demostratzen du.

Askatasuna

Ilustrazioan garrantzi berezia hartu zuen askatasunak. Tolerantzia aldarrikatu zen arlo guztietan. Baina askatasun eskaera horrek ekonomia-arloan hartu zuen indarrik handiena: merkantilismoak ezarritako mugaz eta arautegiaz libratzeko beharra sentitu zuen burgesiak, saleroste-askatasun handiagoa exijitu zuten, aristokraziaren pribilegioak ezabatu eta burgesia bera aberasteko.

Arlo politikoan, pentsalari isolatu eta burujabe batzuk (utopikoak, iraultzaileak, komunistak edo bakezaleak) bakarrik iritsi ziren gizaki guztien arteko askatasun-eskubidea aldarrikatuzera.

¹⁴ Deismoa: Jainkorik bada, ezin da ezagutu. Jainko horrek mundua beharrezkotasunez sortu zuen, ez libreki. Ordu ezkerok ez du berriz esku hartu; beraz, ez da Jainko arduratua eta ez da munduko gaitzen arduraduna.

Rousseau eta, geroago, Kant izan ziren garrantzitsuenak. Kantek norberaren adimenaz baliatzeko eskaera luzatu zuen; eta, horretarako, hori galarazten zuen guztia (tutoregoak) salatu zuen.

Progresoaren ideia

Aurrerabidearen edo progresoaren ideia da Ilustrazioaren ezaugarri guztietatik egundaino nabarien heldu dena, azken urteetan zalantzan jartzen hasi bada ere.

Sinesmen bat da, fede ez-erlijioso bat. Denbora aurrera doan heinean, gizakiaren bizi-baldintzak hobetuz doazela dioen sinesmena: belaunaldi bakoitzak hainbat lorpen eskuratu dituela, eta horiek hurrengo belaunaldietan metatuz doazela. Ideia hori berria da. Antzinako denboraren kontzepzioa zirkularra edo ziklikoa zen. Erdi Aroan ikuspegi lineala hartuz joan zen, eta linealtasun horretan mundua hobetzea posible dela eta behar dela pentsatzen dute ilustratuek; gizarte perfektua, posible guztietatik onena, etorkizunean lortu behar da, eta aurrerabidea mundu hori lortzeko ematen diren pauso guztiak dira. Ilustratuek beren garaia bide horren hasiera zela pentsatzen zuten. Ilustrazioak ideia horren bultzada garrantzitsua suposatzen zuen.

Eta **aurrerabidea** geldiezinezko prozesu gisa ikusten dute: behin hasiz gero, ez da geldituko, eta gizarte hoberena iristeko eragozpen guztiek, izatekotan, aurrerabide-prozesua atzeratu baino ez lukete egingo. Erabateko *baikortasuna* da, beraz, lehen esan bezala, Argien Mendearen beste ezaugarri bat: nahiz eta garai ilunak pasa dituen, gizarteak perfekziorantz jotzen duen bideari jarraitzen dio.

Baina aurrerabidea, gizarte osoari dagokion prozesua izateaz gain, gizaki bakoitzari ere badagokio, eta bizitzaren arlo guztietara zabaldu behar da, superstizioaz, gobernu irrazionalaz eta kultura usteltzaileaz libratzeko.

Hezkuntza

Ilustrazioa hezkuntzaren mendea dela ere esan liteke, gai horrek hartu zuen garrantzia kontuan izanik. Herriaren heziketa lortu nahi zuten ilustratuek; ez klase intelektualari itxita, heziketa herritar guzti-guztiei iristea baizik. Kulturaren bidez, mentalitate kritikoa, arrazionala eta askeagoa zabaldu nahi zuten.

Ildo horretan, pauso asko eman ziren; garrantzitsuena, **Entziklopedia**, zalantzarik gabe. Gizadiak historia osoan zehar lortutako ezagutza guztiak obra bakar batean bildu nahi izan zituzten, ikuspegi zabalez eta kritikoz. Diderotek eta D'Alambertek zuzendu zuten, eta kultura-arlo guztietako idazle, pentsalari eta zientifiko askok parte hartu zuten. Dideroten hitzetan, Entziklopediaren helburua «... pentsatzeko era arrunta aldatzean datza; historian era aktiboan eragin, herri osoaren hezkuntza sorrarazteko; horrela, historiaren bilakaera gizakiarentzat duina bihur dadin».

Hala ere, argitalpena ez zen lan erraza izan; izan ere, kontrako jarrera asko sortu zen, batez ere, hezkuntzaren monopolioa zuen elizarena eta Antzinako Erregimeneko beste zenbait erakunderena. Behin baino gehiagotan debekatu eta zentsuratu zuten arren, berebiziko eragina izan zuen, eta erabakigarria izan zen Frantziako Iraultzan.

XVIII. mendean, egunkariak eta aldizkariak ugaritzen hasi ziren, eta horiek gertakizunak eta informazioa gero eta jende gehiagorengana iristeko aukera ematen zuten. Inguruan gertatzen ari zenari buruzko interesa areagotu egin zen irakurleen artean.

Baina Ilustrazioan hezkuntza bera aztergai ere izan zen. Garai horretan, gizakiaren izaerari buruzko hainbat teoria sortu ziren. Helvetiusentzat, esaterako, gizakia izatez egoista da. Egoismo hori, hala ere, ez da berez txarra: heziketak bideratu behar du kolektibitatearen onerako, indar probetxagarria da. Rousseuren ustez, aldiz, gizakia ona da naturaz; haurra ona da jaiotzez; eta ona izaten jarraituko zukeen, gizartearengatik ez balitz. Haurraren instintuak naturalki garatzen utziz gero, gizakia bide egokietatik joango litzateke. Gizarte hezitzaileak berez ez dauzkan helburuak eta bereak sentitzen ez dituenak ezartzen dizkio, eta horregatik okertzen da. Hezitzaileak ez luke araurik ezarri beharko; alderantziz, hezitakoaren espontaneotasuna errespetatu beharko luke.

Zientzien garapena handia izan zen. Sistema metriko dezimala ezartzen hasi zen. Garai honekkoa da lurrun-makina eta zientzialari ezagun asko: Celsius eta Fahrenheit, Linneo, Lavoisier. Euskal Herrian, Elhuyar anaiek wolframioa isolatu zuten. *Euskal Herriko Adiskideen Errege Elkarte*a 1765ean sortu zen, Azkoitiko zalduntxoak izeneko noble taldeak eta, bereziki, Peñafloidako VIII. kondeak (Frantzisko Xabier Munibe Idiakenez, 1727-1785) bultzatuta, zientzia, artea eta literatura zabaltzeko helburuarekin. Bergarako Errege Mintegia (irakaskuntzaren eta ikerketen sustapen-taldea) ere garai hartakoa da, eta, kasu honetan ere, Peñafloidako kondea izan zen bultzatzaile nagusia.

Politika

Ilustrazioko pentsalariak jorratu zuten gai nagusietako bat da agintearen jatorria.

Antzinako Erregimenean erregearen eskubideak Jainkoarengandik zetozela mantentzen zen, eta, Jainkoak berak ezarritakoa izanik, Jainkoak berak bakarrik zuen kentzeko eskubidea. Gizarte osatzen zuten mendekoak erregearen zerbitzaritzat baino ez ziren hartzen.

Baina Ingalaterrako eta, ondoren, Frantziako pentsalariak agintearen jatorriari buruzko teoria berriak garatu zituzten. Gehienek ustez, gizarte osatzen duten gizabanakoek beren eskubide naturalen (gizaki izateagatik berezko zaizkienak) borondatezko zesioa egin dute agintariarengan, egitura soziala mantentzeko xedez. Ikuspegi hau lehengoaren kontrakoa da erabat: agintaria mandatari bat da; gizarteko kideen zerbitzura dagoen mandataria. Hori azaltzeko Rousseau *kontratu sozialaz* mintzatu zen: une hipotetiko batean, gizabanakoek akordio edo kontratu bat sinatuko zuten, eta beren buruari arauak eta legeak ezarri. Hortaz, erregea arau eta lege horiek betearazteko arduraduna izango litzateke. Frantzian, askok erregearen beharrik ere ez zegoela zioten, eta iraultzaren bidez errepublika ezarri nahi zuten. Azkar zabaldu zen pentsatzeko era berria burgesian; kontziente izateak *mendeko* izatetik *herritar* izatera eraman zituen.

Ildo horretan agertzen zaigu Kant bera ere. *Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna* artikuluan printzearen eginkizuna hiritarren askatasun naturala errespetatzea eta errespetaraztea dela esaten du; baina, aldi berean, askatasuna erabatekoa ez daitekeela izan dio, legedia betearazi behar dela, gizartearen antolamenduak iraun dezan.

3.2. ARRAZIONALISMOA ETA ENPIRISMOA

Ilustrazioaren oinarrian, XVII. mendeko bi joera filosofiko aurki daitezke: arrazionalismoa eta enpirismoa. Horregatik, hitz gutxitan bada ere, aurkeztu egin behar dira, Argien Mendea behar bezala ulertzeko.

Arrazionalismoa, filosofiaren testuinguruan, XVII. mendean Europan Descartes-en eskutik sortu zen korrante filosofikoa da. Aldi berean, Ingalaterran Locke aitatzat duen beste mugimendu bat garatu zen: enpirismoa.

Tradizionalki, arrazionalismoa eta enpirismoa kontrajarri egin izan dira, baina bi mugimendu horien artean, askotan azaltzen dena baino ezaugarri komun gehiago dituzte. Hona hemen nagusiak:

- Biek Greziako filosofoen artean dituzte aitzindariak, nahiz eta modernitatearen ezaugarriak oso bestelakoak diren. Platonen epistemologia eta metodo dialektikoa, besteak beste, antzinako arrazionalismoaren zantzutzat har litezke. Aristotelesek adimenaz duen *tabula rasaren* kontzepzioa eta abstrakzioarako metodo inductiboaren teoria, aldiz, oinarritzko enpirismoaren ezaugarriak kontsidera daitezke.
- Bai arrazionalismo modernoarentzat eta baita enpirismo modernoarentzat ere, epistemologia (ezagutzaren arazoa) erdiguneko gaia bihurtu zen. Ezagutzeko prozesuari buruzko gogoeta oinarritzko abiapuntua izan zen, arrazoimenaren hedadura eta ahalmena norainokoak diren zehaztu ahal izateko.
- Bi ikuspegiak errealismo sinplea gainditzen dute. Ikuspegi errealistak ez du inoiz zalantzan jarri gizakiak errealitatea den bezala ezagutzen duenik. Arrazionalismoak eta enpirismoak, berriz, zalantza hori plazaratu, eta erantzuna ematen diote: gizakiak errealitatea zeharka baino ezin du ezagutu, geure ideien edo adimenaren errepresentazioen bidez. Hau da, subjektua da ezagutzaren abiapuntua, eta ez errealitatea bera.
- Aurrekoaren ondorioz, bi korranteek honako aztergai konplexuari eta sakonari aurre egin beharko diote: zein da subjektuaren beraren ekarpena errealitatearen ezagutza-prozesuan eta zein dira ezagutzaren posibilitateak eta mugak?
- Ezagutza-prozesuetan erabili beharreko metodoaren arazoa planteatzen zaie bi korrantei: nola egin behar da lan, filosofian eta ugaritzen ari diren zientzia partikularretan? Galdera horri ez zioten erantzun bera eman arrazionalistek eta enpiristek; baina bai batzuen zein besteen ustez, ezagutzaren garai berri bat hasten ari zen: etorkizunari luzatzen zitzaion ikusmolde baikorra. Edozein zela ere, zientziaren metodo berriak ez zion lekurik utzi behar zalantzari edota ziurtasun ezari.

3.2.1. ARRAZIONALISMOA

Arrazionalismo modernoa XVII. mendearen lehen erdian sortutako korrante filosofikoa da, Descartes-en (1596-1650) eskutik. Descartesek iritzi-aniztasun handiegia eta zehaztasun falta sumatu zituen bere hezkuntzan, eta egoera horri amaiera emateko erabakia hartu zuen. Horrela, inola ere zalantzan jar ez zitekeen zerbait ba ote zen galdetu zion bere buruari. Horrelakorik aurkituz gero, horixe litzateke jakinduria osoaren abiapuntu ziurra. Lan horri ekinda, substantzia pentsatzailean (*res cogitans*) aurkitu zuen egia ebidentea: «pentsatzen dut; beraz, banaiz» («cogito ergo sum») bere esaldi ospetsuak hori esan nahi du: *pentsatzen ari naizenez, derrigorrean izan behar dut zerbait*. Eta horrek ematen dit ni zer naizen ezagutzeko abiapuntua: *pentsatzean datzan zerbait naiz (res cogitans)*. Abiapuntu hori ziurtasun osoz finkatu ondoren, Descartesek Jainkoaren (*res infinita*) eta mundu fisikoaren (*res extensa*) existentziak deduzitu zituen. Substantzia horiek erabat autonomoak direla zioen; hau da, lege desberdinek zuzentzen dituztela bata, bestea eta bestea. Horrek esan nahi du errealitate fisikoan ez dagoela beste substantzien interbentziorik; beraz, modu mekanikoan funtzionatzen duela (mekanizismoa).

Hurrengo pausoa hiru substantzia mota horiek ezagutzeko metodo egokia aurkitzea zen: abiapuntu ziurretatik abiatuta ezagutza berriak erabateko ziurtasunez lortzeko balioko zuen metodoa. Baldintza horiek betetzen zituen eredu matematikaren metodo deduktiboan aurkitu zuen. Matematika axioma ziur eta ebidentetatik abiatzen da, eta arazoak elementu sinpleenetan banatuz analizatzen ditu; eman behar den pauso bakoitza ebidente da, ezer faltsurik ez izateko.

Descartes en hausnarketa horietan arrazionalismoaren funtsa dago. Hona ezaugarri nagusiak:

1. **Giza arrazoimenean erabateko konfiantza.** Arrazoimena gizakiak egia aurkitzeko duen fakultate bakarra da. Hori da ezagutza berri fidagarriak lortzeko eta lortutakoa baieztatzeko erabili behar den bidea. Erdi Aroan hainbesteko garrantzia izan zuen fedearen eta arrazoimenearen arteko oposizioari arrazoimenearen balioa nagusitu zitzaion, eta sentipenek sortzen dituzten ilusioei eta iruzurrei kontrajarri zitzaion.
2. **Jatorrizko ideien existentzia.** Platonek irekitako tradizioari jarraituz¹⁵, arrazionalistek zioten egiaren oinarri diren edukiak edo ideiak dituela giza adimenak. Ezagutza, beraz, *a prioriz*koa da: adimenean jatorrizko izaera duten ideia horietatik abiatuta, eta metodo deduktiboa erabiliz, zalantzarik gabeko egietara iritsiko da arrazoimena. Ezagutza horiek guztiak biltzean garatuko da jakinduriaren eraikuntza osoa. Beraz, adimena ez da biltegi hutsa edo *tabula rasa*, empiristek esaten zuten bezala. Jatorrizko ideien ezaugarri nagusia sinpletasuna da; argiak eta bereziak dira: ebidenteak.
3. **Izaera matematikoa duen metodoa.** Matematikak erabiltzen duen metodo axiomatikoduktiboa bereganatzeak bi helburu ditu arrazionalistentzat: batetik, akatsak saihestea; bestetik, zientzia guztiak eredu eta hizkuntza sinboliko bakarrera eramatea (*Mathesis Universalis*).
4. **Gizakiaren ikuspegi dualista.** Descartesek bereizitako hiru substantzien izaera guztiz desberdina izanik, gizakia bi alderdi autonomoz osatuta dago: gorputza (*res extensa*) eta arima (*res cogitans*). Arima nigidik bereizezina da guztiz. Bera da **nire** pentsatze kontzientea; gizakiaren benetako **nia**. Gorputza, aldiz, gizakiaren parte da bizirik dirauen bitartean; alabaina, gorputzaren papera bigarren mailakoa da, bere kasa funtzionatzen du, automata gisa, mundu fisikoaren legeek zuzenduta. Bi substantzia horien artean dagoen harremana oso txikia da (Descartesek zioen epifisiaren bidez gauzatzen dela, baina erlazio hori ontzi baten eta pilotuaren artean dagoena baino askoz handiagoa ez dela).
5. **Mekanizismoa.** Arrazionalista gehienek paradigma zientifikoa izan zen, guztiak ontzat eman ez bazuten ere. Descartes en arabera, errealitate fisiko guztia inolako helbururik ez duen tresna mekaniko baten moduan ulertzen da. Fenomenoak espazioko objektu materialen arteko talkez gertatzen dira, eta ez dago ez indar ezkuturik ezta distantziara eragiten duenik ere. Unibertsoa, beraz, kuantitatiboki azter eta deskriba daitekeen mekanismo erraldoi baten antzekoa da.

3.2.2. ENPIRISMOA

Enpirismoa Ingalaterran XVII. mendean sortutako pentsamendu-korrontea da. Garrantzi handikoa da bi arlotan egindako ekarpenengatik: batetik, zentzu askotan arrazionalismoari kontrajartzen zaion epistemologia garatu zuten, zentzumen-esperientziaren baliozkotasunean

15 Platonen ustez, ariman bada nolabait ideien alde zuretik presentzia; ideia horiek oroitzean lortuko litzateke ezagutza.

oinarrituta; bestetik, planteamendu politiko berrien ekarpen erabakigarria egin zuten (moderitatearen proiektu ilustratuan oinarrizkoak izan ziren).

3.2.2.1. Enpirismoaren epistemologia

Locke (1632-1704) hartzen da enpirismo modernoaren sortzailatzat. Dena den, Aristoteles, estoikoak, Tomas Akinokoa edo Ockham planteamendu epistemologiko horren aitzindari gisa aipa litezke, besteak beste. Hala ere, Hume (1711-1766) izan zen pentsamendu enpirista indar handienez bere azken ondorioetaraino eraman zuen pentsalaria. Humeren lanak irakurtzeak *esnarazi zuen* Kant amets dogmatikotik, Kantek berak aitortzen duenez.

Hauek dira enpirismoak ezagutzaren arazoaren inguruan mantentzen dituen tesi nagusiak:

1. *Ezagutza guztiak esperientzian hasten dira*

Zuzeneko behaketan ezagututakoari deitu zioten esperientzia, nahiz kanpoko objektu sentikorretakoa (kanpoko esperientzia edo sentipena) izan, nahiz psikearen barruko operazioak izan (barne-esperientzia edo hausnarketa). Esperientzia, beraz, **pertzepzioa** da.

Lehenengo tesi hori onartzeak jatorrizko ideien existentzia ukatzera behartzen du, eta Humek erabat ukatu egin zituen. Haren ustez, adimenean dauden ideia guzti-guztiek pertzepzioetan dute jatorria eta «adimena ez da bere kabuz ideia originalik sortzeko gai».

2. *Gizakiaren ezagutza ez da mugagabea, esperientziak ere mugak baititu*

Bigarren tesia ere arrazionalismoaren kontrakoa da: arrazionalisten ustez, metodo egoki bat aurkituz gero, arrazoimena dena ezagutzera irits liteke; ez du aldez aurreko inolako mugarik. Enpiristek, aldiz, aukera hori ukatu egiten zuten: «ez daiteke joan esperientziatik haraindi». Ondorioz, filosofiaren eremua asko murriztu zuten. Eta ezagutzaren ziurtasuna ere oso murriztua gelditu zen. Humerentzat, ezagutza ziurra matematikak bakarrik eskaintzen du; baina ziurtasun hori ez dator, haren ustez, matematikaren berezko barneko logikatik, gizakiarengan dauden lege psikologikoetatik baizik, antzekoak diren gauzak elkartzeko joera baitu gizakiak (psikologismoa).

Fisikari dagokionez, ordea, zientzia probable bat baino ez dela dio. Fisika efektuak sortzen dituzten kausei buruzko zientzia da, baina, zein da efektuaren eta kausaren arteko konexioaren izaera? Esperientziak dio gertakizun bati beste batek jarraitzen diola. Humek dio fisika urrutiegi doala bigarren gertakizunak lehenengoari derrigorrean (beharrezkotasunez) jarraitu behar diola suposatzen denean, gizakiak ezinezkoa baitu konexioaren esperientzia. Beraz, esperientziak gertakizun isolatuak bakarrik jasotzen ditu; eta elkarren arteko konexioa itxurazkoa da, ordena horretan ikusteko ohituraren ondorioa baino ez da. Fisikak, orduan, iraganean elkarrekin suertatu ziren gertakizunaz hitz egin behar du, baina ez etorkizunari buruzko a priorizko ziurtasunaz edo beharrezkotasunaz. Ondorioz, eratu beharreko legeak probableak izango dira, ez beharrezkoak.

Gure ahalmen psikikoen azterketaren ondorioz, munduaren existentziari buruzko eszeptismo moderatua onartzen du Humek. Ez dago munduaren ziurtasuna bermatzen duen ezer, baina zentzugabekeria litzateke, eta bizitzaren kontrakoa gainera, mundua ukatzea. Egokia da, beraz, ziurra balitz bezala jokatzeko maila praktikoa. (Enpirista guztiak ez zeuden horrekin ados. Berkeleyk, adibidez, arimaz edo adimenaz kanpoko mundu materialaren existentzia ukatzen zuen: oinarri enpirikoa duen idealismo hutsa).

3. Ezagutza ideien ezagutza da

Enpiristak ados daude arrazionalistekin puntu honetan: adimenak ez ditu gauzak berak eza-gutzen, haietaz ditugun ideiak baizik. Horregatik, hain zuzen ere, eman zieten enpiristek hainbesteko garrantzia ideien arteko erlazioei, gizakiaren mekanismo psikologiko guztiak haien bidez esplikatzen nahian.

4. Arrazoimenaren kontzeptio berria, esperientzian hasi, oinarritu eta bukatzen den arrazoimena

Hala ere, gizakiaren bizitzarako gida bakarra da, eta helburu praktikoa izan behar du. Ondorioz, arazo moral, politiko, erlijioso, pedagogiko eta abarretara dedikatu ziren enpiristak. Eta metafisika, zientzia gisa, ezinezkoa zela esan zuten. Lehenengo aldiz, arrazoimena arrazoimen kritikoa da¹⁶.

3.2.2.2. Enpirismoaren eragin politikoa

Enpirismoaren kezka nagusia politika da, eta berebizikoa izan zen haren eragina ondorengo filosofian eta baita XVIII. mendeko praktika politikoa ere.

Enpiristen artean, John Locke (1632-1704) dugu politika-teorialari garrantzitsuenen (Tolerantziari buruzko eskutitza, Aginte zibilar buruzko tratatuak). Liberalismo politikoaren teorialaria izan zen. Lockek zioen estatuaren jatorria ez zela Jainkoa, baina, orduan, zein da botere politikoaren justifikazioa? Horretarako, *natura-egoera* zein ote zen planteatu zuen. Lockeren esanetan, beharrezkoa da *natura-egoera* hipotetiko¹⁷ bat irudikatzea: nolako baldintzatan biziko lirateke gizakiak, estaturik ez balego eta *natura-egoera* biziko balira? Horrela irudikatutako egoera beste inongo gizartetan baino hobea balitz, Estatu sortzeko inolako justifikaziorik ez legoke. Baina alderantziz balitz, eta egoera naturaleko bizi-baldintzak okerragoak balira, eta ezerosotasun horiek desagerrarazi edota kontrolatzeko modurik balego, orduan, estatu edo gizarte zibila sortzea justifikatuta legoke.

Natura-egoera horretan ez dago gobernurik ezta inongo gobernu ezarritako legerik ere. *Natura-legeak* bakarrik daude. Lockeren iritziz, lege natural horien arabera:

- Gizaki guztiak **berdinak** dira¹⁸. Berdinak izateak esan nahi du **inork ez duela besteak zapaltzeko eskubiderik**. Gizaki guztiak beren buruaren jabe dira modu berean.
- Berdinak direnez, **askeak** dira denak. Eta **jabetza-eskubidea** dute. Beren buruaren jabe dira, hasteko; eta, horren ondorioz, baita beren lanaren emaitzen jabe ere.
- Baina egoera naturalean, aginterik ez denez, **edozein gizakik du lege natural horiek inposatzeko eta betearazteko eskubidea**; eta arrazoi berarengatik, baita lege horiek betetzen ez dituztenak zigortzeko eskubidea ere (gizaki bakoitza da epaile eta borrarero, aldi berean). Gizaki bakoitzak lege horiek inposatzeko duen gaitasunaren eta indarraren arabera beteko dira legeak.
- Baina, egoera naturalean, ez dago gizakien arteko liskarretan ebatziko duen epaile inpartzialik; horregatik, ez da segurtasunik izango, eta gerrarako joera sortuko da.

¹⁶ Arrazoimen kritikoa ideia Ilustrazioak jaso zuen.

¹⁷ *Natura-egoera* hori ez da inoiz izan, arrazoizko sormen hutsa da.

¹⁸ Baiezta hori ez da errealitate baten deskribapena, horrela behar lukeela esan nahi du. Arrazoizko egia da, ez egia enpirikoa.

—Gizakiak, natura-egoeran baino segurtasun gehiago lortu nahian, **kontratu** bat (egiazkoa edo irudizkoa) egiteko beharrean aurkituko dira. Eta kontratu horren bidez, natura-egoerari uko egingo diote, eta gizarte zibilari hasiera emango.

Gerra-egoera ekiditeko egindako kontratuaren bidez, **gehiengoaren iritzia errespetatzeko konpromisoa** hartzen dute, eta, era berean, fidagarria zaien aginte zibilari **lege naturalak errespetarazteko duten eskubidea laga** egiten diote. Kontratuaren bidez, natura-egoeratik gizarte zibilerako pausoa ematen dute.

Lagapen horretan, gizarte zibilaren eta agintearen arteko bereizketa mantentzen da. **Herritarrek ez dute askatasuna galtzen**, horren jabe izaten jarraitzen dute, baina agintariak erantzule dira beren aurrean. Beraz, **gizarte zibilak mantentzen du aginte politikoa, bere oinarria da**.

Kontratuaren **helburua herritarren eskubide naturalak defendatzea** da, eta, horien artean, jabetza pribatuaren defentsa da nagusia.

Hortaz, kontratuaren bidez **sortzen da gizarte zibila**, aginte legegileari eta eragileari utzi ondoren eskubide naturalen defentsarako eskubidea. Lockek hiru aginte bereizi zituen ezinbestez: betearazlea, legegilea eta federatiboa (bakea eta gerra erabaki...). Montesquieu-k hirugarren aginte mota horren orde, aginte judizialaz hitz egiten zuen.

Aginteari egindako lagatze horretan, herritarren **eskubide-transferentzia eta agintearen mugaketa** egiten da aldi berean. Agintariek **eskubide naturalak soilik babestu** behar dituzte, eta horretan datza haien agintearen zilegitasuna. Hain zuzen ere, onargarriak diren lege bakarrak gehiengoz onartutakoak dira.

Estatu zibil horretan agintearen eginkizuna soilik arazo zibiletara mugatzen da; askatasun erlijioso dago, elkarte erlijiosoen arteko bereizketarik egin gabe.

3.3. IMMANUEL KANT (1724-1804)

3.3.1. BIZITZA

Immanuel Kant, Königsberg¹⁹-en jaio zen 1724. urtean, artisau-familia batean; bederatzi anai-arrebaren arteko laugarrena zen.

Familian jaso zuen hezkuntza pietista izan zen. Pietismoa eliza ofizialaren dogmatismoaren aurka zegoen, eta esperientzia erlijioso pertsonalari garrantzi handia ematen zion; oso moral zorrotzekoa zen, baina, aldi berean, tolerantzia aldarrikatu zuen.

Zortzi urte zituela, Collegium Fridericianum-en hasi zen ikasten, eta handik, unibertsitate-ra joan zen. Königsbergeko unibertsitate horretan, Leibnizen filosofia, eta Newtonen fisika eta matematika ikasi zituen.

Kantek 14 urte zituela, ama galdu zuen, eta aita, 22 urte zituela, ikasketak bukatu aurretik. Arazo ekonomikoen ondorioz, unibertsitatea utzi behar izan zuen, eta irakasle partikular aritu zen zenbait familiatan.

Hala ere, ikasten jarraitu zuen, doktoretza 31 urterekin lortu, eta unibertsitatean bertan irakasten hasi zen. Han pasa zituen hurrengo 42 urteak, besteak beste, logika-, matematika-, fisi-

ka-, moral-, metafisika-eskolak ematen, jubilatzen zen arte; horietatik lehenengo 15 urteak behin-behineko egoeran egon zen, 46 urte arte ez baitzuen behin betiko plaza lortu. Beste toki batzuetan lan egiteko eskaintza onak jaso arren, Königsbergen gelditu nahi izan zuen.

1781. urtean, 57 urte zituela, haren lehenengo obra filosofikoa argitaratu zen: *Arrazoimen hutsaren kritika*. Hortik aurrera, Kanten produkzioa etengabea izan zen.

Frederiko II.a hil ondoren (1786), Frederiko Gilen II.a iritsi zen agintera, eta zentsura-ara-
zoak hasi ziren Kantentzat. 1794an erlijio-gaiak tratatzea debekatu zioten, bai klaseetan eta baita idatzietan ere.

1797an jubilatzen, eta laster gaixotu zen. Zazpi urte geroago hil zen, 80 urte zituela.

Fisikoki txikia zen, eta osasunez ahula. Hala ere, oso umore onekoa, atsegina eta lagun-
koa omen zen; eta oso metodikoa eta ordenatua, bai eguneroko bizitzan eta baita lanean ere. Haren jabetasun eta zuzentasun moralak deigarria omen zen. Izaera liberalekoa izanik, begi
onez ikusi zituen Ameriketako Estatu Batuetako independentzia eta Frantziako Iraultza (terrorea hasi zen arte behintzat).

Hauek dira Kanten irakurgai maitatuak: Newtonen *Fisika*, arrazionalisten (Leibniz, Wolff) eta enpiristen obrak (Humek esnatu omen zuen bere amets dogmatikotik), eta Ilustrazioko beste zenbait filosofo, Rousseau nagusiki. Azken horren idazlanek liluratu egin zuten Kant. Humek kausalitatearen kontzeptuaren bidez arrazionalismoaren ametsetik esnatu bazuen, Rousseauk gizadiaren eskubideen garrantzia erakutsi zion. Kanten iritziz, Newtonen fisikari egindako ekarpenen antzekoak egin zituen Rousseauk moral-mailan.

3.3.2. LANAK

Bi aro edo garai bereiz daitezke Kanten lanetan:

1. Aro aurrekritikoa, 1781 arte (*Arrazoimen hutsaren kritika* argitaratzen duen arte).

Garai horretan obra zientifikoak idatzi zituen: *Naturaren historia orokorra eta zeruaren teoria* (1755), *Mundu hautemangarriaren eta adigarriaren printzipio formalak* (1770).

2. Aro kritikoa, 1781etik aurrera.

Arrazoimen hutsaren kritika (1781): lan honetan ezagutzaren arazoa planteatu zuen; zientzia-
ren justifikazioa nagusiki, Ingalaterrako enpiristek zalantzan jarri edo ukatu egin zutena. Zientzia bakoitzaren aukera eta zegoen eremua zehazten saiatu zen.

Prolegomenoak: zientzia bezala agertu nahi duen etorkizuneko edozein metafisikarentzat (1783): aurreko liburuak jasotako kritiken erantzuna.

Ohituren metafisikaren oinarritzea (1785): etikari buruzko bere lehen tratatua.

Arrazoimen praktikoaren kritika (1788): Kanten tratatu nagusia Etikari buruz. Liburu hone-
tan arrazoimen praktikoaz hitz egiten du. Gizakia, alde batetik, arrazoimen hutsa da (ezagutze-
az arduratzen den arrazoimena), eta juizioez baliatzen da. Obra honetan, berriz, beste arrazoim-
en mota bat tratatzen du: arrazoimen praktikoa, hau da, gure ekintzez arduratzen dena. Gizakia, arrazoimen praktikoa duen aldetik, aginduz eta inperatiboz baliatzen da.

Judizioaren kritika (1791): estetikari buruzko tratatua.

Erljioa arrazoimen soilaren mugen baitan (1793): Deismoaren ideia nagusiak defendatzen ditu.

Betirako bakea (1795): politikari eta bakeari buruzko gogoeta.

Logika-lezioak (1800).

3.3.3. KANTEN PENTSAMENDUA

Gizakia da Kanten kezka, kezka ilustratua. Eta gizakia zer den aztertzeke hiru galdera plazaratu zituen: zer ezagut dezaket? Zer egin behar dut? Zer espero dezaket?

Gizakia eta gizadiaren aurrerabidea eta hobekuntza dira Kanten azken helburuak: printzipio arrazional eta naturaletan oinarrituta, gizabanakoak eta gizartea *garai ilustratura* iritsaraztea. Bide horretan aurrera jotzeko ezinbestekoa da kritika-askatasuna; alegia, norbera bere adime-naz baliatuz, gizartearen hobekuntza iraunkorra bultzatzen duen askatasuna.

Baina gizakiaren eta gizadiaren bizitza eta egitura horrek nolakoa izan behar duen, eta horretara iristeko bide egokiena zein izan daitekeen jakiteko, alde zureko lan bat agertzen zaio gizakiari: giza adimenaren ahalmenak norainokoak diren aztertzea. Beste era batera esanda, arrazoimenaren kritika egitea. Kritika edo analisi horren bidez, Kantek zientziaren ikerketa eta azalpen arrazionala noraino iritsi zitekeen aurkitu nahi izan zuen.

Hasiera batean, Kant arrazionalista konbentziturua izan zen. Beraz, adimenak mugarik ez duela pentsatzen zuen; jatorrizko ideietatik abiatuta, dena ezagutzera iritsi gaitezkeela, metodo egokia bukaeraraino jarraituz gero. Baina, enpiristen lana ezagutzean (Hume), haiek egindako arrazionalismoaren dogmatismoaren kritika aintzakotzat hartu behar zela onartu zuen. Hala ere, ez zuen enpiristen azken ondorioa²⁰ onartu: Kanten ustez, zientzia unibertsala eta baliozkoa gizadiaren aurrerabidearen ardatz nagusia da, eta ezin da ukatu, alde zurretik egindako azterketa sakonaren eta behin betikoaren ondorioz ez bada. Azterketa hori *Arrazoimen hutsaren kritika* lanean egingo du. Liburu horretan *zer ezagut dezaket?* galderari erantzun nahi izan zion. Honako ondorio honetara iritsi zen: zientzia formalaz gain (logika eta matematika), oinarri enpirikoa duenaz bakarrik lor daiteke ezagutza unibertsala eta ziurra. Beraz, oinarri enpirikorik ez duena (metafisikaren eta etikaren arloak, esaterako) ezin daiteke ezagutza zientifikoaren aztergai izan. Ildo horretan egindako ahalegin guztien emaitzak, ezagutzaren itxura duten arren, arrazoimenaren ahalmenen erabilera desegokiaren ondorio baino ez dira, eman dezaketenaren mugaz haraindi joatearen ondorioz.

Dena den, ondorio horrek ez die garrantzirik kentzen aipaturiko gaiei. Haiei buruzko zientzia teorikorik ezin da egin, baina horrek ez du esan nahi baztertu behar direnik, ezta arrazoimenaren beste alderdi batek (praktikoak) zientzia egin ezingo duenik ere. Ildo horretan, gizakiaren jokabide moralak oinarri duen zientzia praktikoaren eta unibertsalaren beharra aldarrikatu zuen *Arrazoimen Praktikoaren Kritika* lanean. *Zer egin behar dut?* galderari erantzuna eman zion.

3.3.3.1. Arrazoimen hutsaren kritika

Lan honetan, *zer ezagut dezaket?* galderari erantzun nahi izan zion Kantek. Horretarako, arrazoimenaren azterketa sakonari ekin behar izan zion. Zientziak erabilitako esaldi motak aztertzen hasi zen. Hauek dira gogoeta eta konklusio nagusiak:

²⁰ Giza ezagutza objektu konkretu eta singularrei buruzkoa dela.

1. Judizio mota desberdinak bereizi behar dira. Oro har, bi sailkapen egin ohi dira:

Subjektu-predikatu erlazioaren arabera	Ezagutzeko eraren arabera
<p><i>ANALITIKOAK</i>: predikatzen dena subjektuaren barnean jasota dago.</p> <p>Adibidez, «laukiak lau alde ditu».</p> <p><i>SINETIKOAK</i>: predikatzen dena ez dago subjektuaren barnean jasota.</p> <p>Adibidez, «gatza sodioz eta kloroz osatuta dago».</p>	<p><i>A PRIORIZKOAK</i>: Azaldutakoa alde zuzenetik ezaguna da, esperientzia sentikorrera jo behar izan gabe.</p> <p>Adibidez, «bi punturen arteko distantzia motzena lerro zuzena da».</p> <p><i>A POSTERIORIZKOAK</i>: Azaldutakoa ez da alde zuzenetik ezagutzen; beraz, esperientzia sentikorrera jo behar da.</p> <p>Adibidez, «haritzak ezkurak ematen ditu».</p>

2. Zientziaren judizioak ezin dira analitiko hutsak izan, arrazionalistek esaten zuten bezala. Hala balira, a priorizkoak lirategi, beharrezkoak; ondorioz, auresateko aukera emango lukete. Baina a priorizko judizioek ez dute errealitateari buruzko ezagutza berririk ematen.

Bestalde, sintetiko hutsak ere ezin dira izan, enpiristek zioten moduan. Judizio sintetikoak balira, ezagutza berriak eskainiko lizkigukete; baina orduan, ez lirategi a priorizkoak izango, eta, ondorioz, ez lukete auresateko ahalmenik izango.

Kantek ebatzi zuen zientziaren judizioek bi ezaugarri horiek nolabait bildu behar zituztela: *a priorizko judizio sintetikoak* izan behar dute; hau da, ezagutza handitu behar dute, baina balio unibertuala izan behar dute. Hori, itxuraz, kontraesana da, eta azalpena eskatzen du. *Zer ezagut dezaket?* galdera beste bi hauekin formula daiteke:

— *Zein baldintzatan dira posible a priorizko judizio sintetikoak?*

— *Errealitatearen zein arloz egin daitezke a priorizko judizio sintetikoak? Hau da, zertaz egin daitezke zientzia?*

Bi galdera horiei erantzuteko ekin zion Kantek giza adimenaren ezagutza-sistemaren azterketa sakonari.

3. Kantek epistemologian **iraultza kopernikar** bat behar zela kontsideratu zuen. Kopernikok, unibertsoaren paradigma geozentrikoa indarrean zela, ikerketa astronomikoan gizakia agente aktibo gisa hartu behar zela suposatu zuen. Hau da, unibertsoaren jardura ongi azaldu nahi bazen, ez zitekeen suposa ikerlaria geldirik, baizik eta Lur osoarekin batera mugimenduan dagoen ikerlaria. Perspektiba-aldaketa handia da: astronomoak astroen berezko mugimenduari ikerlariaren beraren mugimendua batzen zaiola kontuan hartu behar du.

Kantek pentsatzen zuen antzeko zerbait egin behar dela ezagutza-mailan: ezagutzen duen subjektua ez da ezagutza horien jasotzaile hutsa. Aitzitik, ezagutzen duen errealitatea bereganatzen duen unean, alde zuzenetik (*a priori*) adimenean berezkoak dituen egiturak erantzen dizkio errealitateari, hain zuzen ere, berea egin ahal izateko.

4. Baina, zer da subjektuak jartzen duena? Zein dira ezagutu ahal izateko adimenak *a priori* dituen egitura horiek?

4.1. Giza adimenaren ezagutza-sistemak hiru fakultate edo ahalmen ditu. Hiru horien arteko elkarlanak ematen dio aukera gizakiari errealitateari buruzko baliozko ezagutzak lortzeko. Hauek dira:

— **Sentimena.** Adimenak beregandik kanpokoari buruzko datuak jasotzeko ahalmena. Fakultate hau izan ezean, adimenak ezingo luke bera ez denari buruzko berririk jaso; isolatuta legoke.

— **Ulermena.** Adimenak kontzeptuak sortzeko duen ahalmena. Aldi berean, judizioak eratu, eta errealitateari aplikatzen dizkio; eta horrela, errealitatea ulergarria bihurtzen da.

— **Arrazoimena.** Arrazoiketak eratzeko ahalmena da; hau da, judizioak lotuz lortutako errealitateari buruzko pentsamenduak.

4.2. Aipatutako hiru ahalmenetako bakoitzak baditu enpirikoki sortu ez diren berezko egiturak. Egitura horiek jatorrizkoak dira, eta ez dute inolako eduki zehatzik errealitate enpirikoarekin harremanetan jartzen ez diren artean; **a priorizko forma hutsak** dira. Ahalmen bakoitzak berak ditu:

	Sentimena	Ulermena	Arrazoimena
A priorizko formak	<i>espazioa</i> <i>denbora</i>	12 kategoria: 3 kantitatezkoak 3 kalitatezkoak 3 modalitatezkoak 3 erlaziozkoak	3 ideia: nia (arima) mundua Jainkoa

— Espazioa eta denbora ez dira zentzumenen bidez hautematen den ezer, baizik eta objektuak eta gertakariak hautemateko dugun modua. Ez dira errealitatearen berezko ezaugarriak, geure adimenak objektuak hauteman ahal izateko eransten dien forma baizik. Kantek **sentimenaren ezinbesteko baldintzak** direla esan zuen, **intuizio hutsik** gabe hautematea ezinezkoa bailitzateke. Gizakiak ezin du ezagutu hautematen duen objektua, noumena —gauza berez den bezala, gauza bere baitan—, espazioaren eta denboraren koordenada hutsetan kokatu gabe. Sentimenaren forma hutsetan kokatu ondoren bakarrik ezagut daiteke hautematen dena, eta horri fenomeno deitu zion Kantek.

— Baina zerbait hautematea ez da ezagutzea. Ulermenaren bidez, kontzeptuak sortzen ditugu. Hauek bi eratakoak izan daitezke:

- *Kontzeptu enpirikoak:* sentsibilitatearen bidez hautemandako objektuetatik abiatuz, indukzioz eratutakoak. Horrelakoak dira, esaterako, «zuhaitza», «harria», «liburua»...
- *A priorizko kontzeptuak (kategoriai):* aurrekoak ez bezala, ez dira enpirikoki sortuak; aitzitik, jatorrizkoak ditu gizakiak. Gainera, **kontzeptu hutsak** dira; hau da, ez dute edukirik, eta hautemandako errealitateari aplikatzen dizkiogunean, hautemandakoari ordena eta batasuna ezartzen diogu. Errealitateaz aritzean erabiltzen ditugun judizio motetatik deduzitu zituen Kantek kategoriak (lau

bloketan sailkatutako hamabi kategoria), Kantek *ulermenaren ezinbesteko baldintza* ere esan zien, kategoriarik gabe ezinezkoa bailitzateke errealitateko ezer bereiztea eta ulertzea. Adibidez, kantitateaz ari bagara, «unitatea», «aniztasuna» eta «osotasuna».

- Arrazoimenak judizioak lotu, eta gero eta arrazoiketa orokorrakoak egiteko joera du: legeak eta hipotesiak egiteko joera, ahalik eta fenomeno gehien hartzen dituen baldintzak bilatzekoa. Eta hori egiteko, esperientzia sentikorraz haraindi joan behar du, eta sintesi absolutuak, baldintzatu gabeak egin. Kantek subjektuaren esperientzia guztiak biltzen dituzten hiru sintesi orokor aipatu zituen, hau da, **ideiak**, arrazoimenaren a priorizko forma hutsak:
 - *Arima*: subjektuaren barne-esperientzia guztien bilduma, fenomeno psikikoen batasun osoa.
 - *Mundua*: subjektuaren kanpo-esperientzien multzoa, fenomeno fisikoen batasun osoa.
 - *Jainkoa*: aurreko bien azalpenei batasuna eman nahi dien sintesia, kausa goren bati buruzko teoriak eginez.
- Ideia horiek **ez dute izaera empirikorik**. Arrazoimenaren ideala adierazten dute; hau da, gero eta lege eta printzipio orokorrakoak aurkitzeko joera. Ikerketa-eremua zabaltzera bultzatzen dute: esperientzia berriak izan, eta horien arteko lotura gehiago sortzera. Ez dute inolako ezagutza objektiborik eskaintzen. Arrazoimenak legeak eta printzipioak aurkitzeko duen Ideala adierazten dute. Zerumuga bezalakoak dira: ezin dira inoiz lortu, baina aurrera egin behar dela adierazten dute.

5. Beraz, ezagutza sentsibilitatearen galbahetik pasatakoaz soilik lor daiteke; hau da, empiristek zioten bezala, zentzumenen esperientziatik pasa denari buruz bakarrik lor dezakegu ezagutza. Sentipenaren koordenadetan kokatzen ez denari —**errealitate noumenikoa**— ezin zaio ulermenaren kontzepturik aplikatu, eta, ondorioz, **ezin da horri buruzko judiziorik egin**.

6. Matematika sentimenaren a priorizko formetan oinarritzen da. Geometria, adibidez, *espazioaren* berezko ezaugarriei buruzko diskurtsoa da. Aritmetika, berriz, unitateen *denborazko* segidei buruzkoa da. Matematikak erabilitako judizioak a priorizko sintetikoak dira: a priorizkoak, ez baitute esperientzia empirikoaren beharrik; sintetikoak, adierazten dutena ez delako nahitaezkoa. Ez da, beraz, batere harrigarria matematikako ezagutzak objektu fenomenikoei primeran egokitzea; izan ere, guk geuk objektu horiei ezarritako ezaugarriak dira aurkitzen ditugunak. Matematikak erabiltzen dituen judizioak giza esperientziaren objektu guztietarako balio dute. **Estetika**²¹ **transzendentala** arduratuko da matematikak erabiltzen dituen a priorizko judizio sintetikoaren baldintzak aztertzeaz.

Era berean, fisika ulermenaren kategorietan oinarritzen da. Kausalitatearen printzipioa kausaren kontzeptu hutsean oinarrituta dago. Beraz, Fisikak erabiltzen dituen judizioak ere a priorizko sintetikoak dira. Eta, modu berean ere, errealitate fenomenikoan bete egi-


21 Estetika: ezagutza sentikorra (estetikos: sentikorra, grekoz)

ten direla baieztatzen da, errealitate horri subjektuak berak eman baitizkio ezaugarri horiek. **Analitika transzendentala** arduratuko da fisikan erabiltzen diren a priorizko judizio sintetikoen baldintzak aztertzeaz.

Baina arrazoimenaren Ideiekin ez da hori gertatzen. Esan bezala, esperientzien sintesiak baino ez dira; beraz, ez dute inolako izaera enpirikorik. Gizakiak ezin du ideien pertzepziarik izan; ezin dira giza koordenada espazio-denboraletan jarri. Ez dira fenomenoak. Eta fenomenoak ez badira, ezin zaizkie kategoriak aplikatu, eta ezin da ideiei buruz a priorizko judizio sintetikorik sortu zilegitasunez. **Dialektika transzendentala** arduratuko da metafisikan erabiltzen diren judizioen baldintzak aztertzeaz.

7. Kantek ezagutzaren ikusmolde berria ekarri zuen, eta **transzental** deitu zion. Subjektua dagoeneko ezin da ezagutzaren jasotzaile pasibo gisa ulertu. Aitzitik, ezagutza-prozesuan parte aktiboa hartzen du, eta errealitate fenomenikoa (subjektuari agertzen zaiona) eraiki edo eratu egiten du, neurri batean. Gizaki guztiok, espezie bereko bizidunak izanik, a priorizko formen izaera eta erabilera konpartitzen dugu. Espazioa eta denbora, kategoriak, ideiak ez dira subjektutik kanpoko errealitateak (ez dira transzendentak), ez dira gauzen ezaugarriak. Baina ez dira subjektu horrenak bakarrik (ez dira subjektiboak). Transzentalak dira, giza esperientziaren baldintzak dira. Gizakiaren adimenak berezkoak ditu, eta errealitate guztiak horien gain eraikitzen dira.
8. Ondorio orokorra: metafisikaren aztergaiei (arima, mundua eta Jainkoa) ezin zaie zientzia teorikoaren trataera eman, arrazionalistek posible zela zioten arren. Horregatik, gai horien azterketara dedikatu direnak ez dira ezer zehatzik eta ziurrik finkatzera iritsi. Dena den, ideiek izaera enpirikorik ez duten arren, demostreaezinak diren arren, gizakiek egiatan balira bezala jokatu behar du: arima hilezkorra balitz bezala, askatasuna balego bezala, Jainkorik balego bezala.

Baina, ondorio hori atera ondoren, Kantek ez zuen gaia bere horretan utzi nahi izan, gai horiek baitira garrantzitsuenak gizakiaren bizitza eta gizadiaren aurrerabidea bideratzeko. Bestelako ikuspegi edo orientazio bat eman behar zaie, ideiak arrazoimenaren erabilera praktikoaren postulatuak baitira. Horrela, *Arrazoimen praktikoaren kritikari* ekin zion.



3.3.3.2. Arrazoimen praktikoaren kritika

Kanten ekarpen nagusia moral-mailakoa izan zen. Abiapuntua gizaki guztien kontzientzia morala da. Eta jokabide onak eta txarrak zein diren jakiteko, gizakiaren arrazoimenaren erabilera praktikoa aztertu behar da.

Arrazoimen hutsaren kritikan Kantek zer ezagut dezaket? galderari erantzuten dio: esperimentuaren bidez jaso daitekeena besterik ez. Baina gizakia ez da ezagupen hutsa. Horrez gain, gizakiak jardun egiten du, ekintzak sortu eta garatu. Gizakiak, ezagutzaren mugaz galdetzeaz gain, nola jokatu behar duen ere galdetzen dio bere buruari: *zer egin behar dut?*

Arrazoimena teorikoa²² edo espekulatiboa da ezagutzaz arduratzen denean. Baina bigarren galderari erantzutean, hau da, giza jarrera erregulatzeaz arduratzen denean, arrazoimena praktikoa da. Horrek ez du esan nahi bi arrazoimen dugunik, arrazoimen berak bi funtzio desberdin dituela baizik: bataren ardura da gauzak nolakoak diren ezagutzea; bestearena, gizakiaren jarrerak nolakoak izan behar duen. Eta azken horretaz arduratzen den zientzia Etika da. Kantek lehentasuna²³ eman zion arrazoimenaren erabilera praktikoa, gizakiaren askatasunarekin lotuta dagoenari.

Etika ez da zientzia deskriptiboa, Matematika edo Fisika bezala. Bi horien ardura gauzak nolakoak diren aztertzea eta deskribatzea da. Haien aztergaia *izatea* da, eta arrazoimen teorikoa baliatzen dira. Baina Etikak ez du gauzen izatea deskribatzen, zientzia arau-emailea da; hau da, jarrerak eta ohiturak *nolakoak izan behar duten* aztertzen du. Etikak ez du izatea aztergai (gauzak nolakoak diren), izan beharra baizik (nolakoak izan behar duten).

Zientzia deskriptiboa ez denez, ez du judiziorik igortzen; fenomenoei buruz, ez du esaten egia edo faltsua den. Etikak **aginduak, inperatiboak** igortzen ditu.

Arrazoimen mota	Ardura	Formula
Arrazoimen hutsa	Izatea	Judizioak
Arrazoimen praktikoa	Izan beharra	Aginduak

Ordura arteko etikak gogor kritikatu zituen Kantek. Antzinatean, gizakiak era askotako etikak sortu ditu, desberdinak eta kontrajarriak askotan. Baina Kantek, ilustratuen espirituak eraginda, etika bakarraren eta unibertsalaren existentzian sinesten du; etika naturala, a priorizkoa, beraz, beharrezkoa, gizaki eta kultura ororentzat baliouduna. Halako etika unibertsala ez daiteke materiala izan, ordura artekoak bezala; formala izan behar du.

3.3.3.2.1. Kantek etika materialei egindako kritika

Moral materialek zer-nolako bizimodu konkretua eraman behar den esaten dute. Moral materialek formulatzen dituzten aginduek on goren bat lortzeko —zoriontasuna gehienetan— zer egin, zein bide jarraitu, zein tresna edota baliabide erabili behar diren azaltzen dute.

Kantek bilatzen zuen etika unibertsala ezin zen horrelakoa izan, on goren hori —zoriontasuna, alegia— ez baitugu gizaki guztiok gauza eta egoera berdinetan aurkitzen.

²² Kantek arrazoimen hutsa esaten duenean, teorikoa esan nahi du.

²³ Esan daiteke Rousseauk piztu zuela Kantengan gizakien arteko harremanak aztertzeke interesa, Kantek berak aitortzen baitu Rousseauk zabaldu zizkiola begiak, eta gizakia ohoratzen ikasi zuela, gizadiaren eskubideak ezartzen saiatuz.

Kantek etika materialei honako eragozpen hauek aurkitu zizkien:

1. **Enpirikoak** dira. Edukia eta aginduak esperientzian oinarritzen dira; helburuak eta helburu horietara iristeko jarraitu beharreko bideak bizitza eta bizimodua behatuz ezartzen dituzte. Adibidez, epikurearrek diote gizakiaren helburua plazera dela, haurtzarotik horren bila baikabiltza. Horrela, bada, politikan parte hartzeak disgustuak ekartzen ditueenez, esaterako, politika alde batera uzteko printzipioa ezarri zuten.

Kantek ez du onartzen oinarri enpirikoa duen etikarik. Etikaren printzipioek **unibertsalak** izan behar dute, eta, ondorioz, esperientzia partikularretik aparteokak: **a priorizkoak**.

2. **Hipotetikoak** (baldintzatuak) dira. Etika materialek dituzten aginduak ez dira modu absolutuan adierazten, baldintza moduan baizik. Helburu bat lortzeko bidea aurkezten dute: «zerua irabazi nahi baduzu, Jainkoaren Legearen Hamar Aginduak bete beharko dituzu»; edo «bizitza luzea eta lasaia lortu nahi baduzu, moderazioz eta gehiegikeriarik gabe bizi beharko duzu»...

Kantek lortu nahi zuen etikaren aginduak ezin daitezke hipotetikoak izan. Nahikoa litzateke helburu hori lortzeko interesik ez duen pertsona bat agertzeko aukera, agindu horrek unibertsaltasunik ez izateko. Inork zerua irabazi edota bizitza luzea eta lasaia nahi ez badu, aginduak ez du indarrik.

3. **Heteronomoak** dira. Arrazoimenaren autonomiaren kontra doaz. Aginduak eta arauak norberaren arrazoimenaren kanpotik datoz, eta ezarritako on edo helburu konkretuek eta horiek lortzeko bideek borondatea zanpatzen dute, eta borondateari bakarrik dagokion lana ordezkatzan dute. Etika materialetan borondateak ez dio legea bere buruari ezartzen.

Kantek proposatutako etikak autonomia izan behar du: betebeharrean oinarritutakoa, helbururik eta baliabide konkreturik zehaztu gabe.

3.3.3.2.2. Etika formalaren proposamena

Etika materialak baztertu ondoren, Kantek aurrekoen akatsak izango ez dituen **etika formalak** proposatu zuen. Formalak, edukia edo materiala kendutakoan, forma hutsa gelditzen delako; borondatea ezerean mende jartzen ez duen etika.

Etika formalak irekia da; norberak bete behar du edukiz, baina ez kanpotik etorritako edo agindutako edukiz, norberaren arrazoimenak ezarritakoaz baizik. Beraz, ez du esaten zer egin behar den; hori norberak ikusiko du. Egin behar dena nola egin behar den baino ez du esaten. Ez du helbururik jartzen, ezta baliabiderik zehazten ere. Ez du materia esaten; forma zehazten du, ordea. Izan ere, norberak bere buruari ezarritako legeak baino ez dira bete behar. Kantek etikak onartzen duen legegile moral bakarria gizabanakoa da.

Honako hauek dira Kantek etika formalaren ezaugarriak:

1. **A priorizkoa** da; eta ez, enpirikoa: unibertsala eta beharrezkoa izateagatik gizaki guztiontzat baliaduna.
2. **Kategorikoa** da; ez, hipotetikoa: bere aginduak baldintzatu gabeak dira, absolutuak, eta betebeharrean oinarrituak daude.

3. **Autonomoa** da; ez, heteronomoa. Pertsona bera izango da ekiteko erabakia hartuko duena, legearen edukia bere buruari ezarriko diona, bere arrazoimenetik kanpoko inposaketarik onartu gabe.

Aurreko baldintzak betetzen dituen agindu bakar batean laburbiltzen da Kantek proposatzen duen etika formala: «Joka ezazu ekintzara bultzatzen zaituen printzipioa lege orokor bihurtzea nahi bazenu bezala». Formula horri **inperatibo kategoriko**²⁴ deitu zion. Agindu horrek ez du inolako edukirik; forma hutsa da. Ez du agintzen zer egin edo zer jarrera izan behar den, nola egin baizik. *Ohituren metafisikaren oinarritzea* lanean, inperatibo kategorikoaren beste formulazio hau aurkeztu zuen Kantek: «**Joka ezazu gizadi osoa helburutzat hartuta beti —bai zeure burua, bai beste norbait—, inoiz ez tresna gisa**».

Kantek proposatutako moralala *formala* izateak ez du esan nahi *ongiaren* kontzeptua bazterten duenik. Hala ere, aurrekoekiko aldaketa —moralaren mailako beste iraultza kopernikarra— berebizikoa da, legea edo printzipioa ez baita *ongiaren* kontzepzioaren arabera, alderantziz baizik: legea bera da *ongiaren* kontzeptua zehazten duena. **Legearekiko errespetua** da, beraz, etikaren oinarria. Errespetu horretan, lege hori betetzeko **Betebeharrean** datza bertutea (ona izatea edo ongia egitea). Gizakiaren ekintzak betebeharraren arabera izan daitezke; baina interesa edo onura lortzeko jokatzeko bada, ez da etikoki zuzena izango. Ekintza ona betebeharrak eragindakoa bakarrik da. Kantek hiru ekintza mota bereizi zituen:

- **Betebeharraren aurkako ekintzak.** Adibidez, dendari batek gehiegizko prezioak kobratzea erosleei.
- **Betebeharraren arabeko ekintzak.** Beste helburu bat lortzeko egiten direnak; adibidez, gehiegizko prezioak ez kobratzea bezeroak ez galtzeko.
- **Betebeharragatik egindako ekintzak.** Balio moralala duten bakarrak. Ez dira helburu bat lortzeko bitartekoak, helburuak dira berez; adibidez, dendariak gehiegizko prezioak ez kobratzea, bere betebeharra delako.

Betebeharragatiko betebeharra borondateak jarritako legearen arabera jardutea da. Gizabanakoaren ekintzak betebeharrak zuzendu behar ditu, ez zorientasunaren bila ibiltzeak. Horrela jokatzuz gero, borondate onak zuzenduta, betebeharra eginez, zorientasuna lortuko da, horren ondorioa baita.

3.3.3.2.3. Kanten moralaren postulatuetak

Hala ere, Kanti iruditu zitzaion bere moralala herrena zela: zorientasunaren bila ibiltzeak —baita aurkitzeak ere agian— ez baitu inola ere bertutea bermatzen, ez du pertsona hori moraliki ona denik ziurtatzen; bestalde, bertutean bizitzeak, ona izateak ez dakar zorientasuna nahitaez. Hori dela eta, postulatu²⁵ batzuk onartzera behartuta ikusi zuen bere burua.

Arrazoimen hutsaren kritikan ideia metafisikoen kritika egiten duenean, haien errealitate enpirikoa ukatu zuen, «pentsatutako izaki hutsak» direla esanez; ezin ditugu ezagutu. Hala ere, ideia metafisiko horiek errealitate gisa onartu beharra daude, nahiz eta ebidentek ez izan eta gainera demostreazinak izan; zenbait errealitate metafisiko ezinbestekoa da etika izan ahal izateko. Bestela, Kanten etikaren balio unibertsala ezinezkoa litzateke. Hiru dira postulatuetak: **askatasuna, arimaren hilezkortasuna eta Jainkoa.**

²⁴ Judizio kategorikoa: baldintzarik edo murrizketarik gabe baieztatzen edo ukatzen den judizioa.

²⁵ Postulatuetak ebidentek ez diren eta demostra ez daitezkeen egiak dira, baina edozein adierazpen egin ahal izateko ezinbestekoak.

- **Askatasuna.** Moral autonomia berma dezakeen bakarra. Askatasunik ez balego, hau da, gure ekintzak alde zuzenetik determinaturik egongo balira, ezin izango genituzke gure jarduerak epaitu; izan ere, ez legoke gure eskuetan beste ezer egiterik. Naturaren legeen ondorio den beharrezkotasunak fenomenoen mundua zuzentzen du, baina askatasuna ez da mundu horretakoa. Noumenoen²⁶ munduko errealitate bat izatea, berriz, ez da kontraesana.
- **Arimaren hilezkortasuna.** Pertsona bat ez da ona ekintza on bat behin egin duelako. Betebeharra ez da behin batean betiko betetzen. Ona izatea borondatearen legea etengabe betetzean datza. Hori ezin da bizitza honetan amaitu; horregatik, arrazoimenak arimaren hilezkortasuna eskatzen du.
- **Jainkoa.** Izatea (egoera den bezala) eta izan beharra (egoerak izan beharko lukeen bezala) ez dira inoiz erabat identifikatzen munduan. Jainkoaren existentzia ontzat eman beharra dago, harengan bi errealitate horiek bat diren izakia baita; beraz, Jainkoaren ideian dena izan behar duen bezalakoa da. Gainera, bizitzan izandako jarrerak nolabaiteko saria edo zigorra izan behar du, nahiz eta horiek ez duten jokabide onaren motiboa izan behar; ez bailitzateke zuzena izango betebeharra betetzeari dedikatu dioten bizitza eta interes partikularrei dedikatu dietenena berdin eta betiko amaitzea. Horregatik, Jainkoaren existentzia ere arrazoimen praktikoaren eskakizuna da.

3.3.3.2. Zer espero dezaket?

Kanten etikaren oinarritzko postulatuak *zer espero dezaket?* galderarekin lotuta agertzen dira.

3.3.3.2.1. Erljioa

Batetik, **erlijioarekin** lotu daitekeen galdera da. Kanten iritiz, gizakien hobekuntza morala da erlijioaren helburua. Baina gizakiak ez du zorientasunaren zain bizi behar, horrek ez du bere jokabide moralaren helburu izan behar, zorientasunak ez du baldintzatu behar. Dena den, zuzen jokatzuz gero, zorientasuna lortuko da. Izan ere, bertutetsuak zorientasuna merezi du. Bertutea eta zorientasuna *ongiaren* ideiarekin lotzen dira. Beraz, etikarekin bat datorren erlijioa da. Erljio ilustratua da, giza arrazoimenean oinarritzen baita. *Erljioa arrazoimen soilaren mugen baitan* (1793) liburuan, kristautasunaren interpretazio arrazionala egin zuen, eta Jesu Kristo gizaki moralaren eredu litzateke.

3.3.3.2.2. Zuzenbidea eta bakea

Bestetik, eta gizakiak eta gizarteak hobera egiteko itxaropenarekin, aurrerabidearekin ere lotu daiteke *zer espero dezaket?* galdera.

Jarduera bakoitzean, gizakia balio-juizio baten subjektu eta epaile da aldi berean (berak egiten du/bere kontzientziaren arabera). Baina bada gizabanako bakoitzari bakarrik ez dagokion eremu bat ere: zuzenbidea. Alor horretan, betebeharrak **ez dira etikoak, juridikoak baizik**. Ez dira norberaren barne-erabakiak jarriak; kanpotik datoz, inposatuak dira. Zuzenbide juridikoaren definizio hau ematen du Kantek: «Lege orokor baten arabera, norberaren aukeramenaren guztienarekin bat egiteko aukera ematen duen maximak zuzentzen duen ekintza da Zuzenbidea».

²⁶ Noumena: a) gauza bere baitan; b) adimenaren entea, adimenak pentsatutako gauza posiblea, baina zentzumenen objektu ez dena.

Bi eratako zuzenbidea bereizten du:

— Pribatua: ondareen jabetzak erregulatzeko.

— Publikoa: gizartearen/gizabanakoen harremanak erregulatzeko. Hiru mailatan banatzen du:

- Estatuaren barrukoa.
- Estatuen arteko harremanak zuzentzen dituen.
- Kosmopolita: estatuen gainetik, gizabanakoa munduko herritarra izanik, beste pertsonekin eta estatuekin izango dituen harremanak zuzentzen dituen. Errepublikaren federazio kosmopolita eratzea proposatu zuen.

Hori guztia behar bezala antolatzeko, nazioarteko erakunde bat eratzea proposatu zuen Kantek *Betiko bakea* liburuan (1795). Izenburuak aditzera ematen duenez, nazioarteko arazo guztiak bide baketsuetatik bideratzea eta, horrela, betiereko bakea lortzea litzateke erakunde horren helburua.

Kant ez zen izan bake unibertsalaz arduratu den lehenengoa. Rousseauk ere bake iraunkorri buruz hitz egin zuen, baina utopia-mailan, proposamen konkreturik egin gabe. Kanti, berriz, erreala iruditzen zitzaion hitzarmen orokor bat lortzea. Dena den, Kanten gizakiari buruzko ikuspegia ez da baikorra. Gizakia gaiztoa dela zioen, eta natura-egoeran gatazkak besterik ez zirela sortuko. Beraz, estatuak herritar bihurtzeak egingo du gizakia gizaki.

Aginteari dagokionez, Kanti gehiago axola zitzaion agintzeko modua aginte politikoa noren esku dagoen baino. Bi aginte bereizi zituen: legegilea eta betearazlea. Horrez gain, askatasuna bermatzea eskatzen zion, baina mugatua, denen askatasuna bermatzeko, ez gutxi batzuen. Eta hori aurrera eramateko, agintari ilustratua behar zela uste zuen. *Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna* lanean aritu zen miresten zuen Frederiko Handiarekin identifikatzen zuen printzearen ezaugarriari buruz, besteak beste.

3.3.4. IRAKURGAIA: *Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna*

Kantek hirurogei urte zituela idatzi zuen (1784), eta ordurako ezaguna zen, *Arrazoimen hutsaren kritika* argitaratua baitzuen.

Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna lanean, Ilustrazioaren ezaugarri guztiak defendatu zituen. Testu honetan agertzen da Kanten esaldi famatuenetakoa, «sapere aude», pentsa ezazu zure kabuz. Heldutasuna, adin-nagusitasuna lortu behar du gizakiak, gizarteak aurrera egiteko. Hori baita giza naturaren funtsezko helburua, aurrerabidea. Aurreiritziez eta superstizioaz libratu, eta norbere barruan bilatu behar da egiaren irizpide goren.

Testu honetan, argi utzi zuen pertsona ilustratua nolakoa den, agintarien, elizgizonen eta adituen jarrerak nolakoak behar zuten, garai ilustratuan bizi ote ziren... Azkenean, giza arrazoimenak zuzendutako kritika jasan dezakeena bakarrik onartu behar dela dio, bizitzako arlo guztietan.

Era berean, gizaki bakoitzak eta gizadiak etorkizuneko gizartearen hobekuntzarekin duen ardura azpimarratu zuen, hurrengo belaunaldien aurrerabidea ezin baita baldintzatu.

Nietzsche

4

4.1. NIETZSCHEREN GARAIA

XIX. mendearen ezaugarri bat iraultzak dira. Frantziako Iraultzaren ondoren, ideia liberalak zabalduz joan ziren Europa guztian. Ilustrazioaren ideiek eragina izan zuten, bai indibidualki, bai sozialki. Zalantzan jarri zen familia dinastikoen legitimitatea estatuburu izateko; eta jendea bere eskubideen kontzientzia hartzen hasi zen.

Industria Iraultzaren hasiera da: lurrun-makinek, motorrek, ehungailuek eta abarrek artisauek eta nekazarien lana ordezkatu zuten. Fabrikak ugartu ziren, eta, horrekin batera, klase berria sortu zen: langileria. Borroka handiak izan ziren lan-baldintzak hobetu nahian (14 ordu inguruko lanaldiak izan ohi zituzten). Langileak defendatzeko sindikatuak ere sortu ziren.

Mugimendu sozialekin batera, ideia marxistak, sozialistak eta anarkistak agertzen hasi ziren. Sufragio unibertsalaren aldeko taldeak ere izan ziren. Era berean, berrikuntza horien guztien aurrean, tradizionalistek lehengo garaira itzultzeko borroka eraman zuten aurrera. Baina liberalismoak aurre egin zien. Liberalak konstituzioak promulgatzeko borrokatu ziren, botere-banaketaren, askatasun ekonomikoaren eta berdintasunaren alde, besteak beste.

XIX. mende osoan, garrantzi handia hartu zuten sentimendu nazionalistek, Alemanian eta Italian bereziki. Napoleonek sortu nahi izan zuen inperioaren aurkako erreakzioa izan zen, eta estatu-nazioa, herrien burujabetza eta antzeko kontzeptuak lantzen eta aldarrikatzen hasi ziren. Alemanian, esate baterako, 1848. urtean, Frankfurtoko Batzarra bildu zen, Alemania osorako konstituzio bat ezartzeko asmoz. 1862an Bismarck Prusiako kantziler egin zuten, eta, horrekin batera, garai espansionista hasi zen. Prusiarrek Ipar Alemaniako Konfederazioa sortu zuten, baina Austria kanpoan utziz. 1871. urtean, Alsazia, Lorena eta hegoaldeko estatu germaniarrak bereganatu zituzten, eta *Reicha* (alemanez, *inperioa*²⁷) eratu zuten.

Bestalde, zientziaren eta teknologiaren garapenaren ondorioz, medikuntzan ere asko aurreratu zen. Lehenengo txertoak hasi ziren, higiena eta elikadura hobetu ziren. Horren guztiaren ondorioz, biztanleria bikoiztu egin zen Europan, batez ere XIX. mendearen azken erdian. Dena den, koloniak presio demografikoaren irteera izan ziren: mendean zehar, 40 milioi europar kolonietara joan ziren. Mende bukaerakoak dira garraio berriak: trenak, autoak. Energia elektrikoa kaleetara eta etxetara iritsi zen. Telegrafoa, telefonoa eta irratia ere asmatu ziren. Horrek guztiak bizimodu-aldaketa handia ahalbideratu zuen.

Kultura-mailan, Erromantizismoaren garaia da. Ilustrazioko arrazoimenaren unibertsaltasunaren aurrean, sentimenduak eta pasioak jarri zituzten, norbanakoaren berezitasuna, askatasunaren aldarrikapena.

Positibismoaren garaia ere bada. Metodo zientifikoa, enpirikoa bakarrik onartu zuten zientzia positiboek; hau da, datuen bidez demostra daitekeenak baino ez du balio. Mende honetan idatzi zuen Darwinek *Espezieen jatorria* (1859), izaki naturalen eboluzioaren teoria azaltzeko; ondorioz, ordura arteko ideia asko eta asko zalantzan jarri behar izan ziren.

Filosofiaren arloan, Alemanian erromantizismoan (*Sturm und Drang*, ekaitza eta oldarra) erabat murgilduta zeuden. Kanten eragina nabarmena da filosofo germaniar gehienengan.

²⁷ Inperialismoa garaiko fenomeno konplexua da. Potentzia kolonialak eta industriak nagusitu ziren, Alemaniak gain, Britainia Handia, Frantzia eta AEB.

Gehienek aldeko jarrera zuten, nahiz eta batzuk arrazionalismo kantiarraren kontra agertu ziren. Beste batzuek, berriz, beren sistema filosofiko partikularrak eratu zituzten, Kanten lane-tatik abiatuta. Azken horien artean, Fichte (1762-1814), Hegel (1770-1831) eta Schelling (1775-1854) dira aipagarrienak.

Bitalismoa ere aipatzekoa da. Mendebaldeko hazkuntza demografikoaren, zientifikoaren, teknologikoaren eta industrialaren kontrako erreakzioa izan zen, eta baita sistema filosofikoen (idealismoa, marxismoa, positibismoa...) kontrakoa ere. Bizitzaren instintuak eta joerak aldarrikatzen zituen balio nagusi gisa. Dena den, ezin da esan bitalismoa teoria edo joera organizatua izan zenik; autore batzuen artean sortutako komunitasunak biltzen ditu. Bitalisten esanetan, bizitza ez da arrazionala soilik; zentzurik ez duena, irrazionala, askoz ere hedatuagoa dago arrazionala dena baino. Mekanizismoa eta determinismoa ez dira errealak; askatasuna eta logikarik eza dira bizitzaren aspektu nabariak. Giza izaerak ez du arrazoimenera mugatu behar. Gizakia arrazoimena baino askoz ere gehiago da. Arrazoimena bera baino askoz ere indartsuagoak dira instintuak, sentimenduak, gogoak...

Filosofu bitalisten artean Schopenhauer aipatu behar da. Nietzscheregan izan zuen eragina aipatzekoa bada ere, Schopenhauerren pentsaera etsipenaren pentsaera da (sufrimendurik jasan behar ez izateko, desio guztiak baztertu behar dira). Aldiz, Nietzscheren bitalismoak ez du inola ere etsipenezko jarrerarik onartzen.

Eta, XIX. mendeko filosofiari buruz aritzerakoan, ezin ditugu ahaztu, besteak beste, Marx, Comte, J.S.Mill, Kierkegaard eta Feuerbach. Aipamena besterik ez, Nietzscheren pentsamendua garatzerakoan agertuko baita zergatik kritikatu zituen hain gogor sozialismoa, positibismoa, utilitarismoa, kristautasuna eta demokrazia; izan ere, Nietzscheren ustez, erregulartasuna eta berdintasuna, ahulezia eta gupida dituzte oinarri²⁸.

4.2. FRIEDRICH NIETZSCHE (1844-1900)

4.2.1. BIZITZA

Friedrich Nietzsche 1844. urteko urriaren 15ean jaio zen Prusian, Turingiako Röcken hirian, familia oso sinestun batean. Bost urte zituela hil zitzaion aita, eta orduz geroztik, amarekin, arrebarekin, eta bi izebarekin eta amonarekin bizi izan zen.

Sei urte zituela, Naumbergera aldatu ziren. Han, Friedrichek lehen eta bigarren mailako ikasketak egin zituen. Serioa, lotsatia eta oso sinestuna omen zen lehen urte horietan. 1859an Pfortako barnetegian sartu zen, bigarren mailako ikasketak jarraitzeko. Matematikan ez omen zen ona; musikan, aldiz, trebetasun handia erakutsi zuen. Schopenhauer irakurtzen hasi zen, eta horrek eragin handia izan zuen Nietzscheren filosofian. Garai horretan hasi zitzaizkion bizitza osoan desagertu ez zitzaizkion buruko minak. Hogei urterekin, Bonnera joan zen teologia eta filologia klasikoa ikastera. Amak artzain protestante egitea nahi zuen, baina ikasketa klasikoak bakarrik jarraitu zituen. Horretarako, Leipzigekeko unibertsitatara joan zen,

²⁸ Nietzscheren pentsamenduan horiei buruzko erreferentziak agertuko dira.

Ritsche-rekin ikastera; Richten zen orduko espezialista handiena eta Platonen itzultzailea. Garai horretan kristautasuna baztertu egin zuen.

1868an, Wagner eta haren emaztea ezagutu zituen. Musikariaren izaerak inpresionatu zuen Friedrich, eta, Schopenhauerrekin batera, gidaritzat hartu zuen, Wagnerrek *Parsifal* idatzi zuen arte.

1889an, 24 urte zituela, Filologiako katedra hartu zuen Basilean (Suitza), Ritschek gomen-datu ondoren, eta Greziako literatura irakatsi zuen.

Frantzia-Prusia Gerran parte hartu zuen, nahiz eta nazionalitate alemaniarrari uko egin eta suitzitarra hartu zuen, germaniarra zen guztiari zion gorrotoak bultzatuta.

Wagnerrek bere musikaren oinarri teorikoa izan zitekeen liburu bat idazteko proposatu zion, eta 1871n argitaratu zen *Tragediaren sorrera, musikaren espiritutik*. Akademikoen kritika eta eraso handiak jaso zituen lan horrek. Klaseak ia utzi behar izan zituen, prestatu gabeko irakasletzat hartu eta ikasleak ez zitzaizkiolako joaten.

1876an, Bayreutheko jaialdiaren inaugurazioan Wagnerren *Parsifal* opera entzun zuen. Erabat etsita utzi zuen lan horrek, mito germaniarren aldarrikapena egin beharrean, kristautasunaren sinboloak erabiltzen dituelako, Grial Santua, besteak beste. Eta Wagnerrekin zuen harremana behin betiko hautsi zuen.

1879an, irakaskuntza utzi egin behar izan zuen, gaixotu egin zelako²⁹. Europako hegoaldeko eguzkiaren bila joan zen: Riva, Genova, Sizilia, Niza, Venezia... Erroman, 1882an, Lou von Salome ezagutu zuen, neska azkar eta ederra. Friedrichek bitan proposatu zion ezkontzea, baina Louk beste hainbestetan ezezkua eman zion. Nietzscheren arrebak ez zuen lagundu, anaia berarengandik urrunduko zuen edozeren aurka baitzegoen. Lou von Salome denbora gutxira ezkondu zen, eta arrebak beste horrenbeste egin zuen.

1883. urtetik aurrera, Suitzako herri txiki batean pasa zituen udak; eta neguak, Nizan. Nietzsche gero eta bakarrago sentitzen zen. Gainera, buruko minak maizago zituen, eta, hori gutxi balitz, intentsitate handiagokoak izaten hasi ziren.

1888an, zorameneko egun batzuk pasa zituen Turinen. Hanka bat hautsita zuen zakur batekin errukituta ibili omen zen, gehiago tira ez zezakeen zaldi bat besarkatu eta musukatu zuen... Zentzugabeko eskutitzak idatzi zizkion lagun bati: Jainkoak utzitako tokia berak hartuko zuela...

Azkenean, Basileako psikiatria-zentro batean sartu zuten 1889an, 45 urte zituela. Ondoren, amak Jenako klinika batera eraman zuen. Ama hiltzean (1897), arrebak berekin eraman zuen Weimarrera. Ordurako, Nietzschek askotan ez zuen inor ezagutzen. 1900eko abuztuaren 25ean hil zen.

Nietzscheren pentsamenduren eragina XX. mendeko artean eta filosofian ikusten da, batik bat. Batzuentzat anarkista iraultzailea izan zen. Beste batzuek, berriz, Nietzscheren eragin ideologikoa ikusi nahi izan dute nazismoaren sorreran. Egia da nazismoak haren pentsamendua-aren ideia isolatu batzuk bereak egin zituela (supergizakia eta juduen kontrako jarrera, adibidez), baina ezin da ahaztu Nietzsche masa-mugimendu guztien kontrako etsai deklaratu zela, eta zabalkuntza germaniarra gorrotatzen zuela.

²⁹ Gaztetako buruko minez gain, soldaduskako erorketa baten ondorioak min handia sortzen omen zion, eta, horrez gain, badirudi sifilisa zuela.

4.2.2. IDAZLANAK

Nietzscheren pentsamendua eta lanak hiru arotan edo garaitan banatzen dira:

1. aroa: Schopenhauerren eta Wagnerren eragina (1870-1875)

Greziako tragedietan oinarritzen da, bizitzari buruz pentsatzen duena aurkezteko.

Tragediaren sorrera, musikaren espiritutik (1872): Sokrates baino lehenagoko eta ondorengo Greziako kultura aztertu eta interpretatu zuen, eta Alemaniakoarekin alderatu zuen. Wagnerren musikaren bitartez baino ezin salba zitekeen Alemaniako kultura.

Ezgaraiako hausnarketak (1873): Schopenhauerri eta Wagnerri dedikatua.

2. aroa: Aro ilustratua. Espirituaren askatasunaren defentsa (1875-1882)

Goi-mailako pentsalarien analisiak nagusitzen dira. Betiere, abiapuntua ikuspegi indibiduala da, ez kolektiboa. Aurreiritzirik gabe aztertu eta ezagutu behar da bizitza, zientzialarien antzera; baina sistema guztien gainetik jarrita eta defendatuta. Bizitzaren ikuspegi tragikoa ageri da. Bizitzan behin betiko aurrerakuntzarik ez dago, behin betiko noranzkorik ere ez dagoelako; baina, dena behin eta berriz itzultzen da, beharrezkotasunez.

Gizatiarra, gizatiarregia (1875-1879): Moralaren azterketa zientifiko bati ekin zion. Ona eta txarra ez dira azalpen metafisikoetan aurkitzen, onuragarriaren eta kaltearen moduko esperientzia materialetan baizik. Estilo zorrotz eta aforistikoa³⁰ agertzen da dagoeneko.

Egunsentia (1881): aurreiritzietan eta etsipenean oinarritutako moralaren kontrako lana.

Zientzia alaia (1882): Betiereko Itzuleraren lehendabiziko aipamena. Jainkoaren heriotzaren gaia agertu zuen, eta bizitzaren liberazioa ospatu zuen, Jainkoaren kontzeptua bizitzaren kontrakoa baita (legeak eta arauak ezartzen baititu). Jainkoa hil ondoren, bizitza da balio nagusia; ez da ezer gelditzen bizitzaren inpultsoaren gainetik. Kristautasuna bizitzaren aurkakoa da.

3. Hirugarren aroa: Botere-nahiaren garaia (1882-1889)

Jainkoak bere tronua utzi duenez geroztik, **botere-nahia** da gelditzen den indar gorena, bizitzaren balio nagusia.

Honela mintzatu zen Zaratustra (1885): Betiereko itzulera, supergizakia, balioen eraldakuntza tratatzen ditu.

Ongiaz eta gaizkiaz haraindi (1886): Botere-nahiaren oinarriak jartzen ditu.

Moralaren genealogia (1887): Balioen eraketaz dihardu.

Idoloen gainbehera (1888)

Antikristoa (1888)

Ecce Homo (1888): bere azken obra (autobiografikoa).

Azken lan horietan oso gogor kritikatzeko du kristautasuna. Bere azken lan gisa aurkeztu izan den *Botere Nahia* ez zuen Nietzschek idatzi, argitaratzaileek bildutako artikuluak baino ez dira.

30 Aforismoa: zientzian edo artean, erregela moduan jartzen den esaldi laburra.

4.2.3. NIETZSCHEREN PENTSAMENDUA

Lehenik eta behin, Nietzscheren pentsamendua azaltzeak duen zailtasuna aitortu behar da, edozein azalpenek sistematizazioa eta ordena eskatzen baitu, eta Nietzschek antisistematikotasuna aldarrikatu zuen. Hori gutxi balitz, idazle bikaina zen, eta, askotan, poeta-sena aske uzten zuen: metaforak, sinboloak, hitz-jokoak. Hala ere, zenbait ardatzen inguruan jiraka aritu izan zen beti.

4.2.3.1 Europako kulturaren kritika

Nietzschek zioen Europako kultura degeneratuta eta biziata dagoela. Bizitza ukatzen duen joera aurkitu zuen Mendebaldeko kulturaren, eta bereziki metafisikaren oinarrian.

Tragediaren sorreran Greziako kulturaren eboluzioari buruzko ikuspegi berri bat aurkeztu zuen. Ordura arte garai klasikotzat hartu izan zenari Nietzschek gainbeheraren garai deitu zion.

Greziarren bizitza ulertzeko zuten ezintasuna agertzen da tragedietan: bizitza liluragarria da, baina baita belduragarria eta arriskutsua ere. Hala ere, greziarrek ez zioten bizitzari uko egiten; ez zuten atzera jotzen. Bizitza den bezala onartzen zuten, datorrena datorrela. Artearen bidez egiten zioten aurre, tragediaren bidez. Bizitzak sortzen duen izuari aurre egiteko, bi era agertzen ditu tragediak: orekaren eta ezagutzaren bidezkoa, edota festaren eta instintuen bidezkoa. Lehenengoa Apolok sinbolizatzen zuen, edertasunaren, mugaren eta orekaren jainkoa; errepresentazioen munduaren, irudi eta formen munduaren sinboloa. Tragedietan elementu apolineoa elkarrizketetan eta pertsonailetan agertzen da, batik bat. Bigarrena Dionisok sinbolizatzen du, neurrigabekeriaren jainkoa, kontzientzia pertsonala deuseztatzen duen jainkoa; artea sortzeko ahalmenaren iturri, errepresentazioen azpian dagoen formarik gabeko munduaren jainkoa da. Tragedietan, koroan agertzen da, emozioak agerrarazten dituen musikaren bidez. Lehenengoak bizitza mozorrotu, estali eta edertu egiten du. Bigarrenak bizitza besarkatu egiten du, eta bizitza berez den bezala onartzen du.

Baina Greziako tragedia handitasunaren lekuko izateaz gain, gainbeheraren lekuko ere bada. Euripidesek egin zuen berrikuntzak tragediaren gainbehera ekarri zuen, koroarekin batera, bizitzari aurre egiteko alderdi irrazionala kendu zuen. Bizitzaren balioa bera zalantzan jarri zuen.

Hala ere, Sokrates izan zen errudun nagusia, betiere Nietzscheren interpretazioaren arabera. Ordura arte, greziarrek bizitzaren alde iluna ere onartzen zuten, eta horrek sortzen zion beldurra artearen bidez gainditzen zuten. Bizitza helburua zen; ez beste helbururik lortzeko bidea. Indartsuena, ederrena zen onena. Balio aristokratikoak ziren nagusi.

Baina Sokratesek arrazionalismoaren aldeko sekulako pausoa eman zuen, bizitzaren alderdi dionisiakoaren kontrakoa. Instintuak eta pasioak baztertu egin zituen, eta arrazionaltasunari lehentasuna eman zion. Haren esanetan, arrazoimenaren bidez lortzen da bertutea, eta gizaki bertutetsua da zoriontsu, betiereko egiaren jabe dena, egia horren izenean bizitzaren kontra joan behar badu ere. Kategoria unibertsalak bilatu zituen, hau da, egia objektiboa. Geroztik, egiaren jabe izatea bihurtu zen eredu. Baina betiereko egia horiek bizitzatik kanpo daude; Sokratesen asmakizunak baino ez dira, instintuak gaitzesteko.

Nietzscheren ustez, Sokratesek ez zuen arte dionisiakoaz baliatzeko ahalmenik, eta horregatik aztertu nahi izan zuen artea, zientziaren eta teoriaren ikuspegitik. Nietzscheren bizitzaren ikuspegia zeharo dionisiakoa zen, eta teoriari eta zientziari artearen ikuspegitik begiratze-ko proposamena luzatu zuen. Haren ustez, mundua izugarritzko indar iraunkorra da; eta haren muga, ezereza. Indar hori kaotikoa da, eta guztiaren aldaketa iraunkorra sortzen ari da, mun-

dua behin eta berriz sortzen eta suntsitzen ari da. Horrela, gizakia aske da, askatasun hori muga dezakeen ezer ez dagoelako naturan. Gizakia, izaki adimentsua izateaz gain, **bizi** egiten da.

Sokratesek joera horri hasiera eman bazion ere, Platonek areagotu egin zuen, bi mundu asmatu zituenean. Eta bi mundu horien artean, mundu sentikorra itxurazkoa dela esan zuen, maila baxukoa eta mespretxagarria, ideien kopia kaskarra; ideien mundua, berriz, ederra, ona, perfektua, gorena.

Errealitatea, berez aldakorra eta mugikorra, kategoriarik eta ordenarik gabea, aldaezinezko errealitate batez estali, eta ezkutatu egin zuten lehen arrazionalistek.

Gero, kristautasunak Platonen Ideien teoria plagiatu zuen. Monoteismoak eta moral judu-kristauak indarra hartu zutenean, pasioen eta sentimenduen aurkako joera indartu egin zen. Mundu honetako bizitza egiazko bizitza lortzeko bidea besterik ez da, hau da, Jainkoarekin bat egitea. Moral kristauaren azpian mendekuaren espiritua dago, eta hortik sortzen dira kulpa, kontzientzia, gupida. Juduen erruz, pobreak, sufritzen dutenak, errukarriak dira onak; Jainkoak onartutakoak dira. Aitzitik, indartsuak kondenatu egiten ditu. Kristautasunak larriagotu egin zuen egoera Jesusekin. *Jesusek Israeleko mendeku-espirtua bikaina* egin zuela zioen Nietzschek, *amu arriskutsua zela*. Greziako moral aristokratikoa *erresuminaren* moralak ordezkatu zuen. Ondorioz, indarra, pasioa, lehentasuna, ausardia gaitzetsi egin ziren.

Nietzschekek egiten duen historiaren interpretazio genealogikoan, beste aro bat ere bereizi zuen: Ilustrazioaren garaia. Mendebaldeko pentsamendu berriak Jainkoaren heriotza ekarri zuen. Baina haren lekua beste batek hartu zuen: arrazoimenak (estatua eta aurrerabidea, *ongiaren*, Jainkoaren ordezkari). Orduetik aurrera, gizakiaren pasioak eta instintuak arrazoimen zientifikoaren eta estatuaren arauen mende daude.

Zientziak, bere aldetik, ahalegin guztiak egiten ditu lege mekanizisten eta positibisten bidez bizitza esplikatzen. Bizitza ustezko erregulartasunean oinarritzen dela sinesten du zientziak. Baina Nietzschek ez zuen oinarri hori onartzen. Haren aburuz, bizitzan ez dago erregulartasunik; espontaneotasuna, mugimendua eta desordena dira bizitzaren ezaugarri nagusiak. Erregulartasuna gure adimenaren behar bat da, mundu kaotikoa ulertzerik ez dugulako; era logikoan ordenatutakoa bakarrik uler dezakegulako. Zientziaren determinismoa³¹ gizakiaren ideia bat da, gure arrazoimenak mugikorraren eta aldakortasunaren aurrean sentitzen duen izuaren ondorioz sortutakoa. Baina egia bakarra da determinismo hori ez dela erreala. Zientziak gure bizitza mundu arrazionallean hertsu nahi du, eta hori salatu beharra dago, bizitzaren potentzialtasun guztiak garatzen utzi nahi badira.

Bizitzatik kanpo gelditzen den asmakizun hori errealitatez mozorrotu du filosofiak; aldaezinezkoa eta perfektua izatearen itxura duen errealitatea, gainera. Eta errealitate horretan bilatu nahi du arrazoimenak bizitzaren munduko esplikazioa. Horretan dago, hain zuzen ere, okerra.

4.2.3.2. Europako moralaren kritika

Nietzschekek zioen gizakiak abere izateari utzi zionean sortu zela moralak. Aldaketa hori gizakia geroa kontuan hartzen hasi zenean gertatu zen, uneko gozamina alde batera utzita. Hori horrela, moralak taldearen emaitza kontsideratu behar da, gizabanakoaren bizi-iraupenaren eta aisetasunaren ziurtatzaile. Taldeko moralaren aginduak hiru eratan ezartzen zaizkio gizabana-

31 Determinismoa: dena lege natural iraunkorren arabera da.

koari: bortxaz (behartuz), ohituraz (barneratu gabe) eta kontzientziaz (berea eginez, aginduak betebeharrak bihurtuz). Nolanahi ere, moralaren aginduek gizartea gordetzeko balio dute.

Morala eta bizitza elkarren kontrakoak dira: gizarteak inposatzen dituen aginduz eta debekuz osatutako zerrenda bat baino ez da morala, eta bizitzaren bulkadak bortxatu egiten ditu. Baina helburua ez da gizabanakoa hobeto bizitzea; aldiz, gizarteak irautea bilatzen du. Moral guztiek berdin jokatzen dute: gizakiaren jarrera bideratzen dute, bizitzaren balioak alde batera utzita.

Europako moral tradizionalaren oker nagusia naturaren aurka joatean datza, bizitzan gizakiak berezko ez dituen eskakizunak jarri eta betearazten dituztelako. Moral horren aginduak bizitzaren kontrakoak dira, betiereko eredu artifizialaren eta orekatuaren antzekoak bihurtu nahi dute gizakia (apalak bihurtu). Baina eredu hori ez da bizitzan esperimendatzen; antinaturala eta alienatzailea³² da, gizakia eredu baten mendeko bihurtzen baitu.

Sokratesen ondoren gertatzen bada ere, alienazio horren bultzatzaile nagusia kristautasuna izan da, mundu honetakoa ez den *gizon moralaren* eredu sortu eta ezarri baitzuen. Moral kristauak ez du nahi giza bizi-nahia garatzea. Horren ordez, bizimodu altruista eramateko eta egoismoari uko egiteko agindua ematen du; zuzenak izateko agintzen du; etsaia bera ere maitatzeko araua ematen du... Hau da, instintu naturalen kontrako jarrera izatera bultzatzen du gizakia.

Hortaz, kristautasunarentzat gizaki perfektua ez da mundu honetakoa, baina kristau moralak esaten digu zer egin behar den mundu honetan ahalik eta perfektuen izateko. Beste mundu bateko morala da. Eta beste mundu horren izenean, mundu honetako balioak gaitzesten ditu.

Moraltasun honek nortasunaren aldakuntza sortzen du. Eragin horren ondorioz barneratu ditugun balio eta ahalmen, sentimendu eta bulkada guztiak Jainkoari dagozkio; bereak dira. Gizakiari ez dagozkio sentimendu horiek; ahulezia eta indar eza suposatzen dituzten bulkadak Jainkoak eskatutakoak dira, baina ez gizakiari benetan dagozkionak. Gizakia apala bihurtarazten du; umila eta obediente Jainkoaren aginduen aurrean. Moral kristauak noblea, indartsua eta osasuntsua erruduna bihurtzen du, *dohakabea ez izateagatik*. Moral horren arabera, betiereko balio haien izenean bizitzari uko egiten diona bakarrik izan daiteke ona. Nietzsche **artaldearen moral** edo **esklaboaren moral** deitu zion.

4.2.3.3. Erljioaren kritika

Erljioa gizakiak bere buruari dion beldurrarengatik sortu zen. Botere-sentimendua sortzen zaionean, ikaratu egiten da gizakia. Horren ondorioz, bera baino ahaltsuagoa den jainko bat asmatzen du, eta hari leporatzen dizkio botere-sentimendu horiek. Beraz, defentsa-mekanismo gaixo bat baino ez da erljioa.

Horrek esan nahi du erljioa gizakiaren alienazioan oinarritzen dela. Bereak dituen eskubiak beste batek, Jainkoak, lapurtzen dizkio, eta horrela, haren mende jartzen da. Ekintza gorenak beste baten izenean azaltzen dira.

Kristautasuna artaldearen balioak ezartzen saiatzen da gizakiarengan: obedientzia, sufrimendua, apaltasuna... Gainera, balio arruntenak dira, eta bizitzaren kontrakoak; izan ere, bizitzaren

³² Alienazioa: norberaren eskubideak beste batek bereganatzea, haren esklabo bihurtuz (*alius*: latinez, bestea; *alienus*: norberarena ez dena).

kontrako gorrotoan eta erresuminean oinarrituta daude. Hori besterik ez da kristautasuna: bizitzaren kontrako erresumina.

Jainkoak gizakia esklabo bihurtzen du, bizitzari zentzua ematen dion aldetik: balioak giza-kiarengan aurkitu ordez, Jainkoarengan aurkitzen dira. Baina Jainkoa desagertzen bada, ez da debekurik gelditzen, eta dena posible da. Orduan egirik ez dago, eta bizitzaren berezkotasuna eta balioak izango dira bizitzari zentzua emango diotenak.

4.2.3.4. Balio-taula berria

Nietzschekek Mendebaldeko **esklaboen moralak** zela esaten zuen. Ahulen, gaixoen eta, bereziki, botere-nahia aurrera eramaten ausartzen ez diren moralak da, erresuminak sortutakoa, inbidia-oren ondorioz. Ahulak ez dira ausartzen, baina inbidiaz eta gorrotoz begiratzen diete ausartzen direnei.

Esklaboen moralaren eredu eta adierazpen nagusia kristautasuna da: erresuminduen eta inbidiosoen erlijioa. Kristauek erabateko bira eman diete balioei, eta berak aurrera eramateko gai ez diren balioak txartzat hartu dituzte. Balio ahulekin eta zekenekin ordezkatu dituzte.

Erresuminaren moralak gizonen arteko berdintasuna predikatzen du. Hori bizitzaren kontrako balio nagusietako bat da, berdintasun hori bizitzan ez baita erreala inola ere; alderantziz, bizitza desberdintasunean oinarritzen da. Berdintasuna, zentzu guztietan, arrazoimenaren asmakizuna besterik ez da. Berdintasunaren balio horretan oinarritzen dira demokrazia, sozialismoa, liberalismoa eta ildo beretik doazen idealismo soziopolitiko guztiak, indartsuena, taldearen beharrik ez duena menderatu eta ahularen altuera berean jarri nahian.

Baina Ilustrazioak Jainkoaren lekuan Estatua jarri zuenean, gizakiak arauen mende jarraitu zuen. Alde batetik, aurretik zituen sinesmenak suntsitu egin zituzten; baina egia berriek —aurre-rabidea, estatua, egia zientifikoa— zapaldu egiten dute, ezin ditu erabat sinetsi. Baliorik gabeko gizakia eta gizartea da, baina balio propioak ezartzeko gaitasunik gabe, erabat degeneratua, noraezean. Garaiko Alemaniako gizartean joera horren sintomak agertzen hasiak zirela zioen Nietzschek.

Puntu horretan, gizakiak hil egin nahi du. Horri **nihilismo**³³ deitu zion Nietzschek. Nihilismoa bizitzeko borondateari uko egitea da; bizitzaren kontrakoa da guztiz. Hori saihesteko bide bakarra dago: **balioen eraldaketa edo transbalorazioa**. Ordura arteko balio faltsuak baztertu eta, haien ordez, bizitzaren benetakoak ezarri. Hori da Nietzschek esan nahi zuena bere buruari **immoralista** esaten zionean. Hasierako inozentziara bueltatu beharra dago, ume-arengana edo greziar presokratikoengana, *ongiaz eta gaizkiaz haraindi*.

Horretarako, Nietzschek beste balio batzuetan oinarritutako moralak proposatu zuen. **Nagusien moralak** bizitza (botere-nahia) garatzen laguntzen duen moralak da, bide horretan gora daraman bidea. Haren balioak indarra eta ahalmena dira, nobleziaren eta harrotasunaren balioak. Horretarako, ezinbestekoa da autoestimua handia; norberaren ikuspegi handia eta baikorra.

Horrelako moralaren jarraitzaileak ekintza handiko gizakiak izango dira; gogorrek tratuan, zalantzagabeak eta errukirik gabek, bereziki. Horientzat moralak ez da agindu batzuen zerbitzu-

33 *Nihil*: latinez, ezer ez.

pean egotea, norberaren izaera agertzea baizik. Nagusia dena nagusi agertuko da: harroa, noblea, denen gainetik jarriko da.

Nagusien morala bizitzaren morala da. Eta bizitza **botere-nahia** da; gizakia bere burua gainditzera eramaten duen bulkada iraunkorra; aldiro, ordura arte izan dena baino gehiago izatera bultzatzen duena. Moral berriaren arabera, botere-nahia indartzen duena ona da; eta alderantzizkoa, txarra. Bizitzaren inpultso hori era askotan gauza daiteke: biziraupen-joera, adibidez. Baina nagusiki, eboluzio iraunkorrean dagoen pertsona izateko nahian nabarmentzen da, besteen gainetik eta norberaren gainetik.

4.2.3.5. Supergizakia

Supergizakiak bakarrik du bizitzaren aldeko joera. Supergizakia bakarrik ausartzen da; berak bakarrik bizi du bizitza. Moralak jar ditzakeen oztopoei jaramonik egin gabe aurre egiten du. Indartsuenek bakarrik lortuko dute bide horretan abiatzea. Supergizakia bakarrik izango da besteen gainetik jartzeko gai, zoriontasunaren helburua baztertuta. Supergizakiak ez du zoriontasuna bilatzen, Jainkoak bakarrik ziurta baitzezakeen. Gizaki ahulen zoriontasunaren beharrak sortu ditu jainkoak eta moralak. Supergizakiak, berriz, ez du zoriontasuna bilatzen: hitz bat baino ez dela badaki. Indartsua da, eta egia hori onartzeko arazorik ez du: ez da inoiz zoriontsu izango, ez bizitzan ezta inon ere, baina ez dio axola. Eta zoriontasunaren beharrik ez sentitzean, ukatu egiten du Jainkoaren izatea. Jainkoa (ideia baino ez dena) hil egiten du Supergizakiak, eta bizitza bere eskuetan huts-hutsean gelditzen da. Beste munduko, metafisikaren munduko egirik ez dagoenez, gizakia da bere ekintzen erantzule bakarra, eta bere buruari helburuak jartzeko gai den bakarra. Gizakiak hartu behar du Jainkoaren tokia, arrazoimenak, zientziak eta aginterako instituzioek zapaltzen utzi gabe. Supergizakia da moral guztien gainetik dagoen bakarra, «ongi az eta gaizkiaz haraindi».

Gizakien helburua supergizakia izatea bada ere, horrek ez du esan nahi gizakiaren historiaren amaiera denik, ez da giza eboluzioaren bukaera. Nietzschek ez du esaten nolakoa izan behar duen, ez dago supergizakiaren eredu zehatzik. Eredu zehatz edo konkreturik balego, munduaren zentzua bihurtuko litzateke supergizakia; hau da, perfektua litzateke, eta Jainkoa berriz ere bistan egongo litzateke. Horrela, bizitzak berak zentzua galduko luke.

Supergizakiaren balioak indarraren balioak dira, eta gerra-egoeran hobeto garatzen dira bakean baino. Gerran, ez dute lekurik gizaki ahulen eta erresuminduen moralak predikatzen dituen balioek (errukiak batez ere). Horregatik esaten zuen Nietzschek gerra zela bizitzaren garapenerako egoera hoberena eta egokiena. Eta supergizakiaren adibide gehienak Errenazimentu garaikoak dira (Zesar Borgia, Alexandro VI.a, Napoleon III.a...); indar handikoak, bizitza eta botere-nahia garatzeko eskrupulurik gabeak.

4.2.3.6. Betiereko itzulera

Nietzscheren kezka morala **betiereko itzulera**ren kontzepzioan agertzen da argien. Juduen eta kristauen denboraren ikuspegi linealaren aurrean, bizitza zirkularra dela zioen, behin eta berriz errepikatzen ari da, memento bakoitza betierekoa izanik. Ez dago hasierarik, ezta bukararik ere. Inolako Jainkok ez zuen dena sortu ezerezetik, eta munduak ez du haren nahia eta helburua betetzen, azken egunera arte.

Beste bizitzarik ez dagoela onartzean, daukagun bakarra ez dugula alferrik galdu behar pentsatzen zuen Nietzschek. Mundua den bezalakoa da, eta horrela onartu behar da. Bizitzaren une bakoitza behin eta berriz errepikatuko dela pentsatuz bizi behar da. Aukeratutakoa behin eta berriz bizi beharko duela jasanezinezko ideia iruditzen zaionak ez du ongi aukeratu, ez du bizitza seriotasunez hartu. Bizitzaren pisuak zapaldu egiten ditu moral dekadentea dutenak. Moral horretatik askatu denak, berriz, bere ekintzak errepikatzea nahi du. Gizaki horrek, supergizakiak, munduaren ikuspegi dionisiakoa du.

Horixe da *betiereko itzuleraren* kontzepzioari eman behar zaion interpretazioa. Azkenean, irudi poetiko bat da. Nietzschek ez du esan nahi hilezkorrak garenik, errealtatea behin eta berriz errepikatzen denik benetan. Esan nahi duena da bizitza bakarra dugula, eta hori instant bakoitzean izan behar dugula kontuan; bizitzak eskaintzen duena poztasunez eta alaitasunez bizi behar dela, datorrena datorrela, norberaren eskuetan dagoena erantzukizunez aukeratzuz eta ez dagoena onartzuz.

Gizaki berria librea da, eta bizitza den bezala onartzen du, alderdi ederrekin eta baita ilunekin ere, garai bateko greziarrek bezala. Supergizakia izango da botere-nahiaren pisua jasateko gai den bakarra, hondoratu gabe. Nietzschek zioen Dionisoren berragerpena zela. Zaratustraren moral ere deitu zion.

Zaratustra edo Zoroastro Persian arabiarrek islama sartu aurreko erlijio profeta da, K.a. VI. mendekoa. Mundu grekoan, mirariak egiten zituen azti antzekoa zen. Nietzschek zioen moralaren kontrako ikur erabiliko zuela, morala sortu zuen lehenengoa izateagatik. Horrela dio *Ecce Homo* liburuaren azken atalean, *Zergatik naizen patu bat*:

Zaratustra izan zen, ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka horretan, gauzei eragiten dien benetako mekanismoa argitzen lehena. (...) Zaratustra dugu hutsegitearen sortzailea, guztietatik zorigaitzekoena: morala; beraz, lehena beharko du izan errakuntza aitortzen (...) Haren doktrinak, eta harexek bakarrik, du egiazkotasuna bertute nagusizat, hain zuzen ere, errealtateari ihes egiten dion idealismoaren koldarkeriari kontrajartzen baitzaio. (...) Egia aitortzea, arkulari iaioa izatea, horixe da persiarren dohaina. Ulertzen al zait?... Moralaren garaipena bere buruaren gain, bere aurkari edo antitesi bihurtzeko, hau da, ni bihurtzeko, hori esan nahi du nire ahotan Zaratustraren izenak.

Honela mintzatu zen Zaratustra liburuan supergizakiaren etorrera azaltzen du, hiru eraldakuntzen ondorioz:

1. Hasieran, espiritua gamelua da. Lege moralaren handitasunaren mende bizi da, makurtuta. Idealismoaren mendeko gizakia da. Zama handia darama gainean; baina onartu egiten du, betebeharra baitu goiburu.
2. Lehoiak Idealismoaren gainbehera adierazten du. Gamelua betebeharraren zamaz libratzen denean, lehoi bihurtzen da. Ordura arteko balioei kontra egiten die, baina ez da balio berriak sortzeko gai.
3. Azkenik, lehoia haur bihurtzen da. Haurrak jokoak asmatzen ditu, arau berriak sortzen ditu. Horrela joango da liberatzen gizakiaren espiritua moral zaharraren zametatik. Umearen hasierako inozentziara itzuliko da, behin eta berriz, betiereko itzuleran.

4.2.3.7. Hizkuntza eta errealitatea

Nietzscheren aburuz, hizkuntza izan da eredu platonikoak inposatzeko erabili duen tresna-rik baliotsuena. Hitzak —partikularrak izendatzeaz gain— multzoak izendatzeko erabiltzen hasten direnean, kontzeptuak sortzen dira. Horrela, *zakur* kontzeptua, zakur bakoitzak dituen ezaugarri indibidual guztiak baztertuz eratu da, zakur guztiengandik aparteko eredu bat existituko balitz bezala; eta zakur guztiak horren arabera sortu izan balira bezala³⁴.

Baina Nietzschek dio banako horiek, objektu singular horiek, ez direla inoiz erabat berdinak. Kontzeptu bat adierazten duen hitz bat erabiltzean, orokortu baino ez da egiten. Gizakiak abstrakzioarako duen gaitasunetik dator orokortzeko joera. Zentzumenek ingurunetik jasotako sentipenak metafora bihurtzen dira, ohituraz. Hori horretan gelditu izan balitz, ez zuen arazorik sortuko. Baina, platonismoaren eraginez, kontzeptuak adierazten dituzten hitzak objektu indibidualak adieraziko balituzte bezala erabili izan dira, horiek adierazitakoak izaera substantziala izango balu bezala. Eta hori ez da okerrenea: gizakia izugarritzko eraikuntza zientifikoa eta kulturala eratuz joan da historian zehar, horretaz ohartu gabe. Airean egindako eraikuntza da, hodeietan oinarritutako gaztelua. Gizakiari oso zaila egiten zaio irtenbidea aurkitzea hizkuntzak sortutako sarean: «Jainkoaren ideiaz ez garelako libratuko uste dut, gramatikan sines-ten jarraitzen baitugu».

Hizkuntzaren erabilpen oker horren bidez, hasierako erabilpena metaforikoa zela erabat ahaztu egin du gizakiak dagoeneko, «berdina bihurtzen da desberdina dena», errealitatearen benetako izaeratik —askotarikoa eta aldakorra—, *egiatik* gero eta gehiago urrunduz.

Eta eraikuntza horren erdian **egiatasunaren** kontzeptua dago. Kontzeptu hori mundu idealaren existentzian oinarrituta dago. Nietzscheren ustez, ez dago berezko egiarik mundu idealaren existentzia ukatzean. Egia, orduan, balio pragmatikoan datza, erabiltzean hartzen duen esanahian.

Ezinbestekoa bihurtzen da, orduan, kontzeptuen historia aztertzea; pentsamenduaren historian emandako pausoak atzeraka eman behar dira orain, okerrak non dauden aurkitu eta konpondu ahal izateko. Ikerketa horretan jardungo duen diziplinari Genealogia deitu zion Nietzschek.

Zientzia hizkuntzan oinarritzen da, errealitatean iraunkorra dena bilatzen du, eta judizioak eratzen ditu. Baina zientziak errealitatea sinplifikatu egiten du, matematizatu egiten baitu, zenbaki huts bihurtzen baitu. Alabaina, errealitatea askotarikoa eta aldakorra da. Gizakiaren arrazoimena ez da inoiz iritsiko errealitatea egiatan ulertzerara, ezagutzera; berak asmatutako iraunkortasunean oinarritu behar baitu.

Errealitateari hurbiltzeko era bakarra **estetikaren** bidezkoa da, **artearen** bidezkoa. Izan ere, edozein ezagutza lortzeko maskara eta errepresentazioa ezinbestekoak dira, tragediako pertsonaiak erabiltzen zituzten maskarak. Orduan, egiaren bilatze horretan, artistak, komedianteak, bufoiak ordezkatu beharko du zientzialaria. Horregatik zioen Nietzschek bera bufoia zela, eta filosofiari dantzariaren oin arinak eman nahi zizkiola, eta amildegiaren ertzean barre egin, eta, horrela, filosofia egia bilatzearen arduraz, moralaren pisuaz libratu.

4.2.3.8. Nietzsche eta Ilustrazioa

Pentsalari batzuen ustez, Nietzsche Ilustrazioaren (modernitatearen) idealen kontrako erromantizismoaren ordezkari hartu behar da, arrazionalismoarekiko eta aurrerakuntzarekiko

agertzen duen mesprexuan oinarrituz. Zientziarekiko kritika eta sozialismoaren eta idealismoaren kontrako jarrerak ere ildo beretik bultzatzen dute.

Beste batzuek, berriz, Ilustrazioaren idealak azken ondorioetaraino eramateko ausardia izan zuen bakarra izan zela uste dute, aurreiritzi eta sineskeria guztien kontrako etsai handiena izan baitzen, arrazionaltasunarekiko fedea barne. Ikuspegi horren arabera, **egiaren** bilatzaile nagusia litzateke Nietzsche, egiaren ezagupena guztiaren gaineratik jartzen duena: «egiarik gabeko bizitza, bizirik hilda egotea da». Baina ez da zientzia edo moral tradizionalaren **egiari** buruz ari, egia hori «konbentzio finkoen arabera gezurra esatea» baino ez baita; **egia liberatuari** buruz ari da: «metaforaz osatutako armada mugikorra».

Garbi dago bizitzaren aldeko balioak aldarrikatu zituela, errudun sentimenduak alde batera utzita. Gainera, aurrerabidearen izenean hasi berria zen munduaren teknifikazio-prozesua salatu zuen; halaber, salatu egin zuen estatuak, bere helburuak betetzeko, morroitzat hartua zuela zientzia.

4.2.4. IRAKURGAIA: *Zergatik naizen patu bat*

Ecce Homo liburu autobiografikoaren azken kapitulua da. Esan liteke Nietzscheren planteamendu garrantzitsuenak laburbiltzen dituela testu honek: zer diren erlijioak, egiaren esanahia, balioen eraldaketa, idealismoaren kritika, kristautasunaren kritika, Zaratustra, supergizakia... Hori dena pasioz betetako estiloa erabiliz aurkeztu zuen Nietzschek. Bere burua patu ikusten du, bufoi, pailazo, santu baino gehiago. Azkenean, Mendebaldeko kulturaren gainbehera salatzen du indarrez betetako testu honetan. Bizitzaren aldarrikapen harroa dela esan daiteke.

Wittgenstein

5

5.1. WITTGENSTEINEN GARAIA

XX. mendean gertatu ziren historian zehar inoiz izan diren aldaketa teknologiko, zientifiko eta sozial handienak, ugarienak eta azkarren hedatu direnak. Baina era berean, kontraesanez eta gatazkaz betea egon zen, inoiz izan diren gerra gogorrenak, genozidioak, faxismoa, nazismoa, diktadurak...

Lehen Mundu Gerra 1870eko Frantzia-Prusia Gerraren ondorioa izan zen. Bi estatuen arrotasun ekonomikoa eta nazionalismo erradikala izan ziren gatazkaren benetako arrazoiak, nahiz eta gerra Frantzisko Josef Artxidukea Sarajevon erail zutenean piztu zen 1914an. Lau urtez luzatu zen gerra horretan bi bloke izan ziren: alde batetik, Alemania eta Austria; eta bestetik, Britainia Handia, Frantzia eta Errusia. AEBk 1917. urtean parte hartzea erabaki zuen, Frantziaren eta Britainia Handiaren alde.

Bigarren Mundu Gerra 1939. urtean hasi zen. Irailaren lean, Hitlerrek Poloniari eraso zion, eta bi egun geroago, Frantziak eta Britainia Handiak gerra deklaratu zioten. Errusiak eta Txinak bat egin zuten Frantziarekin eta Britainia Handiarekin; eta Japonia eta Italia, berriz, Alemaniaren alde agertu ziren. Bi urte geroago, AEBk aliatuen alde egin zuen. Gerrak 1945eko martxoan arte iraun zuen Alemaniarentzat, eta irailaren 2an errenditu zen Japonia, Hiroshima eta Nagasaki bonbardatu ondoren.

Bi gerrek aldaketa kualitatibo handia ekarri zuten gerra egiteko moduan:

- Triskantza izugarriak eragin zituzten (10 milioi hildako, Lehen Gerran; eta 30 miloi, Bigarrean).
- Teknologia berria erabili zen (abioiak, itsaspekoak...).
- Abangoardiaren eta erretagoardiaren arteko bereizketa ezabatu zen.
- Defentsarik gabeko hiriak bonbardatu ziren (Londres, Dresden, Hiroshima...).
- Armamentu atomikoa erabili zen (Hiroshima, Nagasaki).

Gerren artean izan ziren beste gertakizun politikoez, ekonomikoez eta militarrek gizartea erradikalizatu egin zuten:

- Errusiako Iraultza, 1917. urtean.
- Faxismoaren eta nazismoaren gorakada:
 - Italian, 1922. urtean, Mussolinik Erromako Ibilaldia antolatu zuen 126.000 gizonekin, eta Viktor Emanuel erregeak gobernuburu izendatu zuen.
 - Alemanian, Hitler agintera iritsi zen 1933. urtean. Bost urte geroago, Austrian sartu zen. Urtebete geroago, Poloniari eraso zion, eta, ondorioz, Bigarren Mundu Gerra hasi zen.
- 1929. urteko krak ekonomikoa: kapitalismoari buruzko itxaropen optimista utopiko guztiak bertan behera gelditu ziren.
- Espainiako Gerra (1936-1939): Bigarren Mundu Gerraren atariko izan zen, bai teknologikoki, bai bloke ideologikoen aldetik.

XX. mendearen lehen erdia, gogorra izateaz gain, bereziki bidegabea izan zela esan daiteke, honako arrazoi hauengatik:

- Gertatu ziren genozidioak (Alemanian, Errusian eta Txinan, bereziki).
- Europako estatu kolonialistek egindako Afrikako banaketa, hango errealitateari ezertarako erreparatu gabe, estatu horien interesak irizpide bakarra izanik.
- Europa barruan, klaseen arteko bereizketa oso handia zen, eta ez zen produkzioan baka- rrik gertatzen, urbanismoan ere isla zuen: auzoetan eta hirietan desberdintasunak naba- riak ziren. Desoreka horrek langile-mugimendu indartsu ugari sortu zuen.

Dena den, mendearen hasieran, baikortasuna oso zabaldua zegoen. Hagako konbentzio- ituna sinatu zuten munduko estatu garrantzitsuenek adierazi zuten inoiz gerrarik eta injustizia- rik gabeko mundu berri bat sortzen ari zela. Baikortasunaren sustraiak itxaropentsuak ziren:

- Langileen Internazionalek (2. AIT) indar handia zuten, eta solidaritate-ekintzak eta era- kundeak hedatu zituzten. Gerra ezinezkoa zela pentsatu izan zen.
- Bigarren industrializazioak sortu zuen bizimoduaren hobekuntza (8 orduko jardunaldia, aurrerapenak osasungintzan, txertaketak, prentsa idatzia, irratia...).
- Positibismoaren zabalkuntza. Ideologia horren arabera, gizarteak heldutasuna lortu du, azken etapara iritsi da: etapa positiboa, datuaren eta zientziaren garaia.

Lehen Mundu Gerrarekin eta krisialdi ekonomikoekin (bereziki 1929koa) baikortasun hori bertan behera erori zen.

Baina Wittgensteinek ezagutu zuen mundua berritzailea eta sortzailea izan zen, agian giza- kiaren historiak izan duen une berritzaileena. Eta bizitzako arlo guztietan ikus zitekeen:

- **Zientzia:** 1900ean, Max Plankek fisika kuantikoa sortu zuen, Newtonen teoriak indar- gabe gelditu ez baziren ere. Einsteinek 1905. eta 1920. urteen artean argitaratu zuen erla- tibatitatearen teoriak espazioari eta denborari buruzko ikuspegia erabat aldatu zuen. Ondo ordenatutako unibertsoaren hipotesia baztertzen hasi zen; eta unibertsoa gidatzen zuten lege betierekoen, aldaezinen eta ezagunen kontzientzia desagertu egin zen. Flemingek penizilina aurkitu zuen 1929an.
- **Teknologia:** Aurrerapenek ez dute mugarik, eta inoiz ezagutu ez den abiaduraz gertatzen dira gainera: industria-makinak, erregai berriak, garraioak...
- **Artea:** Arlo honetan ere aldakuntzak etengabeak dira. Abangoardiako artearen hasiera izan zen. Musikan, Stravinskiren *Udaberriaren sagaratzea* estreinuak balletaren mundua aldatu zuen, eta Schönbergekek musika dodekafonikoa asmatu zuen. Pinturan, Picassok eta Pariseko taldeak kubismoa sortu zuten; Kandinskyk pintura abstraktuaren lehen oina- rriak jarri zituen; Matissek fauvismoari hasiera eman zion. Surrealismoaren eta espre- sionismoaren garaia ere bada. Eskulturan eta arkitekturan bide berriak ireki ziren. Arte berriak ere sortu ziren: argazkigintza, zinema...

5.1.1. FILOSOFIA MENDEAREN HASIERAN

XX. mendearen hasieran, aurreko mendeko hainbat mugimendu filosofiko indarrean zeu- den: marxismoa, existentzialismoa, bitalismoa... Mugimendu analitikoa garai honetan garatu zen, eta harreman estua izan zuen Wittgensteinekin.

Mugimendu analitikoak hiru aldi ditu. Eskola desberdinak direla esan badaiteke ere, bateratzen zituen ezaugarri bat dute: filosofiaren jarduera nagusia hizkuntza aztertzea da, analisi logiko-linguistikoa.

Hauek dira mugimendu analitikoaren hiru joerak:

1. Atomismo logikoa (Bertrand Russell).
2. Neopositibismoa (Vienako Zirkulua).
3. Filosofia analitikoa (Cambridgeko eta Oxfordeko taldeak).

5.1.1.1. Atomismo logikoa

Logika formalaren lehen urratsak Georges Boolek eman zituen XIX. mendearen erdialdean, Leibnizek bi mende lehenago egin zuen ahaleginari jarraituz. Gottlob Fregek Boolean lanari jarraitu zion, eta logika matematikoaren oinarria ezarri zuen. Frege eta Bertrand Russell dira atomismo logikoaren sortzaileak.

Mugimendu horrentzat mundua unitate anitzez eta isolatuz osatuta dago, unitate bakun gisa ikusten duten idealisten kontra. Unitate horiek ez dute beren arteko loturarik; objektu bakoitza atomo bat da, eta bakuntasunean ezagut daiteke. Unibertsoa ezagutzeko modu bakarra elementu isolatuak ezagutzea da, eta elementu horiek ezagutzeko modu bakarra logika da.

Unibertsoa ez da osotasuna, zatiak baizik. Munduaren egitura logikoa matematikaren egitura logiko berbera da, eta hizkuntzaren bidez ezagutzen dugu. Baina hizkuntzaren bidez esan daitekeen guztia errealitatean aurki al daiteke? Esan daitekeen guztiaren existentzia egiazta al daiteke?

Atomismo logikoaren arabera, errealitatean aurki ez daitekeenak —egiazta ez daitekeenak— ez du zentzurik, eta baztertu beharreko enuntziatua da, zientziaren ikuspegitik. Beraz, enuntziatu metafisiko guztiak baztertu beharrekoak dira, egiaztagarriak ez direlako.

Horregatik, filosofiaren eginbearra zentzua duten enuntziatuak eta zentzurik ez dutenak bereiztea da; hau da, egiaztagarriak direnak aurkitu eta egiazta ezin direnak baztertu.

5.1.1.2. Neopositibismoa (enpirismo logikoa, positibismo logikoa)

XIX. mendean, August Comtek sortu zuen positibismo³⁵ deritzan filosofia. Haren ustez, giza ezagutzak fenomenoak (zentzumenek jasotzen dutena) bakarrik aztertu behar ditu. Datuetara, zenbakietara ekar daitekeena baizik ez du aztertu behar.

Bitalismoak gogor eraso zion teoria horri, datuek eta zenbakiek ez baitute bizia jasotzen, bitalisten ustez. Datu matematikoen biziarekin zerikusi handirik ez duen mekanizismo hutse-
ra ekartzen dute dena. Ondorioz, positibismoak atzerakada ezagutu zuen.

Urte batzuk geroago, 1920. urtearen inguruan, positibismoaren indarberritzea gertatu zen, *positibismo logiko* edo *neopositibismo* deitua. Mugimendu horrentzat ere, datuak baino ez dira kontuan hartu behar. Zentzumenean esperientzian dago munduaren datuen ezagutza posible

³⁵ *Positum*: latinez, emana, jarria..

guztien muga, eta errealitateaz hitz egiten duten proposizioek ematen dute errealitate horren berri. Metafisikaz hitz egiten duten diskurtsoek ez dute zentzurik, ez baitute inolako errealitatek adierazten, ez dira egiaztagarriak (ezin da frogatu egiak ala faltsuak diren), eta horregatik ez dira fidagarriak.

Beraz, filosofiak aztertu behar du zein proposizioek adierazten duen errealitateko gertakarien bat (zentzua duen proposizioa), eta zeinek ez duen adierazten (zentzurik ez duen proposizioa). Horrez gain, horien artean, erregela sintaktikoen arabera ondo eraikia dagoen proposizioak bakarrik du zentzua.

Hortik abiatuta, hizkuntzaren azterketa bilakatu zen filosofiaren eginkizuna: zein proposizioek islatzen duen errealitateko gertakarien bat (zentzua duen) eta ondo ala gaizki eraikia ote dagoen aztertu behar du.

Moritz Schlick Vienako unibertsitateira iritsi zenean, hasi ziren bilerak egiten mugimendu horretako partaideak (Hans Hahn, Otto Neurath, Rudolph Carnap, Philip Waissman, Victor Kraft...), 1920. urtean.

Wittgensteinen *Tractatus* liburua argitaratu zenean, 1921. urtean, talde horren ia jardun guztia liburuaren tesiak komentatzera mugatu zen. Wittgenstein ez zen inoiz talde horren partaide finkoa izan, baina eragin handia izan zuen taldean.

Hasieran talde heterogeneoa bazen ere, laster postura baterakoiak hartzera iritsi ziren. Horrela, 1929. urtean dokumentu baterakoi bat argitaratu zuten, *Munduari buruzko ikuspegi zientifikoa: Vienako Zirkulua*. Dokumentu horretan, taldeak metafisikaren kontrako jarrera adierazi zuen, eta tradizio enpiristaren eta materialistaren alde agertu ziren.

1930. urtean, Carnapek *Filosofiaren analak* aldizkariaren zuzendaritza hartu zuen —gero *Erkenntni* (ezagutza) izenez ezagutu zen—. Aldizkari hori mugimendu neopositivistaren adierazpen-organoa bilakatu zen.

Nazismoa agintera iritsi zenean, taldea desegiten hasi zen. 1936an, Vienako unibertsitateko eskaileretan ikasle nazi batzuek Moritz Schlick erretorea erail zuten, judua izateagatik. Horren ondorioz, taldea erabat suntsitu zen, eta partaide gehienek Ameriketako Estatu Batuetara jo zuten, hango filosofoen laguntzari esker.

Ordurako, Wittgensteinek Cambridgeko unibertsitatean irakasten zuen, eta ideia filosofiko berriak defendatzen zituen. Hala ere, hizkuntzaren filosofia egiten zuen. Pentsamendu berri horren inguruan sortu zen Mugimendu Analitikoaren hirugarren eskola: filosofia analitikoa.

Vienako Zirkulua Wittgensteinen *Tractatusen* oinarritu zen honako iritzi hauek defendatze-ko, inoiz autorearen iritzien aurka:

- **Logika matematikorako** interesa. Mundua eta jakintza zientifikoa egoki islatuko duen hizkuntza eredugarria logika matematikoarena da (hizkuntza berria eta perfektua).
- **Egiaztatze-irizpidea**. Proposizio onargarri bakarrak analitikoak (ideien arteko erlazioak) eta sintetikoak (esperientziazkoak) dira. Lehenengoak logikarenak eta matematikarenak dira. Bigarrenak, zientzia esperimentalarenak. Proposizio analitikoak egiazkoak dira tautologikoak direlako, eta ez dute egiaztapen beharrik. Proposizio sintetikoek, aldiz, egiaztapen enpirikoa eta esperimentazioa behar dute.
- **Fisikalismoa**. Fisikaren hizkuntza eta horren metodo esperimentalak hartu zuten eredutzat. Taldeko partaide asko fisikariak ziren (Einstein, Franck, Popper...).

— **Metafisikaren aurkako jarrera.** Proposizio metafisikoak ez dira analitikoak, eta ezin dira esperientziaren bidez ezagutu; beraz, ez dute zentzurik. Postura hori muturreraino eramango dute Vienakoek, eta ukatu egin zuten mundu metafisikoa badagoenik. Aldiz, Wittgensteinek esaten zuen mundu horretaz ez daitekeela zentzuz hitz egin, baina horrek ez duela esan nahi ez dagoenik.

5.1.1.3. Filosofia analitikoa

Wittgensteinek Cambridgen doktoretza lortu zuenean *Tractatus* lanarekin sortu zen mugimendu hau. Wittgenstein lehenago hasia zen *Tractatusen* ageri ziren ideietatik urruntzen, urte horietan idatzi zituen irakasle-apunteetan ikus daitekeenez.

Urte horietako apunteak *Koaderno urdina* eta *Koaderno marroia* lanetan jasota daude. Dena den, ez ziren argitaratu Wittgenstein hil arte. Lan horietan ageri den pentsamendua malguagoa da, aurreko pentsamenduarekin alderatuz gero. Hizkuntza ez da jadanik errealitatea islatzeko tresna soila, ezta errealitatearen irudia ere. Hizkuntzak hainbat eta hainbat helburu eta funtzio izan ditzake; **hizkuntza-joko** asko dago, eta joko bakoitzean hitz beraren esanahia desberdina izan daiteke. Bestetik, hizkuntza ugari dira posible, eta denak egokiak izan daitezke, zein zentzutan erabiltzen diren badakigu.

Pentsamendu berri hori *Koaderno urdina* eta *Koaderno marroian* agertzen hasten bada ere, *Ikerketa Filosofikoa* deritzan liburuan formulatuko da bereziki. Liburu hori 1937. urtean presatzen hasi zen, eta bi ataletan egin zuen, 1941. eta 1947. urteetan. Liburu hori Wittgenstein hil ondoren argitaratu zen.

Liburu horietan ageri den pentsamenduari jarraiki sortu ziren Filosofia Analitikoaren ize-narekin lotzen diren taldeak: Cambridgen, bata (Wisdom, Malcom, Paul...); eta Oxforden, bestea (Ryle, Austin, Strawson...).

5.2. LUDWIG WITTGENSTEIN (1889-1951)

5.2.1. BIZITZA

Ludwig Wittgenstein Vienan jaio zen 1889. urteko ekainaren 26an, bederatzi senideko familia judu batean. Aita altzairu- eta burdina-saleroslea zen, eta familia aberatsa izateaz gain, oso kulturazaleak ziren. Beste anai-arreba guztiak bezala, etxean hezi zuten hamalau urte bete arte, irakasle pribatuekin. Ludwigek kulturaren adar guztietarako zuen interesa ulertzeko, kontuan hartu behar da mendearen hasieran Vienako egoera kulturala oso aberatsa zela zientziaren eta artearen alor guztietan, han bizi baitziren Einstein, Freud, Mach zientzialariak, Brahms, Schönberg, Mahler musikariak, Kokoschka, Klimt pintoreak, Zweig idazlea, eta abar.

1903. urtean, Linzeko Realschulen (Austria) burutu zituen ikasketak, zientzia eta hizkuntza modernotan, bereziki.

1906. urtean, batxilergoko ikasketak bukatu zituen, eta Berlingo Eskola Teknikoan matrikulatu zen, ingeniari-tza aeronautikoa egiteko.

1908. urtean, Manchesterreko unibertsitatean matrikulatu zen ingeniari-tza-ikasketak jarraitzeko asmotan. Urte horietan matematikaren ikerketan interesatzen hasi zen, eta Fregerekin eta

Russellekin harremanetan jarri zen. Russellek proposatu zion ikasketak Cambridgen egiteko, bere ardurapean, eta Cambridgeko Trinity Collegen matrikulatu zen bi urtez.

1912. urtean, lehen aldiz, lagun batekin hilabete egin zuen Islandiako txabola batean, bere burutapenak idazteko asmotan. Gero, 1914an, aita hil ondoren, Norvegiako beste txabola batean, bakardadean, hilabete batzuk eman zituen.

1914. urtean, Lehen Mundu Gerra hastear zegoela, etxera itzuli zen. Gerra deklaratu zenean, bere diruz artistak babesteko fundazio bat sortu zuen, eta boluntario alistatu zen Austriako armadako artillerian.

1918. urtean, preso egin zuten Italiako iparraldeko frontean, eta Monte Cassinoko abadian iritsi zitzaion gerraren amaiera.

1919an askatu zuten, eta gerran idatzitako ohar-koadernoak Bertrand Russell irakasleari bidali zion: *Tractatus Logico-Philosophicus*. Liburu hori izan zen bizitzan argitaratu zuen obra bakarra. Lehen argitalpena 1921. urtean izan zen, alemanez; hurrengo urtean, bigarren argitalpena ingelesez eta alemanez kaleratu zen, Bertrand Russellen hitzaurrearekin. Sarrera hura ez zen Ludwiggen gustukoa izan, haren ustez Russellek ez baitzuen obra behar bezala ulertu.

Urte hartan, herentziaz zegokion ondarea senideen artean banatu zuen, eta Irakasle Eskolan matrikulatu zen.

1920. urtean, maisu-titulua eskuratu zuen, eta Austriako herri txiki bateko herri-eskolan maisu lan egin zuen sei urtez. Esperientzia hura oso gogorra egin zitzaion, eta bere buruaz beste egiteko ideia maiz izan zuela aitortu izan zuen.

1924. urtean, Vienako Zirkuluaren zuzendaria izango zen Moritz Schlick filosofoa ezagutu zuen, eta Keynes ekonomialaria ezagutzeko Londresera bidaia egin zuen.

1926. urtean, maisu-lana bertan behera utzi zuen, eta bi urtez lorezain aritu zen beneditarren komentu batean. Urte horretako udan, ama hil zitzaion. Urte berean Wittgensteinek etxe bat eraiki zuen arrearentzat, eta xehetasun txikiak ere berak diseinatu omen zituen.

1927an, Vienako Zirkulukoekin harremanetan jarri zen, eta taldearen eztabaidetan parte hartu zuen, inoiz taldekide izan ez bazen ere. Ordurako *Tractatus*eko tesiekin desadostasuna agertu zuen Wittgensteinek; eta *Ikerketa Filosofiko*etan azaldu zituen ideien defentsa egiten hasia zen.

1929. urtean, Cambridgera itzuli zen. Doktoretza-titulua eskuratu zuen, *Tractatus Logico-Philosophicus* liburua tesizat aurkeztuta. Russell izan zen tribunalaren lehendakaria. Unibertsitate horretan irakasle aritu zen Bigarren Mundu Gerra arte. 1939an katedra lortu zuen.

1935. urtean, SESB bisitatu zuen, eta hurrengo urtean, bederatzi hilabete pasa zituen Norvegiako txabola batean bakarrik.

1938. urtean, Hitlerrek Austria bereganatu zuenean, Wittgensteinek ingeles nazionalitatea hartu zuen.

1939. urtean, Bigarren Mundu Gerra hastean, Londreseko ospitale batean boluntario lan egin zuen.

1945. urtean, irakaskuntzari ekin zion berriz ere, baina bi urte geroago lanpostuari uko egin zion, eta Irlandara joan zen.

1949. urtean, Britainia Handira itzuli zen, ordurako minbiziak jota.

1951. urteko apirilaren 29an hil zen Cambridgen. Azken hitzak hauek izan omen ziren: «Esan denei nire bizitza zoragarria izan dela».

5.2.2. IDAZLANAK

Tractatus Logico-Philosophicus (1921), bizirik argitara emandako obra bakarra; alemaneko argitalpena.

Tractatus Logico-Philosophicus (1922), Russellen hitzaurrearekin eta alemanez eta ingelesez.

Ikerketa Filosofikoak (1953).

Matematikaren oinarriei buruzko burutapenak (1956).

Koaderno urdina eta Koaderno marroia (1958).

Ziurtasunari buruz (1969).

5.2.3. WITGENSTEINEN PENTSAMENDUA

5.2.3.1. Lehenengo WITGENSTEIN (1889-1929): *Tractatus Logico-Philosophicus*

Kantek ezagutzaren mugak aurkitzeko *Zer ezagut dezaket?* galdera planteatu bazuen, Wittgensteinek *Zer esan dezaket?* galdetu zuen. Hizkuntzaren mugak aurkitu nahi izan zituen; eta horretarako, hizkuntzaren egitura aztertu zuen.

Wittgensteinen *Tractatus*eko pentsamendua neopositibistatzat hartu izan da askotan, baina horrek ez du esan nahi talde horrekin diferentziarik ez duenik. Hala eta guztiz ere, neopositibismoaren bi ezaugarri nagusiak ageri dira lan honetan: batetik, metafisikarekiko mespretxua; eta bestetik, errealitatea ezagutzeko azterketa logikoaren erabilera.

Tractatus liburu laburra da, eta zenbakitutako zazpi tesi nagusitan banatuta dago. Tesi bakoitza azpi-puntutan banatzen da. Eta azpi-puntuei komentarioak ezarri zizkien, azkeneko tesiari izan ezik. Aforismoak erabiltzen ditu, eta, itxura erraza izanagatik, zaila da ulertzeko.

Liburu horren lehen tesia da «mundua gertatzen den guztia da». Tesi horren bidez adierazten digu **mundua** gertakari atomikoen multzoa dela. Ez dira gauzak edo objektuak, ezta horien ezaugarriak edo akzidenteak ere. **Gertakari atomikoak** gauzen artean dauden erlazio sinpleenak dira, deskonposa ez daitezkeenak. Beraz, mundua ez dago objektuz osatua, gertakariz baizik. Eta gertakari horiek objektuen arteko erlazioak dira: bolaluma gauza bat da, eta eskua beste gauza bat, horiek ez dute mundua osatzen; baina munduan gertatzen dena da boligrafoa eskuan daukadala.

Mundua osatzen duten gertakari atomikoak proposizioen bidez adierazten dira. Orduan, **adieraztea** linguistikoki ordezkatzeta edo irudikatzea da, eta proposizio horiek gertakizun atomiko horien irudiak dira, errealitatearen irudiak dira. Gertakari horiek hizkuntzan hartzen dute forma, proposizioetan, hain zuzen. Gertakarietan objektuak harremanetan jartzen dira, eta pro-

posizioetan hitzak dira harremanetan daudenak. Proposizioetan ageri diren **hitzek** gertakarietan harremanetan dauden objektuak izendatzen dituzte. Beraz, proposizioek gertakarien irudia ematen badigute, biek egitura logiko bera izan behar dute.

Alabaina, horrek ez du esan nahi —metafisika zaharrak zioen moduan— proposizioen bidez munduaren esentzia ezagutzen denik, baizik eta munduan, gertakarietan izaten diren objektuen arteko erlazioak ezagutzen ditugula proposizioen bidez. Proposizioak gertakarien pinturak/**irudiak** dira. Lurralde baten mapak balira bezala, lurralde hori zer den ez digute esaten, baina bai nolako egitura duen; eta mapa horietaz balia gaitzke lurralde horietan galdu gabe ibiltzeko.

Wittgensteinen aburuz, proposizioek gertakari atomikoen objektuen arteko erlazioak deskribatzen dituzte, hitzen arteko erlazioek egitura logiko berbera dutelako.

Ondorioz, proposizioak gertakarien irudiak badira —objektuen arteko erlazioen irudiak—, eta objektuak bakarrik izenda badaitezke, orduan, bi jarduera dira posible hizkuntzaren bidez: gertakariak irudikatzea eta objektuak izendatzea. Gertakariak eta proposizioak egitura logiko bera dute. Hori da haien arteko lotura: **egitura logikoa**. Horregatik, proposizioa gertakariaren irudia³⁶ da. Gertakariaren irudi logikoa pentsamendua da. Baina izenaren eta objektuaren arteko lotura arbitrarioa da, ez da beharrezkoa. Objektua izenaren erreferentzia da.

Proposizioaren barruan, izenen artean ematen den lotura edo egitura logikoa gertakariaren egoera posible bakar bati dagokio. Proposizioaren barruko egitura logikoa, beraz, beharrezkoa da, ez daiteke beste modukoa izan. Izenen eta objektuen arteko lotura, berriz, arbitrarioa da. Horregatik, entzun gabeko proposizio bat ulergarria da, eta izen berri batek, berriz, azalpena behar du.

Orduan, proposizio baten egitura logikoak munduko gertakari baten egitura logikoa ematen du, biak **isomorfikoak**³⁷ direlako. Horregatik esan zuen Wittgensteinek hizkuntzaren logikak munduan gerta litekeena mugatzen duela. Logika gure munduaren muga da. Gertakariaren munduan ezin daiteke gertatu hizkuntzaren logikan ezin daitekeena. Ezinezkoa dena ezin da esan, ezin da pentsatu.


Esanahiaren teoria isomorfikoa	
MUNDUA	HIZKUNTZA
gauza	izena
gertakaria	proposizioa
	egia
	faltsua

Baina, bestetik, logika ez da konbinazio posible bakarra, posible diren guztien arteko bat baizik. Horregatik, gure hizkuntzak gure mundua determinatzen duela dio Wittgensteinek. Pentsamendu honi jarraituz, hizkuntzaren egituraren azterketa egitean, Wittgensteinek munduaren egitura logikoaren azterketa egin nahi izan zuen, munduaren mugak aztertu nahi zituelako, ez munduan zer gertatu den edo zer gertatuko den jakiteko. Eta helburu horrekin ekin zion hizkuntzaren azterketari. Munduaren logika eta mugak interesatzen zaizkio, ez egiaz gertatzen dena.

36 Alemanez *bild* erabili zuen; ingelesez, *picture*, eta hortik dator teoria piktoriko ere deitzea.

37 Isomorfikoa. Grekoz, *iso*: berdina; *morfos*: forma, forma berekoa.

Hizkuntzaren azterketari ekitean, bi proposizio mota bereizi zituen: *analitikoak* eta *sintetikoak*. Analitikoek (logikarenak eta matematikarenak) ideien arteko erlazioak adierazten dituzte, baina errealitateaz ez dute ezer esaten; eta sintetikoek errealitateaz dihardute, eta gertakari atomikoak irudikatzen dituzte. Errealitatea eta mundua ez dira gauza bera Wittgensteinentzat. Mundua existitzen diren gauzen egoera guztien multzoa da. **Errealitatea**, berriz, existitzen diren egoera eta existitzen ez diren baina gerta daitezkeen egoera guztien multzoa da.



Proposizio analitikoek ez dute errealitateaz ezer esaten, tautologikoak³⁸ (nahitaezko egiak) dira. Jadanik beste proposizioetan esana dagoena errepikatu egiten dute. Edukirik gabeko egiak dira, eta munduaz ezagutzarik ez dute ematen.

Baina gertakariez diharduten proposizioak aztertzean, gertakari erreal edo posible baten irudia diren ala ez begiratu behar da. Horregatik, proposizio atomiko batek ekintza erreal edo posible baten irudia egiten duenean, proposizio horrek **zentzua** du. Proposizio batek zentzua izan dezan **egiaztagarria** izan behar du. Egia ala faltsua den jakiteko errealitatearekin alderagarria izan behar du. Proposizio bat egiaztagarria den jakiteko, aski da proposizio hori zein baldintzatan egiazta genezakeen ulertzearekin, ahaltasun-baldintzen bila. Beraz, proposizioen enuntziatuek gertakari errealari edo posibleari badagozkio, orduan zentzuz adierazten dute. Gertakari errealetik edo posibletik kanpo dagoen proposizioak ez du zentzurik.

Horregatik, munduaren zentzua ez daiteke adierazi, gertakari erreal edo posible guztitik kanpo baitago. Mundua gertakarien multzoa da, eta gertakaria gauzen egoera. Baina mundua ez dago gauzaz osatua, gertakariz baizik. Beraz, munduari buruzko proposiziorik ezin da egin, horregatik ez du zentzurik.

Era berean, proposizio baten egitura logikoa ez daiteke zentzuz adierazi, **agertu** baizik. Inolako proposizioek ez dezake beste proposizio baten egitura logikoa adierazi, ez baita gertakaria.

Horretan oinarritu zen Wittgenstein esan zuenean estetikarekin, etikarekin eta metafisikarekin zerikusia duten proposizioek ez dutela zentzurik. Horregatik, Jainkoari, izanbeharrari, hilezkortasunari eta antzekoei buruzko proposizioek ez dute zentzurik, ez baitituzte gertakari atomikoak islatzen. Proposizio horiek ez dute egiaztagarritasunik, ezin da ulertu zein baldintzatan egiazta litezkeen.

Proposizio horiek, orain arte filosofiaren proposizioak izan direnak, ez dira benetako proposizioak; proposizio-itxura dute soilik. *Pseudoproposizioak* edo *sasiproposizioak* dira. Benetako proposizioak fisikarenak edo natura-zientziarenak bakarrik dira, horiek baitira munduan gertatzen dena adierazten duten proposizio bakarrak.

38 Tautologia: beti egia den proposizioa, egia-balio posible guztietan.

Horregatik, Wittgensteinentzat filosofia ez da proposizio-sistema bat, jarduera bat baizik: proposizioak argitzera bideratutako jarduera. Jarduera horren bidez, filosofiak aztertu behar du zein proposizioek duten zentzua eta zeinek ez. Filosofiaren eginkizuna zentzurik gabeko proposizioak aurkitu eta deuseztatzean datza, zentzurik ez dutela frogatuz. Eta filosofikoki zuzendutako proposizioak horrela aztertzeko direnean, argiak, zentzudunak eta mugatuak direla agertzen da.

Eta horietaz bakarrik hitz egin daiteke. Esan daitekeena argitasun osoz esan daitekeela esaten zuen Wittgensteinek. *Tractatusen* dio tradizionalki proposizio filosofikoak —gertakari atomikoaren irudia ez direnak— izan direnei buruz ezin daitekeela hitz egin: «hitz egin ez daitekeenaz, hobe da isiltzea».

Dena den, horrek ez du esan nahi, positibismo logikoak (Vienako Zirkuluak) ulertuko zuen bezala, Wittgensteinen ustez, mundutik aparte beste ezer ez dagoenik. Gure ezagutzatik kanpo, adieraz ez daitekeen arren eta hari buruz zentzuz hitz egin ez daitekeen arren, mundu mistikoa dago, eta, Wittgensteinen hitzetan, hori da gehien interesatzen zaiona. Baina mundu hori ez daiteke hizkuntzaren bidez adierazi. Hizkuntza ez da mundu horren eremua, esperientzia du eremu, ***Etikari buruzko hitzaldian*** esan zuenez.

Gure munduaren mugak zein diren ulertzeak eta, horrekin batera, gure hizkuntzaren limiteak zein diren ulertzeak ondorio nabarmen bat dakarte: Wittgensteinek *Tractatusen* erabiltzen dituen proposizioak hizkuntzari buruzko proposizioak besterik ez dira; ez dira inongo gertakari atomikoren irudi, eta, hari jarraitzekotan, zentzurik gabeak dira.

Wittgensteinek, bere planteamenduekin koherentzia gordez, honako hau adierazi zuen: berak dioena ulertzen duenak ulertuko du esandakoa zentzugabea dela; eta haren filosofiak metafisika egiteko tentazioari aurre egiteko bakarrik balio behar du: «Ulertzen dituenak zentzugabeak ikusten ditu nire proposizioak. Proposizioak eskailera baten mailak balira bezala hartu behar ditu. Gailurrera igotzeko baliagarriak dira, baina, behin gailurra lortu ondoren, sobran daude. Metafisika egiteko tentazioa ekiditeko balio behar dute».

Beraz, *Tractatusen* ondoren eta ondorioz, Wittgensteinentzat filosofia egiteko posibilitatea amaitu egiten zen, eta hori egin zuen, filosofia alde batera utzi zuen, maisutza ikasi, eta maisulanetan aritu zen haur-eskola batean, haren pentsamenduak beste bide bat hartu zuen arte.

5.2.3.2. Bigarren Wittgenstein (1929-1951). *Ikerketa Filosofikoak*

Ezin da ukatu ikuspegi hori ez zela bat-batean desagertu, eta trantsizio bat gertatu zela, non Wittgensteinen postura pixkanaka aldatuz joan zen. Periodo hori 1929. eta 1934. urteen artean gertatu zen.

Ikerketa Filosofikoak liburuan hizkuntzari buruzko teoria piktorikoaren ikuspegia desagertu egiten da. Aldaketa hori ez da nolana hiko, teoria piktorikoa alde batera uztea *Tractatusen* tesi nagusia ez onartzea baita. Horregatik, *Ikerketa Filosofikoetan* azaltzen diren pentsamenduek Wittgensteinen filosofia errotik aldatzea dakarte. Gainera, pentsamendu filosofikoaren etapa berri bati hasiera eman zioten.

Tractatusen, izen baten adierazpenaz galdetzean haren erreferenteaz galdetzen dela defendatu zuen Wittgensteinek; hau da, termino batek zentzua du zerbaiten izena denean.

Ikerketa Filosofikoetan, berriz, benetan garrantzia duena terminoaren erabilera dela esaten du: «zer esan nahi du BOST terminoak? Norbaitek bost sagar erosi nahi baditu eta saltzaile-

ari horrela eskatzen badio, benetan inportanteena saltzailearen portaera izango da, eta horrek adieraziko du ulertu duen ala ez. Sagarrak hartzen badiu eta batetik bostera zenbatzen badu, eta bakoitzean kaxatik sagar bat hartzen badu bosgarrenera iritsi arte, ulertu duen seinalea litzateke.

Izenek adierazi zehatza dutenean, hizkuntza-joko konkretu batean ari gara; eta joko hori objektuak izendatzen dituzten izenak ikasten ditugunean ikasten da. Baina hori joko linguistiko posible guztien arteko bakar bat baino ez da. Hizkuntza-jokoen aukerak ez dira horretara mugatzen, ugariagoak dira, infinituak dira. Izenek izendatzen dutena ezagututa ere, ez ditugu hizkuntza eta haren posibilitateak ezagutzen (xakearen figuren mugimenduak ezagutuz bakarrik jokia menderatzen ez den bezala; edota karten balio soila jakiteagatik, kartetan ez daki-gun bezala).

Hainbat hizkuntza-joko menderatzen ditugunean bakarrik menderatzen dugu hizkuntza; hau da, hizkuntza eta izenak zenbait ekintza burutzeko nola erabili behar diren dakigunean: eskatzeko, agintzeko, adierazteko, proposatzeko, galdetzeko, azterketak egiteko, sentimenduak azaltzeko... Beraz, joko nominatiboa —gauzei izena ematea—, ez da joko posible bakarra, ezta lehena ere; oinarrian beste batzuk behar ditu, izendatzea, jadanik, erabiltzea baita.

Ikuspegi horretatik, termino baten esanahia bere erabileraz ohartuta bakarrik ezagutu daitekeela esan zuen Wittgensteinek. Erabilera ezagutzen dugunean, haren adierazia (erreferentea) ezagutzen dugu.

Ikerketa Filosofikoetan, hizkuntzaren funtzioa ez da gertakarien mundua irudikatzea. Proposizioak ez dira jadanik deskribapen soilak, enuntziatuak edo informazioak, baina, hala eta guztiz ere, proposizioak dira. Hitzak ez dira izenekin identifikatzen (adibidez, sua, ura, SOS...), horrela ere erabili badaitezke ere.

Baina hizkuntzaren funtzio bakarra ez bada errealitatea irudikatzea eta hizkuntza-joko posibleak ugariak badira, zerk bateratzen ditu hizkuntza-joko guztiak, hizkuntza kontsidera daitezkeen?

Wittgensteinen iritziz, hizkuntza-jokoen artean ez dago elementu baterakoirik. Ez dago denentzat baliagarria den ezer, eta horregatik *hizkuntza* kontzeptua definiziozina da. Elementu baterakoi horren eza adierazteko, jokoen adibidea erabili zuen. Jokoeak (xakea, kartak, futbola, ikusi-makusi...) ez dute propietate baterakoirik, nolabaiteko antzekotasuna baizik, *familia-areira* dute, Wittgensteinen hitzetan. Hizkuntza bakar batez hitz egitea joko bakar batez hitz egitea litzateke.

Beraz, ez dago, *Tractatusen* zioen bezala, hizkuntza bakarra, zeinetan proposizio bakoitzak gertakari atomiko bat irudikatzen duen. *Tractatusen* arabera, gertakari atomiko bakoitzak egitura logiko bakarra du. Horregatik, hizkuntza bakarra da zuzena, gertakari bakoitza adierazteko proposizio bakarra delako zuzena. Ondorioz, filosofiak munduaren egitura logikoa ulertzen lagunduko liguke hizkuntza aztertuz.

Ikerketa Filosofikoetan, berriz, gertakariak forma logiko bakarra izatearen ikuspegia baztertu egin zuen. Ez dago, jadanik, gertakari edo objektu sinplerik. Eta gertakari atomikorik ez dagoenez, ez da ikusten nola ezagutu horren egitura logikoa.

Hitzak ez dira jadanik objektu sinpleen izenak. Wittgensteinek hizkuntza langile baten erreminta-kaxa batekin konparatu zuen, eta hitzak, han gordetzen diren tresnekin: mailua, zerra, iltzeak, bihurkina... Hitzak objektu horiek bezain askotarikoak dira, eta, mila funtzio eta hel-

burutarako erabil daitezke, tresna horiekin gertatzen den bezala. Beraz, hitzek hainbat erabile-
ra dituzte, eta arazoa da zer funtziotan erabili izan diren jakitea.

Hortik abiatuta, filosofiaren eginbearra ez da, *Tractatusen* zioenez, proposizioak zuzentzea
gertakarien irudia izan daitezen. Orain, filosofiaren eginbearra proposizioak ulertzea da; eta,
horretarako, ulertu egin behar da zein hizkuntza-jokotan erabili diren eta joko horretan egiten
duten lana.

Beste era batera esanda, arazoa ez da proposizioen forma zuzena ala desegokia izan daite-
keela. Arazoa da proposizioak ondo ala gaizki uler daitezkeela. Eta filosofiak ondo, egoki
ulertzen lagundu behar du.

Ikerketa Filosofikoetan, beraz, proposizioak ondo daude dauden bezala, eta filosofiak joko
linguistikoak bereiziz proposizioak ulertzen lagundu behar du. Gaizki-ulertuak proposizioak
zein hizkuntza-jokotan jokutzen ari diren ongi ez identifikatzearen ondorioak dira. Eta gaizki-
ulertu horietatik sortzen dira arazo filosofikoak. Horrela sortzen diren arazoak sakontasun-
itxura dute, eta ondo errotuak ditugu, gure hizkuntza bezain sakon; oso eremu zabala hartzen
dute. Horregatik, hain zuzen ere, arazo filosofikoen soluzioa hizkuntzaren erabilera desego-
kiak aurkitzea da. Are gehiago, Wittgensteinek salatu zuen arazo filosofikoak hizkuntzaren
erabilera edo ulermen desegokiaren sintoma direla eta filosofiaren lana hori detektatzea dela.

Hizkuntzaren erabilera desegokiak eguneroko pentsamenduarekin lotuta daude. Horregatik
daude ezkutuan, hain zuzen ere; ez arraroak edo bitxiak direlako, arruntak eta egunerokoak
direlako baizik.

Hizkuntzaren azterketa filosofikoaren bidez, argitasun osoa lortu nahi da. Azterketa horre-
kin, berez, arazoak ez dira konpontzen, desegin eta disolbatu egiten dira. «Euliari eulitegiaren
irteera adieraztea da filosofiaren lana». Euliak bezala, arazoek alde egingo dute azterketa
horren bidez.

Horretarako, aski izango da arazoa sortzen duen terminoaren erabileraren forma logikoa
adieraztea. Askotan honako arrazoi hauengatik sortzen dira arazoak:

- Aditz askok itxuraz giza jarduera adierazten dute; baina, egiaz, ez dira jarduerak.
Adibidez, *nahi, erabaki, desiratu, ulertu...*
- Sentipenak adierazten dituzten hitz asko (barne-sentipen deitzen ditugunak) —adibidez,
azkura, mina, urduritasuna...— ez dira sentimen horien deskribapenak, horien aurrean
ikasitako portaerak baizik.

Filosofiak gaizki-ulertu horiek detektatu eta argitu behar ditu, beste hizkuntza guztiak bere-
gan biltzen duen hizkuntzarik ez dagoela jakinik. Horregatik, filosofiak esan behar du hiz-
kuntza bakoitzak nola funtzionatzen duen, hitzen erabileraz galdetuz, ez hitzen adieraziaz.

Hizkuntza ugari dago, mugarik gabe. Batzuen erabilera galduz joaten da, baina egunero
sortzen dira berriak:

- deskribatzeko
- agintzeko
- otoitz egiteko
- kantatzeko

- filosofatzeko
- gezurak esateko
- kalkulatzeko
- haserrea agertzeko
- kontsolatzeko
- informatikan aritzeko
- galdetzeko
- ...

Hizkuntza horiek beren artean duten lotura *familia-airea* da. Eta ez dute komunikatzeko bakarrik balio, elkar eragiteko ere balio dute.

Bigarren etapa horretan, filosofiaren analisiak arazo faltsuak desegiteko balio behar du, eta, era berean, arazo faltsu horietatik sortzen diren zalantzetatik libratzeko. Helburu hori lortzeko, filosofiak esango du hizkuntza-jokoa zein den eta joko horretako hitzen erabilera nolakoa den.

Hala eta guztiz ere, Wittgensteinek zioen hainbat galdera filosofiko erakargarriak direla, eta iraun egiten dutela. Eta, agian, horrek adierazi nahi duela nolabaiteko zentzua izan dezakete-la. Hor gelditzen da, berriz ere, alde mistikoa. Hori egia balitz, filosofia ezingo litzateke arazo linguistikoetara mugatu. Filosofiak arazo horiek ikusten ere lagundu beharko du.

5.2.3.3. Etika

Wittgensteinentzat, etika mistikaren atal bat da, estetikarekin eta erlijioarekin batera. Horrekin ez zuen alde mistikoaren existentzia ukatu: «Adierazi ezin dena, egiaz, bada; agertu egiten da, mistikoa da» (Tractatus, 6.522). Beraz, pentsamenduari agertu egiten zaio, baina ezin daiteke adierazi hizkuntzaren bidez, ezin da horretaz hitz egin: «Hitz egin ez daitekeenaz isildu behar da» (Tractatus, 7)

Wittgensteinek mistikoa denari buruz, etikari, metafisikari edo erlijioari buruz hitz egiteko aukera ukatu egin zuen. Haren iritziz, bi judizio mota bereizi behar dira: **gertakari-judizioak** eta **balio-judizioak**.

Gertakari-judizioak hizkuntzaren bidez igor daitezke, adierazten duten gertakariarekin egitura logiko bera gordetzen dute, eta, horri esker, ulergarriak dira.

Baina etikaren judizioak ez dira gertakariei buruzkoak. Etika onari eta txarrari buruz aritzen da, balioez dihardu. Beraz, etikaren judizioak balio-judizioak dira. Munduko gertakarietan ez dago ezer onik, ezta ezer txarririk ere. Mundua den bezalakoa da: «Munduaren zentzuak mundutik kanpo egon behar du. Munduan, dena den bezalakoa da, eta dena gertatzen da gertatzen den bezala; ezerk ez du inolako baliorik» (Tractatus, 6.41). Horregatik, etika ez da adierazgarria. Hortaz, hizkuntza ez da etikari dagokion tokia.

Wittgensteinen esanetan, etika hizkuntzaren mugen kontra behin eta berriz jotzearen ondorioz sortzen da. Gizakiaren joera bat da, baina hizkuntzak ez du etikari buruz hitz egiteko gaitasunik, metafisikoa den guztiari buruz bezala. Hizkuntza mugatua da; munduaren muga berak ditu, hain zuzen ere. Hori gainditzen saiatzea te-kikara edo katilu batean sartzen dena baino gehiago sartu nahi izatea bezala litzateke (ikus *Hitzaldia etikaz* 6. orr.). Eta hori da

etikari buruz hitz egiterakoan gertatzen dena: «ulermenak hizkuntzaren mugen aurka talka egitean sortutako koskorrak» (*Ikerketa filosofikoak*, 119).

Dena den, esan ez daitekeen hori da, hain zuzen, garrantzitsuena. Garbi dago Wittgensteinek ez duela esan nahi metafisikoa baztertu behar denik, neopositibistek zioten bezala. Baina etikak jardueraren eremura mugatu behar du, hizkuntzaren eremua ez baita berea. Eta hori izan zen Wittgensteinek egin zuena.

Baina, zer da jardueraren eremua Wittgensteinentzat? Norberak bere buruari zuzendutako jarrera da, ez munduari zuzendutakoa, mundua aldatzeko. Wittgensteinen aburuz, subjektua ez da munduaren osagai bat, munduaren muga baizik; munduaren ezinbesteko baldintza «nia ez da munduaren parte, haren muga baizik» (*Tractatus*, 5.632) «nire begia bere ikus-eremuan bezala nago kokatua munduan» (Egunkari Filosofikoa). Ezin diogu munduari eragin; ezin dugu ezer aldatu, bere osotasunean ez bada. Mundua norberaren borondateaz aske da; ezin dira gertakariak aldatu. «Ezin ditut munduko gertakariak nire borondatearen arabera aldatu, horretan guztiz ezinduta bainago» idatzi zuen Egunkari Filosofikoan.

«Mundua nire mundua da» errepikatzen du idatzi askotan. Ondorioz, norberak bere burua aldatzea da mundua aldatzeko era bakarra. Munduarekin gustura sentitzen ez denak bere burua aldatu beharko du, zerbait erabakigarria egin nahi badu. Hori esan nahi zuen mundua bere osotasunean bakarrik alda daitekeela zioenean. Neu aldatzen banaiz, mundua desberdin ikusiko dut; desberdin agertuko zait, bere osotasunean aldatuta. «Hitz batez, munduak erabat desberdina den beste bat bihurtu beharko du orduan» (*Tractatus*, 6).

Norbera izan behar duen bezalakoa izatera iristen denean, orduan mundua ere egokia irudituko zaio. Hori da bide on bakarra, eta zoriontasunera darama. Bizimodu ona bizimodu zoriontsua da; bizimodu txarra, berriz, zorigaitzekoa. Horregatik dio: «Zoriontsuaren mundua eta zorigaitzekoarena ez da bera» (*Tractatus*, 6.43). Horregatik, klaseak ematen zituen herriko meatzari batek galdetu zioenean mundua hobetzeko nola jokatu behar den, honela erantzun zion Wittgensteinek: «zeure burua hobe ezazu, hori baita mundua hobetzeko duzun era bakarra».

Munduaren eta subjektuaren arteko harremanaren ikuspegi berri hori da zauritu ezin sentsazioa ematen diona; hau da, ezerk ezin dio kalterik egin, seguru sentitzen da. Mundutik urruntzean, subjektuak betierekotasunaren itxurapean ikusten du dena. Sentsazio hori ez da etikoa bakarrik; estetiko ere bada. «Etika eta estetika gauza bakarra eta bera dira» (*Tractatus*, 6.421). Artelana objektua betiereko itxuraz ikustea da; ondo bizitzea mundua betiereko itxuraz ikustea da. Estetikak gauzak indibidualki salbatzen ditu. Etikak mundua bere osotasunean salbatzen du, giza bizitza salbatzen du.

Horregatik sentitzen da **Hitzaldia Etikaz** testuan aipatzen duen zauritu ezin sentsazioa. Munduan gerta daitekeen ezerk ez du nigan inolako eraginik: «oso eta sendo naiz, ezerk ez nazake zauri, zernahi gertatzen delarik ere» (*Hitzaldia Etikaz*, 7). Horretara mugatzen da zoriontasuna haren ustez. Inor zoriontsu bada, mundua egokia dela ikusten duelako da, bizimodu on baten seinale da. Baina, zoriontsu ez bada, beldurrez bizi bada, daraman bizimodua ez dela ona esan nahi du: «heriotzaren beldurra da, adibidez, bizimodu lizunaren seinale». Eta, zoriontasuna lortzeko, borondateak munduko gertakarietatik urrundu behar du.

Arazoak desagerrarazten duen bizimodua da bizitzaren soluzioa. Bizitza arazotsua izateak esan nahi du zure bizitzak ez duela bizitzeko bere era aurkitu. Beraz, zure bizitza aldatu behar duzu, eta, horrela, arazoa desagerrarazteko era aurkitu (Ohar nahasiak).

Etika, orduan, mundua kanpotik ikustean hasten da, osotasun mugatu gisa. Ideia hone-tan laburtzen du Wittgensteinek mistikoaren baldintza: «Mundua mugak dituen zerbait dela sentitzea da mistikoa» (*Tractatus*, 6.45).

Eta nola ezagutu munduaren mugak? Teoria piktorikoan dago erantzuna: hizkuntzak erre-tratatzen du mundua. Munduko gertakari bakoitzari proposizio bat dagokio hizkuntzan. Hizkuntzaren mugek, beraz, munduaren mugak erakusten dizkigute. Muga horiek dira, hain zuzen ere, mistikoaren mugak.

Honela dio Wittgensteinek *Tractatus*en 6.44. atalean: «Mistikoa ez da mundua nolakoa den, badela baizik. Mundua nolakoa den esan daiteke; proposizioen bidez erretratatzeko dugu». Eta 6.53an: «Filosofiaren metodo zuzena hau litzateke: esan daitekeena baino ez esatea; hau da, natura-zientzien proposizioak; alegia, filosofiarekin zerikusirik ez duena».

Esan ez daitekeena *mistikoa* da; munduaren zentzua; zergatia... Horri buruz hitz egiten duenari hauxe egin behar zaio: «eta inork metafisikoa den zerbait esan nahi duen bakoitze-an, frogatu egin dituen proposizioetako hainbat ikurri ez diela esanahirik eman. Metodo honek ez luke aseko, ez litzaioke irudituko filosofia erakutsiko geniokeenik, baina erabat zuzena den bakarra da» (*Tractatus*, 6.53).

Eta logikak zehazten ditu hizkuntzaren mugak. Logikaren osotasunean mundu posible guz-tiak daude erretratatuta. Beraz, logika eta etika estu lotuta daude.

Wittgenstein pentsakor zegoen batean, Russellek galdetu omen zion ea logikari ala etikari buruz pentsatzen ari zen; Wittgensteinek bietaz ari zela erantzun zion.

Honela zioen eskutitz batean:

Nire liburuak —Tractatus— bi zati ditu: idatzita dagoena, bata; eta idatzita ez dago-en guztia, bestea. Eta bigarren zati hori da, hain zuzen, garrantzitsuena. Nolabait esate-ko, liburuak barrualdetik mugatzen baitu etika; eta erabat konbentziturik nago hori dela zehaztasunez mugatu daitekeen modu bakarra. Laburtuz, hau uste dut: gaur egun orain-dik berrikerarako askok erabiltzen duten guztia nik nire liburuan isiltasunez definitu dut.

5.2.3.4. Erlijioa

Schlickek etikari buruz idatzi zuen liburu batean, **ongi**aren bi kontzepzio bereizten zituen. Lehenengoaren arabera, ona on da Jainkoak hala nahi duelako. Bigarrenaren arabera, berriz, Jainkoak on izateagatik aukeratzen du ona. Schlick bigarren ikuspegiaren alde dago. Baina Wittgenstein lehenengoarekin gelditzen da. Zergatik?

Wittgensteinen ustez, bigarrena azalekoa da, eta arrazionalistegia iruditzen zaio: ona zerga-tik ote den ona galdetzeraz bultzatzen gaitu, ona izatearen arrazoiak aurkitzea posible balitz bezala, proposizioen batean esaterik balego bezala. Lehenengo ikuspegiak, berriz, galdetzen jarraitzeko posibilitateak itxi egiten ditu. Kontzepzio horretan onaren esplikazioa mundutik kanpo gelditzen da erabat: Jainkoak aukeratutakoa, hori da ona. Ezin da horretaz ezer gehiago esan. Horregatik da kontzepziorik onena.

Baina, zer da Jainko hori? Wittgensteinek asko aipatzen zuen Jainkoa bere idatzietan. «Jainko dei geniezaioke bizitzaren zentzuari, hau da, munduaren zentzuari». Eta, berriz ere, bukatu dira hitzak. Wittgensteinen erlijioa hitzik gabeko erlijioa da: etika bezala, ekitean datza.

Sinestuna izatea norberaren duintasun-ezaz ohartzean eta zuzentzeko erantzukizuna beregatzean datza. Azkenean, erlijioa bizitzeko forma bat da.

5.2.4. IRAURGAIA: *Hitzaldia etikaz*

Hitzaldia 1930. urtearen hasierakoa da. Lehenengo Wittgensteinen lana kontsideratzen da, oro har. Bigarren Wittgensteinek oso gutxitan hitz egiten du etikari buruz. Badirudi *Tractatusen* bukaeran esandakoari jarraitzen diola gero ere: hitz egin ez daitekeenaz isildu egin behar da.

Hori horrela bada, lehenengo eta bigarren Wittgensteinen artean dagoen aldea —hizkuntzaren analisiari dagokionez oso handia izaten jarraitzen duen arren— ez da esan izan den bezain handia, benetan garrantzia duenari dagokionez: alde mistikoari dagokionez.

Gaia justifikatzen du hasieran, entzuleek beste zerbait espero dutelako. Moore irakasleak etikari buruz egindako definizioa hartzen du abiapuntu: «Etika on denaren inguruan egiten den ikerketa orokorra da». On hitzaren erabilera aztertzen du, eta balio absolutuak eta erlatiboak bereizten ditu, eta, horretarako, adibideak erabiltzen ditu. Konklusioa da etikak balio absolutuak erabiltzen dituela. Eta ez dagoela balio absolutuak adierazteko gai den proposiziorik. Beraz, ezin daiteke zientzia izan. Baina giza espirituaren joera da, eta guztiz errespetagarria.

Bibliografia

6

Orokorra

AGIRRE, Javier; ARRIETA URTIZBEREA, Agustín; GALPARSORO, José Ignacio; MIGURA, Fernando; URIBARRI ZENEKORTA, Ibon: *Filosofiaren historia*, Elkar, Donostia, 2008.

COPLESTON, Frederick: *Historia de la filosofía*, Ariel, Barcelona, 1984.

FERRATER MORA, José: *Diccionario de filosofía*, Ariel, Barcelona, 1994.

MARÍAS, Julián: *Historia de la filosofía*, Alianza, Madrid, 2005.

CAMPS, Victoria, editora: *Historia de la ética*, Crítica, Barcelona, 2000.

NAVARRO CORDÓN, Juan Manuel; CALVO MARTÍNEZ, Tomás: *Historia de la filosofía*, COU, Anaya, Madrid, 1992.

DOMINGO MORATALLA, Agustín; DOMINGO MORATALLA, Tomás; FEITO GRANDE, Lydia: *Areté Filosofía, 2º bachillerato*, Ediciones SM, Madrid, 2003.

MERÍN, Miguel; ARRIBAS, José Manuel; ROURA, Antonio: *Filosofiaren historia 2. batxilergoa*, Zubia Santillana, Etxebarri (Bizkaia), 2004.

TEJEDOR CAMPORRANA, César: *Historia de la filosofía en su marco cultural*. COU, Ediciones SM, Madrid, 1993.

1.gaia: Platon

GARCÍA-MAURIÑO, José María; FERNÁNDEZ REVUELTA, José Antonio: *Presocráticos, Historia de la filosofía, Cuadernos de COU y Selectividad*, Alambra Longman, Madrid, 1992.

AGIRRE, Javier; JUARISTI, Felipe: *Filosofo presokratikoak*, Klasikoak, Bilbo, 2004.

JAEGER, Werner: *Paideia*, Editorial Fondo de Cultura Económica, México, 1985.

PLATON: *La república o el estado*, Colección Austral, Espasa-Calpe, Madrid, 1986.

PLATON: *Politeia*, Klasikoak, Bilbo, 1993 (euskaratzaila, Juan José Pujana).

PLATON: *Fedon, Menon, Fedro*, Bilbo, 2000 (euskaratzaila, José María Arrojeria).

BLACKBURN, Simon: *Historia de La república de Platón*, Debate, Barcelona, 2007.

AURREKOETXEA OLABARRI, Martín; ATXABAL AGIRREMALLOA, Joana; AXPE OSA, Xabier; LAZKANO ALZAGA, Jon; PÉREZ FERNÁNDEZ, Josal; DE TORRE PRADO, Leonor: *Platon, Filosofiaren historia 2. batxilergoa*, Ibaizabal, Bilbo, 1998.

2. gaia: Tomas Akinokoa

CONCHILLO MARTÍNEZ, Carlos: *Aristóteles. Naturaleza y ética*, Filosofía de COU, Mare Nostrum, Madrid, 1992.

AURREKOETXEA OLABARRI, Martin; ATXABAL AGIRREMALLOA, Joana; AXPE OSA, Xavier; LAZKANO ALZAGA, Jon; PÉREZ FERNÁNDEZ, Josal; DE TORRE PRADO, Leonor: *Tomás de Aquino, Historia de la filosofía ESPO2*, Ibaizabal, Bilbo, 2004.

TOMAS AKINOKOA: *Tomas Akinokoaren lan hautatuak* I, II; Klasikoak, Bilbo, 2003, 2004. (euskaratzailea, Julen Kalzada).

3. gaia: Kant

MORCILLO-VELARDE TABERNÉ, Diego: *Descartes y Leibniz. Método y realidades la filosofía racionalista*. Filosofía de COU, Mare Nostrum, Madrid, 1992.

AURREKOETXEA OLABARRI, Martin; ATXABAL AGIRREMALLOA, Joana; AXPE OSA, Xavier; LAZKANO ALZAGA, Jon; PÉREZ FERNÁNDEZ, Josal; DE TORRE PRADO, Leonor: *Kant, Filosofiaren historia 2. batxilergoa*, Ibaizabal, Bilbo, 1998.

KANT, Immanuel: *Arrazoimen hutsaren kritika*, Klasikoak, Bilbo, 1999 (euskaratzailea, Ibon Uribarri Zenekorta).

KANT, Immanuel: *Fundamentación para una metafísica de las costumbres*, Alianza, Madrid, 2002 (itzultzailea eta sareraren egilea Roberto R. Aramayo).

KANT, Immanuel: *Crítica de la razón práctica*, Alianza, Madrid, 2002 (itzultzailea eta sareraren egilea Roberto R. Aramayo).

KANT, Immanuel: *Contestación a la pregunta ¿Qué es la Ilustración?*, in Isegoría 25 (2001) 287-310 (itzultzailea, Roberto R. Aramayo).

ARAMAYO, Roberto R.: *Immanuel Kant*, Editorial Edad, Madrid, 2001.

4.gai: Nietzsche

AURREKOETXEA OLABARRI, Martin; ATXABAL AGIRREMALLOA, Joana; AXPE OSA, Xavier; LAZKANO ALZAGA, Jon; PÉREZ FERNÁNDEZ, Josal; DE TORRE PRADO, Leonor: *Nietzsche, Filosofiaren historia 2. batxilergoa*, Ibaizabal, Bilbo, 1998.

NIETZSCHE, Friedrich: *Moralaren genealogia*, Klasikoak, Bilbo, 1997 (itzultzailea Xabier Mendiguren Bereziartu).

NIETZSCHE, Friedrich: *Honela mintzatu zen Zaratustra*, Klasikoak, Bilbo, 1992 (itzultzailea Xabier Mendiguren Bereziartu).

NIETZSCHE, Friedrich: *Obras completas*, Aguilar, 1963 (itzultzaileak Eduardo Ovejero y Mauri eta Felipe González Vicen).

VALVERDE, José María: *Nietzsche, de filólogo a Anticristo*, Planeta, Barcelona, 1994.

5.gaia: Wittgenstein



AURREKOETXEA OLABARRI, Martin; ATXABAL AGIRREMALLOA, Joana; AXPE OSA, Xavier; LAZKANO ALZAGA, Jon; PÉREZ FERNÁNDEZ, Josal; DE TORRE PRADO, Leonor: *Wittgenstein, Filosofiaren historia 2. batxilergoa*, Ibaizabal, Bilbo, 1999.

GARCÍA-MAURIÑO, José María; FERNÁNDEZ REVUELTA, José Antonio: Wittgenstein. *La filosofía analítica, Historia de la filosofía, Cuadernos de COU y Selectividad*, Alambra Longman, Madrid, 1992.

WITTGENSTEIN, Ludwig: *Tractatus logico-philosophicus*, Tecnos, Madrid, 2008.

WITTGENSTEIN, Ludwig: *Tractatus logico-philosophicus*, EHUKo argitalpen zerbitzua, Bilbo, 1990 (itzultzailea José Luis Álvarez)

WITTGENSTEIN, Ludwig: *Conferencia sobre ética*, Paidós, Barcelona, 1990.



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-3011-9



9 788445 730119

Salneurria: 14 €